




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



ZTF-FCT
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología



KUDEAKETA TXOSTENA

2009/2010 ikasturtea

<i>Dekanoa</i>	Esther Domínguez Pérez
<i>Idazkaria</i>	Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña
<i>Dekanordeak:</i>	
<i>Komunikazio, Irudi eta Gizartearekiko Elkarrekintza</i>	Itziar Alkorta Calvo
<i>Ekonomia Gaiak eta Azpiegiturak</i>	M ^a Luisa Fdez. de Gubieda Ruiz
<i>Irakaskuntzaren Plangintza</i>	Roberto Aguado Zarraga
<i>Berrikuntza eta Kalitate Programak</i>	José Luis Pizarro Sanz
<i>Giza Baliabideak</i>	M ^a Jesús Irabien Gulías
<i>Titulazio Berriak</i>	Juan Luis Mañes Palacios
<i>Lan Segurtasuna eta Arriskuen Prebentzioa</i>	Alicia Muela Blázquez
<i>Euskara, Ikasleentzako Arreta eta Nazioarteko Harremanak</i>	Manuel Soto López
<i>Administratzailea</i>	Maike Adame Ortiz

Leioan, 2010eko abenduan



Edukien taula

1. AURKEZPENA	3
2. 2005-2010 PLAN ESTRATEGIKOA: JARDUEREN LABURPENA.....	4
2.1. Xedea, ikuspegia eta balioak	5
2.2. 7 ardatzak eta horien helburu estrategikoak	6
AE1 Giza baliabideak.....	9
AE2 Azpiegiturak eta lan ingurunea	10
AE3 Barne kudeaketa eta antolakuntza.....	11
AE4 Hezkuntzako bikaintasuna.....	13
AE5 Ikasleentzako eta ikasketak amaitu dituztenentzako arreta	15
AE6 Ikerketako bikaintasuna.....	16
AE7 Gizartearekiko elkarrekintza, komunikazioa eta irudia.....	17
3. 2009/2010 IKASTURTEKO KUDEAKETA TXOSTENA.....	19
3.1. Kudeaketa organoak.....	19
3.1.1. Zuzendaritza Taldea.....	19
3.1.2. Fakultateko Batzarra.....	19
3.1.3. Titulazioetako koordinatzaileak.....	20
3.1.4. Saitetako zuzendaritza.....	21
3.1.5. Fakultateko batzordeak.....	22
3.2. 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Planaren jarraipena.....	30
P1 Plangintzaren prozesua	37
P1.1 Plangintza estrategikoa	37
P1.2 Urteko plangintza.....	38
P1.3 Titulazioen plangintza.....	38
P2 Gradua.....	42
P2.1 Ikasle berriak erakartzea.....	42
P2.2 Ikasleak onartzea.....	47
P2.3 Irakaskuntza garatzea.....	48
P3 Graduondoko eta ikerkuntzako prozesua	55
P3.1 Masterrak eta doktoregoa	55
P3.2 Ikerkuntza.....	56
P4 Laguntza prozesuak	58
P4.1 Giza baliabideak.....	58
P4.2 Komunikazioa eta gizartearekiko elkarrekintza	61
P4.4 Baliabide materialak eta zerbitzuak.....	71
P4.5 Euskara.....	73
P5 Ebaluazio, berrikuspen eta hobekuntza prozesua	76
P5.1 Ebaluazioa.....	76
P5.2 Berrikuspena eta hobekuntza	80
P5.3 5S programa	82
4. 2010/2011 IKASTURTEKO KUDEAKETA PLANA.....	82
5. LABURDURAK.....	83
ESKERRAK.....	84



1. AURKEZPENA

Leioan, 2010eko abenduan

Dokumentu honetan aurkeztutako 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Txostenaren helburua Zientzia eta Teknologia Fakultateak azken ikasturtean gauzatutako kudeaketaren berri ematea da. Aipatutako ikasturteko Ekintza Plana baiezkoa emanda onartu zuen zegokion Ikastegiko Batzarrak.

Txostenak barne hartzen dituen hilabeteetan gauza asko gertatu dira, baina esanguratsuena Fakultateak proposatutako eta diseinatutako bederatzi graduen egiaztapen eta onarpen prozesua burutu izana da. Ildo horretatik, Titulazio Batzordeek egindako lana aintzatetsi behar da, izan ere, horiek gabe ezinezkoa izango zatekeen ikastegiaren behin betiko eskaintza osatzea.

Horrez gain, garrantzitsua da 2010/2011 ikasturterako eskola egutegi berri bat onartu dela aipatzea. Berrikuntza gisa, ikasturte horretan ezohiko azterketak uztailan egingo dira. Horrek ikasturtea goiz hasia (Fakultateko ikasle guztiek batera) eta bertako antolamendua hobetzea ahalbidetuko du.

Bestalde, aurreko ikasturtean Zientzia eta Teknologia Fakultateko II. Ikerketa Jardunaldiek garrantzi handia hartu dute eta harrera ezin hobea izan dute gure unibertsitateko kide guztien aldetik, bereziki, ikasleen aldetik.

Aldi berean, ikastegiko ohiko lana gauzatu da, bai irakaskuntzari bai ikerketari dagokienez, eta, horrez gain, irakaskuntzaren berrikuntza, prestakuntza jarraitua eta kultura eta zientzia hedapen jarduerak bultzatzeko ekimen berriak sustatu dira. Gainera, irakaskuntzarako azpiegiturak hobetu dira; horretarako, graduak emateak dakartzan erronka berriei pixkanaka aurre egitea ahalbidetuko duten ekipamendu berriak eskuratu ditu ikastegiak. Era berean, Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) egiaztapena lortzeko lan egin dugu; horri esker, duela gutxi AUDIT egiaztapena lortu dugu.

Dekanotza Talde osoaren parte-hartzea izan duen 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Txosten honetan, aipatutako ikasturtean egindako lan guztia zehaztu da eta, ahal izan den heinean, joerak eta konparazio datuak aurkeztu dira.

Esther Domínguez



2. 2005-2010 PLAN ESTRATEGIKOA: JARDUEREN LABURPENA

2002ko uztailean, Fakultateko Dekanotza Taldeak ikastegian ordura arte gauzatuak kudeaketa motari buruzko hausnarketa egin zuen eta EFQM ereduak ordura arte ZTF-FCTko Zuzendaritzaren ekintzak zuzentzen zituen filosofia barne hartzen zuela ondorioztatu zuen. Uste horrekin, Dekanotza Taldeak UPV/EHUko Kalitate Katedrari "Introducción al Modelo EFQM y sus vías de aplicación en un Centro Universitario" prestakuntza ikastaroa eskatu zion, eta baita lortu ere. Ikastaro horrek prestakuntza prozesu bati hasiera eman zion eta aipatu prozesuak, bestalde, ikastegiaren lehen autoebaluazioa egitea eta hobekuntza ekintzak definitzea ekarri zuen, ZTF-FCTren lehen Kudeaketa Planari hasiera emanaz.

2004an aipatutako Dekanotza Taldea berriz hautatu zenez, EFQM ereduarekin hartutako konpromisoa indartu zen; horrek garbi erakutsi zuen Fakultateko langileak kalitatearen kudeaketarekiko konpromisoa beren gain hartzeko prest zeudela. 2004. urteko lehen hiruhilekoan, Dekanotza Taldeak EFQM bikaintasunaren kudeaketa ereduaren prestakuntza sakondu zuen, ingurunearen lehen analisia eginez eta ereduarekin bat zetozen ZTF-FCTren xedea, ikuspegia eta balioak proposatuz.

2005ean, lehen hausnarketa estrategikoa egin zen. Hainbat pertsonak parte hartu zuten lan talde ezberdinetan, ikastegiko talde ezberdinen ordezkari gisa. Hausnarketa sakon horren ondorio gisa, Dekanotza Taldeak 2005-2010 Plan Estrategikoa gauzatu zuen, 2005eko urtarrilaren 31n Fakultateko Batzarrak onartutakoa. Aldi berean, ikastegiko lehen Prozesuen Mapa sortu zen. Horrek erakundeak gauzatuakotako jardura ugariak egiteko jarraitutako prozedura guztiak dokumentatu zituen.

Orditik aurrera, Zientzia eta Teknologia Fakultatearen balioek eta bertako antolamendu kulturak bat egiten dute erabateko kalitatearen printzipioekin, ikastegiak EFQM bikaintasun ereduaren erabiltzen du erreferentzia gisa eta kudeaketa bere ikuspegi bideratzen du, bost urtez behin egiten duen Plan Estrategikoaren bidez. Lan horren guztiaren aintzatespen gisa, Eusko Jaurlaritzak Kudeaketa Bikaintasunaren Zilarrezko Q saria eman zion ikastegiari 2006ko abenduan.

2007ko urtarrilean, Dekanotza Taldea aldatu zen. Kalitate politikari zegokionez, Dekanotza talde berriaren gobernu programak aurrekoari jarraitu zion eta bi oinarri nagusi izan zituen: 2005-2010 Plan Estrategikoaren garapena eta etengabeko hobekuntzako irizpideetan oinarritutako kudeaketa ereduak.

Ondorioz, esparru horretan aurrerapen garrantzitsuak egin dira, esaterako: Kalitate Batzordea sortzea (2007. urtea); Prozesuen Mapa berrikustea, eguneratzea eta hobetzea (2009. urtea); hainbat hobekuntza talde garatzea (Koordina, Tutore, Koordina2, etab.); eta irakaskuntza eta ikerketa laborategietan sistematikoki 5S metodologia ezartzea. Gaur egun, Fakultatea Europako Unibertsitate Eremura egokitzen ari da, gradu titulazio berrien ezarpenaren bitartez. Era berean, bere KBBSk egiaztatzen lortu du, AUDIT programaren bidez. Fakultateak kalitatearen kudeaketarekin duen konpromisoak antolamendu kultura erabateko kalitatearen printzipioetan oinarritzea ekarri du, EFQM bikaintasun ereduari jarraituz.



2.1. Xedea, ikuspegia eta balioak

Unibertsitateko ikastegien xede nagusia bertako ikasleei gaitasunak berenganatzen eta horiek hobetzen laguntzea, eta hezkuntza sistemaren helburuak lortzea da, baita kalitate oneko ikerketa lana gauzatzea ere. Fakultateak honela definitzen du bere xedea:

“ZTF-FCT UPV/EHUren barneko goi mailako hezkuntza ikastegia da, arlo zientifiko eta teknologikoa. Bertako ikasleen prestakuntza ardura bere gain hartzen du, horiek ibilbide emankorra egiteko eta hiritar arduratsu gisa aritzeko prestatuz. Aldi berean, ekoizpen zientifiko eta teknologikoaren sustatzaile gisa jarduten du, bai unibertsitatean bai euskal gizartean, azken horri sortzen duen ezagutzaren berri emanez”.

Ikuspegia ikastegiak etorkizunean izatera iritsi nahi duenarekin dago lotuta. Ikuspegiak datuetan oinarritu behar du, ez funtsik gabeko nahietan. Ildo horretatik, ZTF-FCTk honela definitzen du bere ikuspegia:

“ZTF-FCTk eremu zientifiko eta teknologikoetako erreferentziako prestakuntza erakundea izan nahi du, graduako eta graduondoko irakaskuntza eleaniztunarekiko konpromisoa hartzen duena, nazioartean ezaguna, eta ikasleei beren zeregin profesionalak gauzatzeko gaitasuna areagotzea ahalbidetuko diena. Ikerketa arloan duen ospea esparru nazionalen eta nazioartekoan sendotu nahi du, industria sektorearen lehiakortasuna hobetzeko (garapen iraunkorraren printzipioak bere gain hartuz) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kultura eta gizarte garapena ahalbidetzeko.

Horretarako, etengabeko hobekuntzako irizpideei jarraituko dien kudeaketa egin beharko da, baliabideak modu eraginkorrean erabiliz, ikasleen, irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen beharrak asetzeko”.

ZTF-FCTk balioak erabili behar ditu bere xedetik abiatuta zehaztutako ikuspegira iristeko. Balioak erakundearen kudeaketa erregulatzen duten printzipioak, iritziak eta arauak dira, erakundearen filosofia eta antolamendu kulturaren euskarria osatzen dutenak. Partekatutako balioek araua osatzen dute eta zuzendaritza, irakaskuntza eta administrazio erakundeek hartutako organoek arau hori izan behar dute oinarritzat. ZTF-FCTk ondorengo balioak partekatzen ditu:

- Irekitasuna eta gardentasuna
- Informazioaren transmisioa
- Parte-hartzea eta lankidetzatza
- Erantzukizuna eta profesionaltasuna
- Sentikortasuna eta ingurumenarekiko konpromisoa



2.2. 7 ardatzak eta horien helburu estrategikoak

Zuzendaritza Taldeak 2005. urtean gauzatutako hausnarketa estrategikoko prozesuak, AMIA analisia barne hartu zuenak, ZTF-FCTren 2005-2010 Plan Estrategikoa ezartzea ekarri zuen (AEa irudia). Bertan, ikastegiaren ikuspegia lortzera iristeko beharrezko zazpi Ardatz Estrategikoak (AE) zehaztu ziren, Zuzendaritza Taldeak ondoz ondoko hainbat urteko kudeaketa planen bidez zehaztutakoak. Ardatz estrategiko horien erabilera kontrolatzeko asmoz, funtsezko hainbat adierazle (edo aginte taula) zehaztu ziren, helburu (H) ezberdinen lortze maila neurtzeko (AEb irudia). Jarraian, ardatzak eta horietako bakoitzean zehaztutako helburuak agertzen dira.

AE1 Giza baliabideak

AE1-H1 ZTF-FCTko langileen gaitasun eta helburu profesionalak hobetzea.
AE1-H2 Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak egiazko beharretara egokitzea.
AE1-H3 Pertsonen gogobetetasun maila areagotzea.

AE2 Azpiegiturak eta lan ingurunea

AE2-H1 Ingurune fisikoa hobetzea.
AE2-H2 Irakaskuntzarako baliabideak eta azpiegiturak ahalik eta gehien hobetzea.
AE2-H3 Eraikinen eta ekipamenduen kudeaketa ahalik eta gehien hobetzea.

AE3 Barne kudeaketa eta antolakuntza

AE3-H1 EFQM eredia finkatzea, ZTF-FCTren kudeaketa erreferentzia gisa.
AE3-H2 Informazioaren kudeaketa hobetzea.
AE3-H3 Barne araudia eta kudeaketari laguntzeko organoak eratzea.

AE4 Hezkuntzako bikaintasuna

AE4-H1 Irakaslana hobetzea.
AE4-H2 Ikasleen trebakuntza hobetzea.
AE4-H3 Ikasleak erakartzea eta horiei bertan eustea.

AE5 Ikasleentzako eta ikasketak amaitu dituztenentzako arreta

AE5-H1 Oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukera hobetzea.
AE5-H2 Ikasleen prestakuntza aukerak areagotzea.
AE5-H3 Ikasketak amaitu dituztenekin dugun harremana hobetzea.

AE6 Ikerketako bikaintasuna

AE6-H1 Baliabideak ahalik eta gehien hobetzea eta merkatuko aukerak aprobetxatzea.
AE6-H2 Graduondoko eta doktoregoko ikasketak egokitzea.
AE6-H3 Ikerketa jarduera hedatzea.

AE7 Gizartearekiko elkarrekintza, komunikazioa eta irudia

AE7-H1 ZTF-FCTk prestakuntza ikastegi gisa duen indar zientifiko eta teknologikoa zabaltzea.
AE7-H2 Enpresa sektorearekin itunak egitea.
AE7-H3 ZTF-FCTren irudia indartzea.



Zientzia eta Teknologia Fakultatearen Mapa Estrategikoa, UPV/EHU

IKUSPEGIA: Zer izan eta egin nahi dugu?

Prestakuntzaren arloan, nazioartean aintzatesten den erakunde erreferente gisa jardutea. Ikerkuntzaren arloan, nazioartean dugun ospea sendotzea, garapen kultural, sozial eta industrialia indartuz.

Etengabeko hobekuntzako irizpideei jarraituko dien kudeaketa egitea, baliabideak modu eraginkorrean erabiliz, ikasleen eta langileen beharrak asetzeko.

Gure Ikasleak eta Gizartea

Gure ikuspegia erdiesteko, zer emaitza giltzarri eman behar dizkiegu gure ikasleei eta gizarteari?

- Hezkuntza malgua, berritzailea, ikaskuntzan oinarritutakoa ematea
- Ikasleak parte hartzeraz bultzatzea kalitate handiko hezkuntza-erperientzia praktikoetan
- Irakaskuntza eta ikerkuntza bikainak eskaintzea
- Gizartearen kolektiboak informatzea eta tartean sartaraztea

Gure Baliabideak

Gure ikasleentzako eta gizartearentzako nahi diren emaitzak erdiesteko, nola kudeatu behar ditugu baliabideak?

- Baliabideak banatzean, garrantzi estrategikoa duten arloei lehentasuna ematea
- Baliabideak gehitzea
- Baliabide-iturriak dibertsifikatzea
- Finantzarriak diren proiektuak aurkitzea

Gure Barne-prozesuak

Gure ikasleentzako eta gizartearentzako nahi diren emaitzak erdiesteko, zer barne-prozesuak garatu behar ditugu bikaintasunez?

- Gure ikasleak erakartzea eta leial bihurtzea graduatzen diren arte
- Curriculum nabarmenak ematea lanbide anitzeko prestakuntza azpimarratuz
- Ikerkuntza-talde produktiboak, kolaboratzaileak eta diziplina anitzekoak bultzatzea
- Informazio- eta kudeaketa-sistema eraginkorrak garatzea

Gure Aliantzak

Gure ikasleentzako eta gizartearentzako nahi diren emaitzak erdiesteko, zer aliantzak eratu behar ditugu?

- Garatu aliantza eraginkorrak EHU barruan
- Izaera berdintsua duten irakaskuntza-ikastegiekin hartu-emanak eratzea
- Harreman produktiboak eratzea ikerkuntzako eta enpresa sektoreko organismoekin
- Gizarte-erakundeekin aliantza iraunkorrak eratzea
- Aliantza erregionalak, nazionalak eta nazioartekoak eratzea

Gure Pertsonala: Ikaskuntza, Berrikuntza eta Hazkuntza

Gure ikuspegia erdiesteko, nola trebatu, entrenatu eta motibatu behar dugu gure pertsonala?

- Lan taldeak garatzea, ingurugiro aldakorrera nola egokitu jakiteko
- Pertsonala prestatzea kudeaketaren eta ikasteko modu berrien arloetan
- Laneko giro atsegina, ziurra eta ahalegina aintzat hartzen duena sortzea
- Organizazioaren parte izatearen sentimendua piztu eta sendotu

HELBURUA: Zientzia eta Teknologia Fakultatea, ZTF-FCT, alor zientifiko-teknologikoetako goi mailako hezkuntza ikastegia da, EHU-n integratua dagoena, etabere gain hartzen du:

- Alor zientifiko-teknologikoetan graduatuak prestatzea
- Ekoizpen zientifiko-teknologikoa eta ikertzaileen trebakuntza bultzatzea
- Gizarteari ezagutza, esperientzia eta zerbitzua ematea





Perspectiva	Objetivo estratégico	Indicador	Unidad de medida	Cod.	2003/04	Objet. 2010
	Mejorar la actividad docente	Grado de avance en Innovación Pedagógica	% de materias adaptadas al sistema ECTS	P.2.3m	4	100
	Mejorar la calidad de los estudiantes	Rendimiento académico	Tasa de rendimiento media	P.2.3c	0,66	0,66
			Índice relativo de duración de los estudios	P.2.3a	1,33	1,2
Clientes	Captación y fidelización del alumnado	Captación de alumnos motivados	Número de centros de secundaria estratégicos contactados	P.2.1ca	0	75
	Mejorar el acceso a servicios básicos	Calidad de los servicios de atención al estudiante	Número de entrada del último alumno del percentil 80	P.2.1d	8,43	8,5
	Incrementar las posibilidades de formación del alumnado	Utilización de los programas de intercambio	Índice de satisfacción con la información recibida en los servicios de alumnado	P.2.3.2e	5,14	7/10
	Mejorar la relación con los egresados	Incremento de la oferta de prácticas en empresa tuteladas por la ZTF-FCT	% de alumnos de 2º ciclo que realizan prácticas en empresa por mediación de la ZTF-FCT	P.2.3.6b	3,52	5
Personas	Mejorar las capacidades y aspiraciones profesionales del personal de la ZTF-FCT	Capacitación del personal en relación con los nuevos Espacios Tecnológicos y Docentes	Nº de PDI y PAS participantes en cursos de formación	P.4.1.3a	97	225
	Adecuar las plantillas de PDI y PAS a las necesidades reales	Grado de ajuste de la plantilla actual a la plantilla teórica en PDI y PAS	Nº de plazas dotadas frente a las prioritizadas	P.4.1.1f	100	600 (1,5 por PDI)
	Incrementar el grado de satisfacción de las personas	Grado de satisfacción de las personas	Evolución de la plantilla de PAS	P.4.1.1a	27	44
	Mejorar el grado de la seguridad del entorno físico	Cumplimiento de los protocolos de higiene y seguridad	Índice de satisfacción global de las personas	P.5.1.1b	6,67	7/10
	Consolidar el modelo EFQM como referencia para la gestión de la ZTF-FCT	Grado de avance en la gestión por procesos	Nº de protocolos de higiene y seguridad	P.4.4.Cg	1	10
Procesos	Mejorar la gestión de la información	Grado de mejora de los procesos de comunicación interna	Índice de satisfacción en la gestión de la información y comunicación	P.4.4.Cf	4,06	7/10
		Disponibilidad y utilización de herramientas para la explotación de datos	% de procesos con protocolo (mapa de procesos)	P.5.1e	0	100
		Grado de mejora de los procesos de comunicación interna	% de cumplimiento del Plan de Gestión	P.1.2a	74	75
Recursos	Optimizar los recursos e infraestructuras para la docencia	Financiación, priorizada por objetivos, de proyectos docentes	Inversión en infraestructura docente por alumno (€)	P.4.2.1d	6,45	7/10
	Optimizar la gestión de los inmuebles y equipamientos	Explotación de equipamientos e inmuebles	% de cumplimiento sobre las previsiones establecidas	P.4.4Ad	10	85
	Incrementar los recursos de investigación	Incremento de los recursos destinados a investigación	Inversiones en infraestructura docente por alumno (€)	P.4.4Ad	124	225
	Establecer alianzas con el sector empresarial	Alianzas con empresas	Nº de locales utilizados en la ZTF-FCT	P.4.4Be	191	250
Alianzas	Adaptar los estudios de postgrado	Atención de los egresados	Nº de proyectos de investigación	P.3.2d	128	200 (2 PDI por proyecto)
	Diffundir la actividad investigadora	Transferencia y difusión de los resultados de investigación	Nº de convenios firmados	P.2.3.7c	178	320
Sociedad	Diffundir el potencial científico-tecnológico de la ZTF-FCT como centro formativo	Capacidad de comunicación y proyección social	Nº de empresas que realizan convenios complementaria	P.2.3.7b	215	(25% alumnado 2º ciclo)
		Atención de los egresados	Nº de créditos en cursos de formación complementaria	P.2.3.8b	18,2	20
		Transferencia y difusión de los resultados de investigación	Índice de publicaciones por PDI	P.3.2e	0,84	0,9
		Capacidad de comunicación y proyección social	Índice de contratos por PDI	P.3.2f	0,31	0,28
	Mejorar la imagen de la ZTF-FCT	Utilización de la imagen corporativa	Nº de apariciones de prensa y en medios de comunicación en general	P.4.2.1c	36	45/año
			Nº de apariciones en prensa y en medios de comunicación en general	P.4.2.1b	19	50/año
			Nº de documentos	P.4.2.1e	50	100

AEb irudia.- ZTF-FCTren 2005-2010 Plan Estrategikoan zehaztutako aginte taula.



AE1 Giza baliabideak

Giza baliabideek osatzen dute ZTF-FCTren indargune nagusia, horregatik, arlo hau da ikastegiaren aktibo garrantzitsuenetakoa. Pertsonak, bai irakasle eta ikertzaileak bai AZPko langileak, dira ikastegiak ondo funtzionatzeko eta gizarteari eskaintzen dizkion zerbitzuen hobekuntzan aurrera egiten jarraitzeko funtsezko elementua. Ardatz honen barnean ezarritako helburu estrategikoak ondorengoak dira:

AE1-H1 ZTF-FCTko langileen gaitasun eta helburu profesionalak hobetzea.


AE1-H2 Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak egiazko beharretara egokitzea.

AE1-H3 Pertsonen gogobetetasun maila areagotzea.


Bost urte hauetan, nabarmen areagotu da ikastegiko langileen teknologia eta irakaskuntza arloko trebakuntza. Ikasgela birtualen erabilera modu adierazgarrian areagotu da eta irakasleek erabilitako irakaskuntza metodologia gehienak Europako Unibertsitate Eremura egokitu dira.

Era berean, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna ere areagotu egin da (ekitaldi zientifikoak eta/edo iraupen gutxiko egonaldiak; AE1a irudia), modu horretan beste kide batzuekin esperientziak trukatzeko eta ikerketa esparruko lankidetzak berriak ezartzea ahalbidetuz.

ZTF-FCTko administrazio eta zerbitzuetako langile kopurua etengabe areagotu da azken urteetan (AE1b irudia). Gaur egun, talde hori Fakultateko jardura ezberdinak babesten eta ahalbidetzen dituzten 64 pertsonak osatzen dute (LPZ eta laguntzarako langileak). Azkenik, esan behar da aipatutako aldiaren ikastegiko langileen gogobetetasun maila, oro har, 6 eta 7 puntu artean egon dela (10 puntuko eskalan).



AE1a irudia.- P2.3.6f adierazlea: Mugikortasun programetan parte hartzen duten ZTF-FCTko langileak (15 egun baino gutxiagoko egonaldiak). Iturria: ikastegiko txostena.



AE1b irudia.- P4.1.1a adierazlea: AZPko langile kopurua. Iturria: ikastegiko txostena.

AE2 Azpiegiturak eta lan ingurunea

1999 eta 2003. urteen artean Fakultatean egindako zabalkuntzari eta berrikuntzari esker, irakaskuntza eta ikerketa ondo gauzatzeko lokal gehiago ditugu. Ondorengo urteetan, informatika gelak nabarmen hobetu dira eta azpiegituren erabilgarritasuna eta eraginkortasuna hazi egin da.

Horrez gain, desgaitasunen bat duten pertsonen sarbidea mugatzen zuten oztopo arkitektonikoak kendu dira. Gaur egun, ZTF-FCTk unibertsitate sisteman modu arrakastatsuan lehiatzeko eta bikaintasun bereizgarria lortzeko moduko azpiegiturak ditu, urtero ondorengo helburu estrategikoen testuinguruan ezartzen dituen etengabeko hobekuntzei esker:

AE2-H1 Ingurune fisikoa hobetzea.


AE2-H2 Irakaskuntzarako baliabideak eta azpiegiturak ahalik eta gehien hobetzea.

AE2-H3 Eraikinen eta ekipamenduen kudeaketa ahalik eta gehien hobetzea.


Arreta berezia eskaini behar zaio laneko arriskuen prebentzioaren arloari. Gaur egun, ikastegiak higiene eta segurtasun protokolo ugari ditu. Lan horri esker, azken urteetan langileek segurtasun alderdiekiko duten gogobetetasun maila areagotu egin da (AE2a irudia).

ZTF-FCTko eremuak mota askotako hainbat ekitaldi egiteko erabiltzen dira, bai Fakultateko kideek antolatutakoak bai UPV/EHUko edo UPV/EHUz kanpoko ikastegi edo erakundeek antolatutakoak.

Azkenik, irakaskuntzarako baliabideak ere areagotu egin dira, azken ikasturteetan egin den etengabeko inbertsioari esker: gutxi gorabehera, ikastegiaren aurrekontuaren erdia inbertsio horietarako erabiltzen da (ikusi AE2b irudia).



AE2a irudia.- P4.4Cf1 (AZPko langileen laneko segurtasunarekiko gogobetetasun maila) eta P4.4Cf2 (Irakasle eta ikertzaileen laneko segurtasunarekiko gogobetetasun maila) adierazleak. Iturria: ikastegiko inkestak, NOVOTEC inkesta, KBZSren inkesta. 1 etik 10erako eskala.



AE2b irudia.- Irakaskuntzarako azpiegituran egindako ikasle bakoitzeko inbertsioak adierazlea. Iturria: ikastegiko txostena.

AE3 Barne kudeaketa eta antolakuntza

Testuinguru honetan, garrantzi berezia hartu du ikastegiko antolakuntza estamentu ezberdinen arteko koordinazioak, izan ere, ZTF-FCTk eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea koordinazio horren menpe dago. Arrakasta zeregin ezberdinak burutu ahal izateko jarraitu beharreko metodologia ezartzen duen finkatutako Prozesuen Mapari esker lortu da. 2004. urtean Fakultatea kudeatzeko EFQM eredu erabiltzen hasteak ikastegiak bikaintasun maila handia lortzea ekarri du. Ardatz honetarako ezarritako helburu estrategikoak ondorengoak dira:


- AE3-H1 EFQM eredu finkatzea, ZTF-FCTren kudeaketa erreferentzia gisa.
- AE3-H2 Informazioaren kudeaketa hobetzea.
- AE3-H3 Barne araudia eta kudeaketari laguntzeko organoak eratzea.




Orain amaituko den Plan Estrategikoaren garapen aldiari, ondoz ondoko zuzendaritza taldeek ikastegiko Prozesuen Mapa egin (2005. urtea), berrikusi eta eguneratu (2009/2010 ikasturtea) dute. Gaur egun, Fakultatean kudeatutako jarduerak gehienak dokumentatuta daude, dagozkien prozedurekin batera (AE3a irudia). Neurri handi batean, horrek AUDIT programaren ildoak jarraituz Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren egiaztapena lortzen lagundu digu (2010. urtea).

Era berean, informazioaren hedapenarekin zerikusia duten alderdi guztiak hobetzeko ahalegina egin dute bai ikastegiko langileek bai ZTF-FCTtik kanpoko interes taldeek. Egindako lanari esker, ikastegiko parte diren pertsonen informazioaren eta komunikazioaren kudeaketarekiko duten gogobetetasun mailak gora egin du (AE3b irudia), baita Fakultateko jardueren hedabideetan izandako presentziak ere (ikus AE7a irudia).

Horrez gain, azken urteetan barne antolamendua indartu egin da Kalitate Batzordearen, Titulazioetako 9 Batzordeen, Gradu Ikasketen 9 Batzordeen eta Berdintasun Batzordearen sorrerarekin. Batzorde horiek sortu izanaren ondorioz, 100 pertsona baino gehiago sartu dira Fakultatearen antolamendu eskeman, horrek dakarren lidergo partekatuarekin.



AE3a irudia.- P5.1e adierazlea: *Prozesu eta prozedura dokumentatuen portzentajea*. Iturria: ikastegiko txostena.



AE3b irudia.- P4.2.1d, e adierazlea: AZPko langileen eta ikasle eta ikertzaileen barne komunikazioarekiko gogobetetasun maila. Iturria: ikastegiko inkestak, NOVOTEC inkesta, KBZSren inkesta. 1 eta 10 arteko eskala.

AE4 Hezkuntzako bikaintasuna


Egungo lan merkatuaren eskariak berebiziko garrantzia hartzen ari dira hezkuntza eredu berriaren konfigurazioan. Gizarteak, prestakuntza sendoaz gain, lana ahalik eta ondoen egiteko beharrezkotzat jotzen diren hainbat gaitasun, trebetasun eta abilezia dituzten profesionalak eskatzen ditu. Gure fakultateak jakiteko eta egiten jakiteko irakastearen erronkari aurre egin behar dio, izan ere, hori da Europako Unibertsitate Eremuaren oinarrian dagoen filosofia. Xede horiek lortu ahal izateko, ondorengo helburuak ditugu:

- AE4-H1 Irakaslan hobetzea.
- AE4-H2 Ikasleen trebakuntza hobetzea.
- AE4-H3 Ikasleak erakartzea eta horiei bertan eustea.


Azken bost ikasturteetan, etorkizunean gure ikasleak izan daitezkeen artean zientzia eta teknologia hedatzeko ahalegin handia egin dugu, horiei Fakultatean eskainitako ikasketen berri emanez. Hainbat ekintza antolatu dira, esaterako: estrategikotzat hartutako bigarren hezkuntzako ikastetxeetara egindako bisitaldiak, "Zientzia Bizirik" eta Zientzia Olinpiadak. Gainera, ikastegiko langileek Unibertsitate Orientaziorako Azoketan, Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan, etab. parte hartu dute.

Europako Unibertsitate Eremura sartzeak gure ikastegian emandako gero eta irakasgai gehiagotan (gaur egun, % 40n) ECTS kredituen sistema martxan jartzea eta irasleek erabilitako irakaskuntza metodologiak pixkanaka egokitzea ekarri du.

Bost urteko aldi honetan, ikasleen batez besteko errendimenduak goranzko bilakaera izan du eta joera positiboa ikus daiteke bai ikasketen batez besteko iraupenean (AE4a irudia) bai horien errendimendu tasetan (AE4b irudia).



AE4a irudia.- P2.3a adierazlea: *Ikasketen batez besteko iraupenaren adierazlea*. Unitateak ikasketak ikasketa planean zehaztutako ikasturte kopuruaren barruan amaitzea esan nahi du. Iturria: ARTUS.



AE4b irudia.- P2.3c adierazlea: *Errendimendu tasa* (ikasketa urtean matrikulatutako kredituetatik gainditutakoak), portzentajeetan adierazita. Eskuineko zutabeak 9 titulazioen batezbestekoak adierazten ditu. Iturria: ARTUS.



AE5 Ikasleentzako eta ikasketak amaitu dituztenentzako arreta


Unibertsitateak bereizten dituen faktoreetako bat ikasleei eta ikasketak amaitu dituztenei zuzendutako zerbitzuak martxan jartzea da, ikasleen arreta eta eskaerak pertsonalizatzeko helburu garbiarekin. Eskainitako zerbitzua hobetzeko, ZTF-FCT ondorengo helburuetan oinarritzen da:

- AE5-H1 Oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukera hobetzea.
- AE5-H2 Ikasleen prestakuntza aukerak areagotzea.
- AE5-H3 Ikasketak amaitu dituztenekin dugun harremana hobetzea.


Arlo honetan, ZTF-FCTk irakaskuntza zentro integrala izatea du helburu, betiere, irakaskuntza prozesu elkarreragile gisa ulertuta eta ez ikasleen nortasuna eta kezkek alde batera uzten dituen edukien transmisio huts gisa. Arreta integral horren oinarri nagusia Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak (ZTFIAZ) eta Sócrates-Erasmus, Sicue-Seneca edo Tassep programek osatzen dute. Programa horien bidez ikasleen trukea egiten da Estatuko eta nazioarteko beste unibertsitate batzuekin (AE5a irudia).

Era berean, praktika eta enplegu poltsek tituludunak lan merkatuan sartzea errazten dute. Ildo horretatik, enprekin eta inguruko erakundeekin egindako hezkuntza lankidetzako hitzarmenetan (HLH) parte hartu duten ikasleen kopuruak nabarmen egin du gora (AE5b irudia). Dena den, 2008. urtetik aurrera, egoera ekonomiko larria dela eta, eskainitako praktika kopuruak behera egin du eta, ondorioz, baita hitzarmenen kopuruak ere.

2005. urtetik, urtero egiten dira Enpresen eta Teknologia Zentroen aurkezpen jardunaldiak, lan munduko beharrak eta aukerak ikasleengana hurbiltzeko asmoz, beren etorkizuneko enplegu-emaileekiko harreman zuzena ahalbidetuz. Azkenik, ikasleek ZTF-FCTren Ikerketa Jardunaldietan parte hartzeak garapen profesionaleko arlo erakargarri honi buruzko ezagutza eskaintzen die.



AE5a irudia.- P2.3.6b adierazlea: Mugikortasun programetan (SICUE/SENECA, Erasmus, TASSEP, AL, Beste norakoak) parte hartu duten ZTF-FCTko ikasleen portzentajea (bigarren zikloak). Iturria: ikastegiko txostena.



AE5b irudia.- P2.3.7a adierazlea: *Praktiketan egondako ikasle kopurua (HLH)*. Iturria: ZTFIAZ.

AE6 Ikerketako bikaintasuna

Ikerketa ezagutza zientifikoak aurrera egitea ahalbidetzen duen motorra da. Testuinguru horretan, ZTF-FCTk leku garrantzitsua du EAEn eta etorkizun ezin hobea nazioartean. Fakultatearen arrakasta bertako irakasle eta ikertzaileen motibazioari eta ikerketa prestakuntzari zor zaio batez ere, baina baita ikerketan jarduteko dituen azken belaunaldiko ekipamenduei ere. Ardatz honetan, ondorengo helburuak finkatu dira:


AE6-H1 Baliabideak ahalik eta gehien hobetzea eta merkatuko aukerak aprobetxatzea.

AE6-H2 Graduondoko eta doktoregoko ikasketak egokitzea.


AE6-H3 Ikerketa jarduera hedatzea.

Nabarmentzeko modukoa da Fakultateko irakasle eta ikertzaileek ikerketa proiektuen lehiaketa deialdi nazionaletan eta nazioartekoetan, eta egiten diren ikerketa kontratu ugaritan, izan duten parte-hartzea (AE6a irudia).

Ikerketa nazioartean hedatzeak ISI aldizkarietako argitalpenetan egindako ekarpenak etengabe areagotzea ekarri du (AE6b irudia). Gainera, goi mailako ikerketa jarduerak eskainitako graduondoko ikasketen kalitatea hobetzea dakar. Ildo horretatik, doktorego ikasketak ere hezkuntza ingurune berriari egokitu zaizkio, graduondoko ikasketen eskakizunei erantzungo dieten master berriak sortuz. Gaur egun, 14 master ematen dira Fakultatean; horietatik 8 unibertsitate artekoak dira, 13k doktoregorako sarbidea ahalbidetzen dute eta 8k kalitate aipamena dute.



AE6a irudia.- P3.2i (Ikerketa kontratu kop.) eta P3.2b (Onartutako ikerketa proiektu kop.) adierazleak. Iturria: Ikerketako Errektoreordetza.



AE6b irudia.- P3.2e adierazlea: ISI aldizkarietan guztira egindako argitalpen kopurua. Iturria: Ikerketako Errektoreordetza.

AE7 Gizartearekiko elkarrekintza, komunikazioa eta irudia

Komunikazioa ikastegiaren funtzionamendurako funtsezko elementua da. Urte gutxitan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak pixkanaka hartzen ari diren protagonismoa dela eta, arlo hau kudeaketaren zerbitzura dagoen tresna bihurtu da. Komunikazioaren helburua Fakultateak gizartean duen presentzia sustatzea eta gizarteari egiten dion ekarpena agerian uztea da. Gero eta globalagoa eta lehiakorragoa den gizarte honetan, erakundeen izen ona gizartearen beharrei erantzungo dieten kalitate oneko produktu eta zerbitzuak eskaintzeko duten ahalmenean oinarritzen da.




Horri dagokionez, Fakultateak, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kontuan hartuta, oso posizio ona lortu du. Puntu honetan zehaztutako helburuak ondorengoak dira:

- AE7-H1 ZTF-FCTk prestakuntza ikastegi gisa duen indar zientifiko eta teknologikoa zabaltzea.
- AE7-H2 Enpresa sektorearekin itunak egitea.
- AE7-H3 ZTF-FCTren irudia indartzea.

Urteotan, arreta berezia eskaini zaio ikastegiko jardueren hedapen publikoari: titulazioen eskaintza; ikerketen emaitzak; gertakizun zientifikoak, sozialak eta kulturalak; etab. Kanpoko enpresa baten laguntzarekin (Pool de Comunicación) egindako lan horri esker, ZTF-FCTk hedabideetan duen presentzia nabarmen areagotu da (AE7a irudia), Fakultatea gizartean agerikoago ginez.

Horrez gain, lankidetzaz hitzarmenen bidez, hainbat enpresa, entitate eta erakunderekin itunak sortzeko eta horiek indartzeko politikari bere horretan eutsi diogu. Hitzarmen hauek onurak ekartzen dizkiete bi alderdiei eta gizarteak Fakultatearen indar zientifiko eta teknologikoa balioestea ahalbidetzen dute.



AE7a irudia.- P4.2.1c adierazlea: ZTF-FCTk hedabideetan egindako agerraldi kopurua. Iturria: ikastegiko txostena, UPV/EHUko Komunikazio Bulegoa.



3. 2009/2010 IKASTURTEKO KUDEAKETA TXOSTENA

3.1. Kudeaketa organoak

3.1.1. Zuzendaritza Taldea

Dekanoa:	Esther Domínguez Pérez
Idazkaria:	Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña
Dekanordeak:	
Ekonomia Gaiak eta Azpiegiturak:	M ^a Luisa Fernández de Gubieda Ruiz
Euskara, Ikasleentzako Arreta eta Nazioarteko Harremanak:	Manuel Soto López
Komunikazioa, Irudia eta Gizartearekiko Elkarrekintza:	Itziar Alkorta Calvo
Berrikuntza eta Kalitate Programak:	José Luis Pizarro Sanz
Titulazio Berriak:	Juan Luis Mañes Palacios
Irakaskuntzaren Plangintza:	Roberto Aguado Zarraga
Giza Baliabideak:	M ^a Jesús Irabien Gulías
Lan Segurtasuna eta Arriskuen Prebentzioa:	Alicia Muela Blázquez
Administratzailea:	Maike Adame Ortíz

3.1.2. Fakultateko Batzarra

Berezko kideak

Esther Domínguez Pérez	María Jesús Irabien Gulías
José Luis Pizarro Sanz	Juan Luis Mañes Palacios
M ^a Luisa Fdez. de Gubieda Ruiz	Alicia Muela Blázquez
Roberto Aguado Zarraga	Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña
Itziar Alkorta Calvo	Manuel Soto López
	Maike Adame Ortíz

Irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorrak

Ana Aguirre Escobal	Néstor Etxebarria Loizate
Julián Aguirre Estibález	M ^a Luisa Fernández Rodríguez
Juan M ^a Aguirregabiria Aguirre	Ana Guadalupe Gayubo Cazorla
Alicia Alonso Izquierdo	M ^a Begoña González Moro
Arantza Aramburu Artano	Juan Ramón González Velasco
Inés Arana Basabe	José Ignacio Gutiérrez Ortiz
José M ^a Arandes Esteban	Josu Igartua Aldamiz
Jesús M ^a Arregi Lizarraga	Rosa Jiménez Sanz
Estibaliz Apellaniz Ingunza	Josu Jugo García
Dolores Badía Urrestarazu	Issa Katime Amastha
José Manuel Barandiarán García	Luis Laín Pérez
José M ^a Becerril Soto	Luis León Isidro
M. Pilare Cajaraville Bereciartua	Esther Lete Expósito
Alberto Chamorro Belmont	Javier José Loidi Arregui
Inés J. del Campo Hagelstrom	Gotzon Madariaga Menéndez
Luis Elcoro Cengotitabengoa	Ionan Marigómez Allende



Federico Mijangos Antón
Enrique Navarro Adorno
José Luis Nieva Escandón
Mercedes Ortega Hidalgo
Martín Olazar Aurrekoetxea
Xabier Orue-Etxebarria Urkiza
Ana Pascual Cuevas
Adelina Prado Ruiz
Esther Rebato Ochoa

Bestelako irakasle eta ikertzaileak

Jon Iñaki Alvarez Uriarte
Sonia Arrasate Gil
Beatriz De Rivas Martín
Unai Elizundia Eriz
Irantzu Martínez Arcarazo

Administrazio eta zerbitzuetako langileak

M^a Dolores Aguiriano Nafarrate
M^a Carmen Aguinaga Portillo
Monsterrat Barrio Andrés
Iñaki Bilbao Larrea
Juan Martín Gardoqui Bilbao
Luis Angel García Castresana

Ikasleak

Bittor Abasolo Calleja
Mikel Agirre Rodrigo
Maialen Arrieta Aseginolaza
Marlene Beccari Galeano
Eider Berganza Egiarte
Elisabeth Buide Fernández
Jon Camuera Bidaurreta
Ana Carreras González
Arkaitz Davila Barcina
Jasone Garay García

Teófilo Rojo Aparicio
Eduardo Sáinz de la Maza Escobal
Isabel Salcedo Larralde
Juan Luis Serra Ferrer
Isabel Smith Zubiaga
Miren Bego Urrutia Barandika
Karmele Urtiaga Greaves
Fernando Varona Hierro
Luis Vega González

Xabier Murelaga Berikua
Monika Ortueta Aldama
Aresatz Usobiaga Epelde / José M^a Castresana Pelayo
José Luis Vilas Vilela

Concepción Goitia Ugarte
Luis Enrique González Juanes
Pilar González Revillas
Pedro Ugarte Jaio
Antonia Vaz Morón

Alvaro González Santillán
Yaiza Gutiérrez Vázquez
Borja Herrero de la Parte
Aitzol Iturbe Beristain
Jasone Garay García
Alvaro González Santillán
Yaiza Gutiérrez Vázquez
Borja Herrero de la Parte
Aitzol Iturbe Beristain

3.1.3. Titulazioetako koordinatzaileak

Biologia	Ana Aguirre Escobal
Biokimika	Mertxe Martínez Bilbao
Bioteknologia	María Jesús Llamas
Fisika	Josu Igartua Aldamiz / Nerea Zabala Unzalu
Geologia	Julio Rodríguez Lázaro
Ingeniaritza Elektronikoa	Ibon Sagastabeitia Buruaga
Ingeniaritza Kimikoa	Andrés T. Aguayo Urquijo
Matematika	Pedro Alegria Ezquerria
Kimika	Nestor Etxebarria Loizate



3.1.4. Sailetako zuzendaritza

- Landare Biologia eta Ekologia
Zuzendaria: Emma Orive Aguirre
Idazkaria: M^a Begoña González Moro
- Biokimika eta Biologia Molekularra
Zuzendaria: José Luis Nieva Escandón
Idazkaria: Helena Ostolosa Etxabe
- Elektrizitatea eta Elektronika
Zuzendaria: Víctor Etxebarria Ecenarro
Idazkaria: Nerea Zabala Unzalu
- Estratigrafia eta Paleontologia
Zuzendaria: Aitor Payros Aguirre / Estibaliz Apellaniz Ingunza
Idazkaria: Xabier Murelaga Bereikua
- Fisika Aplikatua II
Zuzendaria: Carlos Santamaría Salazar
Idazkaria: Iñigo Etxebarria Altzaga
- Materia Kondentsatuaren Fisika
Zuzendaria: Gotzon Madariaga Menéndez
Idazkaria: César Folcia Basa
- Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia
Zuzendaria: Jesús Ibáñez Medrano
Idazkaria: Iñigo Egusquiza Egusquiza
- Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia
Zuzendaria: Enrique Navarro Adorno
Idazkaria: Ana Isabel Aguirre Escobal / Asier Fullaondo Elordui-Zapaterieche
- Geodinamika
Zuzendaria: Benito Ábalos Villaro
Idazkaria: Vicente Iribar Sorazu
- Ingeniaritza Kimikoa
Zuzendaria: Ana G. Gayubo Cazorla
Idazkaria: Fernando Varona Hierro
- Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa
Zuzendaria: Virginia Muto Foresi
Idazkaria: Silvia Marcaida Bengoechea
- Matematika
Zuzendaria: Eugenio Jesús Gómez Ayala
Idazkaria: María Lourdes Ortiz de Elguea Ugartondo
- Mineralogia eta Petrologia
Zuzendaria: Pedro Pablo Gil Crespo / Miren Karmele Urtiaga Greaves
Idazkaria: Miren Mendia Aranguren
- Kimika Analitikoa
Zuzendaria: M^a Angeles Olazabal Dueñas
Idazkaria: Alberto de Diego Rodríguez
- Kimika Fisikoa
Zuzendaria: Luis Carlos Cesteros Iturbe / Luis León Isidro
Idazkaria: Fco. José Basterretxea Elguezabal / José Luis Vilas Vilela
- Kimika Ezorganikoa
Zuzendaria: Pascual Román Polo
Idazkaria: Izaskun Gil de Muro



- Kimika Organikoa II
Zuzendaria: Esther Lete Expósito
Idazkaria: María Luisa Carrillo Fernández
- Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia
Zuzendaria: Ionan Marigomez Allende / Juan Carlos Iturrondobeitia Bilbao
Idazkaria: Juan Carlos Iturrondobeitia Bilbao / Miren Pilare Cajaraville Bereciartua
- Saileko atala: Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia
Koordinatzailea: Aitor Rementeria Ruiz
- Saileko atala: Euskal Filologia
Koordinatzailea: Igone Zabala Unzalu

3.1.5. Fakultateko batzordeak

Fakultateko Batzarreko Batzorde Iraunkorra

Irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorrak:	Esther Domínguez Pérez (presidentea) Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña (idazkaria) Julián Aguirre Estibalez Dolores Badía Urrestarazu Josu Igartua Aldamiz Rosa Jiménez Sanz Enrique Navarro Adorno Xabier Orue-Etxebarria Urkiza Isabel Smith Zubiaga
Bestelako irakasle eta ikertzaileak:	Sonia Arrasate Gil Mónica Ortueta Aldama
AZPko langileak:	Dolores Aguiriano Nafarrate Pedro Ugarte Jayo
Ikasleak:	Ez dira izendatu

Ekonomia Gaien Batzordea

Irakasleak:	M ^a Luisa Fernández de Gubieda Ruiz Inés Arana Basabe (Biologia) Alicia Alonso Izquierdo (Biokimika) Ana Rallo Gruss (Ingurumen Zientziak) Cesar Luis Folcia Basa (Fisika) Pedro Pablo Gil Crespo (Geologia) Inés del Campo Hagelstrom (Ingeniaritza Elektronikoa) Federico Mijangos Antón (Ingeniaritza Kimikoa) Mikel Lezaun Iturralde (Matematika) Carmen Iriondo Gabilondo (Kimika)
AZPko langileak:	Maike Adame Ortiz (administratzailea)
Ikasleak:	Ez dira izendatu



Kalitatea Bermatzeko Batzordea

Irakasleak:	Esther Domínguez Pérez José Luis Pizarro Sanz Ana Isabel Aguirre Escobal Andrés T. Aguayo Ibon Sagastabeitia Buruaga Josu Igartua Juan Ramón González-Velasco Julio Rodríguez Mercedes Martínez Bilbao Nestor Etxebarria Pedro Alegría Rosa María Jiménez
AZPko langileak:	Charo Pastor/Julio Alvarez Valdivielso
Ikasleak:	Natanael Ayllón Iker Blasco

Euskara Batzordea

Irakasleak:	Manuel Soto López Ana I. Puente Martínez (Biologia) Mertxe Martínez Bilbao (Biokimika) José Ramón Díez (Ingurumen Zientziak) Nerea Zabala Unzalu (Fisika) Estíbaliz Apellaniz Ingunza (Geologia) Iraide Mardones Pérez (Matematika) Josu Jugo García (Ingeniaritza Elektronikoa) Martín Olazar Aurrecoechea (Ingeniaritza Kimikoa) Fernando Mijangos Ugarte (Kimika)
AZPko langileak:	M ^a Dolores Aguiriano
Ikasleak:	Ez dira izendatu

Hauteskunde Batzordea

Presidentea:	M ^a Jesús Irabien Gullas
Idazkaria:	Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña
Katedradunak eta titularrak:	M ^a Dolores Badia Urrestarazu
Irakasle kontratatatuak:	Mónica Ortueta Aldama
AZPko langileak:	M ^a Carmen Aguinaga Portillo
Ikasleak:	Ez dira izendatu



Truke Akademikoko Batzordea

Irakasleak: Manuel Soto López
Irrintzi Ibarrola / Ibon Cancio (Biologia)
Aitor Bergara Jauregi (Fisika)
Julio Rodríguez / Xabi Murelaga (Geologia)
José Ignacio Gutiérrez Ortiz (Ingeniaritza Kimikoa)
Judith Rivas (Matematika)
Rosa Alonso Rojas (Kimika, Biokimika)
Itziar Alkorta Calvo (Biokimika)

Ikerketa Batzordea

Irakasleak: M^a Luisa Fernández de Gubieda Ruiz
Miren Cajaraville Bereziartua (Biologia)
Alberto Muñoz Rueda (Landare Biologia eta Ekologia)
Juan Luis Serra Ferrer (Biokimika)
José Ignacio Gutiérrez Ortiz (Ingeniaritza Kimikoa)
Aitor Bergara Jauregi (Fisika)
Manuel Barandiaran García (Fisika)
Miren Karmele Urtiaga Greaves (Geologia)
Luis Vega González (Matematika)
Raúl San Martín Faces (Kimika)

Irakaskuntza Laborategien Batzordea

Irakasleak: M^a Luisa Fernández de Gubieda Ruiz
Inés Arana Basabe (Biologia)
Alicia Alonso Izquierdo (Biokimika)
Cesar Folcia Basa (Fisika)
Julia Cuevas Urionabarrenechea (Geologia)
Ibon Sagastabeitia Buruaga (Ingeniaritza Elektronikoa)
M^a José San José Álvarez (Ingeniaritza Kimikoa)
Mikel Lezaun Iturralde (Matematika)
Matilde Rodríguez Bengoechea (Kimika)

Ikasleak: Ez dira izendatu

Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea

Irakasleak: Roberto Aguado Zarraga
Manuel Soto López
Arturo Elosegi Irurtia (Biologia, Ingurumen Zientziak)
Itziar Alkorta Calvo (Biokimika)
Aitor Bergara Jauregi (Fisika)
Alejandro Cearreta Bilbao (Geologia)
Ibone Lizarraga Mallo (Ingeniaritza Elektronikoa)
M^a José San José Álvarez (Ingeniaritza Kimikoa)
Rosario Clement Fernández (Matematika)
Isabel Moreno Benitez (Kimika)

Ikasleak: Ez dira izendatu



Web Orrialdeko Batzordea

Irakasleak:	José Luis Pizarro Sanz Juan Mari Collantes (Ingeniaritza Elektronikoa) Asier Aranzabal (Ingeniaritza Kimikoa) Jon Saénz Aguirre (Fisika) Carlos Gorria Corres (Matematika) Luis Angel Fernández Cuadrado (Kimika) Germán Bordel (Ingeniaritza Elektronikoa)
AZPko langileak:	Jorge Díaz Benan Cristobalena Sola

Ebaluazio Berezirako Epaimahaia

Presidentea:	Osane Oruetxebarria Fdez. de la Peña Jesús Pozo Martínez (Biologia) José M ^a Arandes Esteban (Ingeniaritza Kimikoa) Raúl San Martín Faces (Kimika) Ana Pascual Cuevas (Geologia) Miguel Angel Pérez Jubindo (Fisika) Jesús de la Cal Aguado (Matematika)
--------------	---

Berdintasun Batzordea

Presidentea:	María Jesús Irabien Gulias Carmen Manzano Basabe José Antonio González Marcos Marta Macho Stadler Ainhoa Liendo Arantza Urkaregi Etxepare Aintzane Goñi Zunzarren José María Martín Senovilla
--------------	--

Ikasleen Kontseilua

Presidentea:	Arkaitz Davila Barcina
Diruzaina:	Mikel Agirre Rodrigo
Idazkaria:	Maddi Otamendi Urbistondo



Biologia Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Enrique Navarro Adorno
Idazkaria:	Ana Isabel Aguirre Escobal
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Ainara Achurra (3. zikloko ikaslea) Jesús Pozo Martínez Antonio Gómez Muñoz Ana Zubiaga Elordieta Inés Arana Basabe Ionan Marigómez Allende
Biologiako koordinatzailea:	Ana Zubiaga Elordieta / Ana Isabel Aguirre

Biokimika eta Biologia Molekularra Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Alicia Alonso Izquierdo
Idazkaria:	Mercedes Martínez Bilbao
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Elixabet López López (3. zikloko ikaslea) Juan Luis Serra Ferrer Antonio Gómez Muñoz Ana Isabel Aguirre Escobal Fernando Hernando Echevarría
Biokimikako koordinatzailea:	Arturo Muga Villate / Mercedes Martínez Bilbao

Bioteknologia Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Juan Luis Serra Ferrer
Idazkaria:	Fernando Hernando Echevarría
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Eneko Largo (3. zikloko ikaslea) Begoña González Moro María Jesús Llama Fontal Mercedes Martínez Bilbao María José San José Álvarez Federico Mijangos Antón Ionan Marigómez Allende



Fisika Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Juan Maria Aguirregabiria Aguirre
Idazkaria:	Santiago González de la Torre (3. zikloko ikaslea)
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Ibón Sagastabeitia Buruaga José Manuel Barandiarán García Iñigo Etxebarria Alzaga Jesús Echevarría Ecenarro Iñigo Egusquiza Egusquiza Luis Vega González
Fisikako koordinatzailea:	Josu Igartua Aldamiz

Geologia Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Alejandro Cearreta Bilbao
Idazkaria:	Tomás Morales Juberías
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Lidia Rodríguez Méndez (3. zikloko ikaslea) Aitor Payros Aguirre Estibaliz Apellániz Ingunza José María Tubía Martínez María Jesús Irabien Gulias Miren Mendía Aranguren
Geologiako koordinatzaile ohia:	Javier Aróstegui García

Ingeniaritza Elektronikoa Titulazioko Batzordea

Presidentea:	José Manuel Tarela Pereiro
Idazkaria:	Ibon Sagastabeitia Buruaga
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Pablo Echevarría Fernández (3. zikloko ikaslea) Joaquín Portilla Rubín Germán Bordel García Josu Jugo García María Inés Torres Barañano Iñigo Etxebarria Alzaga
Ingeniaritza Elektronikoko koordinatzailea:	Ibon Sagastabeitia Buruaga



Ingeniaritza Kimikoa Titulazioko Batzordea

Presidentea:	José María Arandes Esteban
Idazkaria:	José Ignacio Gutiérrez Ortiz
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Jorge Vicente Peñalosa. Javier Bilbao Elorriaga María Pilar González Marcos Juan Ramón González Velasco Fernando Varona Hierro Federico Mijangos Antón
Ingeniaritza Kimikoko koordinatzailea:	Andrés Tomás Aguayo Urquijo

Matematika Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Fernando Castañeda Bravo
Idazkaria:	Pedro Alegría Ezquerria
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Miren Zubeldia Plazaola (3. zikloko ikaslea) José Julio Mencía González Josu Sangróniz Gómez Jesús de la Cal Aguado Virginia Muto Foresi
Matematikako koordinatzailea	Pedro Alegría Ezquerria

Kimika Titulazioko Batzordea

Presidentea:	Rosa Alonso Rojas
Idazkaria:	Íñigo Legorburu Faus
Kideak:	María Rosario Pastor Garrido Izendatzeke dagoen lizentziaturako ikaslea Jon Echave Lozano (3. zikloko ikaslea) Juan José Iruin Sanz María Ángeles Garralda Hualde Fernando López Arbeloa Luis Lezama Diago Fernando Cossío Mora María Dolores Badía Urrestarazu
Kimikako koordinatzailea:	Nestor Etxebarria Loizate

Autobabeserako Batzordea

Presidentea:	Esther Domínguez Pérez Alicia Muela Blázquez M ^a Luisa Fernández de Gubieda Ruiz Maike Adame Ortiz
--------------	--



Lehen Esku-hartzeko Taldea

SAILA

Landare Biologia eta Ekologia
 Biokimika eta Biologia Molekularra
 Atezaintza
 Atezaintza
 Atezaintza
 Atezaintza
 Atezaintza
 Atezaintza
 Elektrizitatea eta Elektronika
 Estratigrafia eta Paleontologia
 Euskal Filologia
 Fisika Aplikatua
 Materia Kondentsatuaren Fisika
 Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia
 Genetika, Antropologia eta Animalien Fisiologia
 Geodinamika
 Ingeniaritza Kimikoa
 Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia
 Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza
 Operatiboa
 Matematika
 Mineralogia eta Petrologia
 Multimedia
 Industria Nabea
 Kimika Analitikoa
 Kimika Fisikoa
 Kimika Ezorganikoa
 Kimika Organikoa
 Idazkaritza

SGIker
 Ikastegiko teknikaria
 Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia

LANGILEAK

Isabel Salcedo Larralde
 Itziar Alkorta Calvo
 Jose Ramón Alonso
 Pedro Ugarte Jayo
 Inmaculada López Loredo
 Antonia Vaz Morón
 Roberto Muñiz Petralanda
 Mercedes López Rodero
 Javier Echanove Arias
 Ana Pascual Cuevas
 Igone Zabala Unzalu
 Jon Saenz Aguirre
 Raul Perez Saez
 Ruth Lazcoz Saez
 Ana Aguirre Escobal
 Pablo Puelles Olarte
 Rubén López Fonseca
 Marian Unanue Vivanco
 Silvia Marcaida Bengoechea

Josu Sangroniz Gomez
 Mari Cruz Zuluaga Ibarra
 Celia Gomez Perez
 Urtzi Izaguirre Aramagoya
 L. Angel Berrueta Simal
 Teresa Arbeloa Lopez
 Luis Lezama Diago
 Francisco Javier Martinez Layana
 Rosario Pastor Garrido / Begoña Juaristi
 Iñaki Orue Goicuria
 Julio Alvarez Valdivielso
 Carlos Prieto Sierra



3.2. 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Planaren jarraipena

Segidan, 2005-2010 Plan Estrategikoan hobetsitako hobekuntza ildoak eta 2009/2010 ikasturtean gauzatutako ekintzak zehaztuko dira, ardatz estrategikoetan sailkatuta. Eskuineko barrek (Gantten diagrama) ekintzak garatzeko epeak eta ekintza horien betetze mailak adierazten dituzte.

2005-2010 Plan Estrategikoa egitean aztertu zen ardatz bakoitzaren garrantzi erlatiboa eta horiek 1. taulako portzentaje balioen arabera lehenetsi ziren. Era berean, taulak aurreko ikasturtean ardatz bakoitzaren barruan garatutako ekintza guztiek izan duten betetze maila adierazten du. Bi portzentajeak elkartuta, ardatz bakoitzak 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Planaren betetze maila orokorrari egiten dion ekarpena adierazten du, kasu honetan, % 77,2ko balioa duena (iaztik % 3,7 hazitakoa).

1. taula.- 2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Planaren betetze maila

ARDATZ ESTRATEGIKOAK	Garrantzia	Betetzea	Ekarpena
Giza baliabideak	% 15	% 78	% 11,7
Azpiegiturak eta lan ingurunea	% 13	% 83	% 10,8
Barne kudeaketa eta antolakuntza	% 12	% 67	% 8,0
Hezkuntzako bikaintasuna	% 20	% 85	% 17,0
Ikasleentzako eta ikasketak amaitu dituztenentzako arreta	% 17	% 67	% 11,4
Ikerketako bikaintasuna	% 11	% 81	% 8,9
Gizartearekiko elkarrekintza, komunikazioa eta irudia	% 12	% 78	% 9,4
BETETZE MAILA OROKORRA	% 100		% 77,2



UPV EHU		SEGUIMIENTO DEL PLAN DE GESTION 2009/10 DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA DE LA UPV/EHU		ZTF-FCT Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología	
Id	E.I.E., OBJETIVO, Línea, Acción	%	2009 ago-sep	2010 ene-feb-mar-abr	2010 jun-jul-ago-sep-oct
1	1. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK	78%			
2	1.A.-1.H. GIZA GAITASUNAK HOBETzea	78%			
3	(1) Etengabeko prestakuntzako jarduerak sustatzea, irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak trebatzeko	69%			
4	IKTen esparriuan irakasleen prestakuntza laboratzea	59%			
5	AZPko langileen prestakuntza sustatzea	75%			
6	(3) Lanbide karreraren sustapena eta garapena babestea	100%			
7	Irakasle eta ikertzaileek UPV/EHUko Eleazintasun Programan parte har dezaten bultzatzea	100%			
8	1.A.-2.H. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ETA AZPko LANGILEEN PLANTILLAK BENETAKO BEHARRETARA EGOKITzea	75%			
9	(2) Giza baliabideen inguruko prospekzio azterketak egitea beharrak aurreikusteko eta doikuntzak planifikatzeko	75%			
10	Dekanotzaren menpeko zerbitzuen antolakuntza hobetzea	75%			
11	(3) Fakultateko euskalduntze prozesua babestea	75%			
12	ZTF-FCTren esparri guztietan euskararen presentzia ziurtatzea	75%			
13	Dekanotzako barne komunikazioa eta agiri ofizialak bi hizkuntzetan egiten direla zainitzea	75%			
14	1.A.-3.H. PERTSONEN GOGOBETETZE MAILA HANDITzea	83%			
15	(3) Banako aitormen ekintzak sustatzea	76%			
16	Langileei ikastegiaren funtzionamenduan duten partaidetza aintzatzea	75%			
17	Langileei Dekanotzaren menpeko zerbitzuen eta horiekin gogobetetze mailaren inguruko inkestak egitea eta aztertzea	80%			
18	(1) Pertsona arteko harremanak ezartzeko ekintzak sustatzea	100%			
19	Fakultateko langileentzat ekitaldi kolektiboak antolatzea	100%			
20	2. ARDATZA. AZPIEGITURAK ETA LAN INGURUNEA	83%			
21	2.A.-1.H. LAN INGURUNEA HOBETzea	84%			
22	(1) Bizigarritasuna hobetzea	83%			
23	Ikastegiak epe ertainera izan ditzakeen beharren memoria diseinatzea	100%			
24	Fakultatean seinaleak jartzen amalzea	70%			
25	(1) Segurtasuna eta higieena hobetzea	85%			
26	Prebentzio arloko prestakuntza sustatzea eta laboratzea	100%			
27	Segurtasunarekin erlazionalutako protokolo guztiak aaldian-aldian eguneratzea eta zabalitzea	75%			

Proyecto: SPG0910
Fecha: jue 16/12/10

Tarea Hito Resumen Resumen del proyecto
 Tareas externas Hito externo Fecha límite



SEGUIMIENTO DEL PLAN DE GESTION 2009/10 DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA DE LA UPV/EHU		ZTF-FCT Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología																	
Id	E.I.E., OBJETIVO, Línea, Acción	%	ago	sep	oct	nov	dic	ene	feb	mar	abr	ma	jun	jul	ago	sep	oct	nov	dic
28	Laborategielaiko ingurumen kalitatea zaintzea	80%																	
29	ZTF-FCTko hondakinak ezabatzeke lanak kudeatzea	90%																	
30	(2) Hondakinak eta iraunkortasuna kudeatzea	81%																	
31	Hondakinak eta disolbatzaileen biltegiaz erabiltzeko protokoloa ezartzea	100%																	
32	P4.4.C1 Hondakinak kudeaketa izeneko protokoloa eguneratzea	50%																	
33	2.A.-2.H. IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURAK OPTIMIZATZEA	85%																	
34	(2) Irakaskuntza azpiegitura erabili eta handitzeari loturiko plangintza hobetzea	80%																	
35	Irakasleek gradu berrien inguruan egindako proposamenak antiztat hartuta, lokalen gaineko beharrak planifikatzea	100%																	
36	Irakaskuntza baliabideen kudeaketa tresnak eguneratzea	50%																	
37	(2) Irakaskuntza jardueretarako baliabideak gehitzea	87%																	
38	Irakaskuntzako azpiegituren mantentzea eta eguneratzea	100%																	
39	Aurrekontua gehituko duen funtsak eskuratzeko iturriak zabalzea (erretoretzat, KPS programa, beste erakunde batzuk, etab.)	95%																	
40	Irakasleen jardueretan teknologia berrien (IKT) erabilera sustatzea	60%																	
41	2.A.-3.H. HIGIEZINEN ETA EKIPAMENDUAREN KUDEAKETA OPTIMIZATZEA	75%																	
42	(1) Higiezin kudeaketa eta mantentze lanak planifikatzea	75%																	
43	ZTF-FCTko eraikinen eta Industria Nabearren mantentze lanak kudeatzea	75%																	
44	3. ARDATZA. BARNE KUDEAKETA ETA ANTOLAKUNTZA	67%																	
45	3.A.-1.H. EFOM EREDUA FINKATZEA	68%																	
46	(1) Prozesuen araberako kudeaketa eta adierazle bidezko ebaluazioan aurrera egitea	63%																	
47	Urteko autobaluzioa egitea, eta burutu beharreko hobekuntza ekintzak eta errendimendu hobetzaileak lehenetsuz definitzea	25%																	
48	Prozesuen araberako kudeaketa prozesu ekipoa zabaldua bultzatzea	45%																	
49	Urteko Kudeaketa Txostenaren formatua beritzea, prozesu/azpi-prozesu bakoitzeko adierazle nagusien urte arteko jarraipena barmatzea	100%																	
50	UPV/EHUren Kudeaketa Berritzaleko Zentroen Sarean (KBZS) parte hartzea	100%																	
51	Tartean diren taldeen artean Fakultateko prozesuak eta prozedurak gehiago zabalzea	45%																	
52	Datosen 5 urteitarako beste plan estrategiko bat diseinatzea	15%																	
53	(2) Jarduketa prozedurak, erantzukizunak eta prestatuntza hobetzea	77%																	

Proyecto: SPG0910
Fecha: jue 16/12/10

Tarea: Hito: Terminado:
 División: Resumen:
 Progreso: Tareas externas:
 Hilo externo: Fecha límite:



UPV EHU		SEGUIIMIENTO DEL PLAN DE GESTION 2009/10 DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA DE LA UPV/EHU		ZTF-FCT Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología	
Id	E.I.E. OBJETIVO, Línea, Acción	%	2009	2010	2011
			ago sep oct nov dic ene feb mar abr ma jun jul ago sep oct nov	ago sep oct nov dic ene feb mar abr ma jun jul ago sep oct nov	ago sep oct nov dic ene feb mar abr ma jun jul ago sep oct nov
54	Taldeak 55-en arloko prestakuntza ematea eta irakaskuntza laborategietan ezartzea (*)	100%			
55	Fakultateko kide guzietei EFOM ereduiko prestakuntza eskaintzea	50%			
56	Politikaren eta estrategiaren komunikazio plana ezartzea	70%			
57	AUDIT programaren deialdian parte hartzea, KBKS ziurtatzeko	100%			
58	3.A.-2.H. INFORMAZIOA KUDEATZEA	66%			
59	(3) Barne komunikaziorako bideak sustatzea	66%			
60	Barne komunikaziorako bideak ezagutaraztea	70%			
61	Barne komunikazioko kanalen erabilera optimizatzea, gauzatutako FOAC jarduerako hobekuntza ekintzak ezarrita	70%			
62	ZTFNews.org bloga barne komunikaziorako tresna gisa sustatzea	50%			
63	Web orriko Maiz egiten diren galderak (FAQ) ataleko edukian sakontzea	25%			
64	UPV/EHUren gizarte intranet berriaren erabilera zabaltzea	75%			
65	Fakultatearen interes talde ezberdinen gogobetetze maila neurtzeko sistema diseinatzea: graduoko eta graduondoko ikasleak, enpresak, etab.	25%			
66	Interes talde ezberdinen artean (ikasleak, irakasle eta ikeritzaileak, AZPko langileak, gizarte, etab.) gradu berri buruz dagoen informazioa gehiago zabaltzea	95%			
67	ekarguak sistema ezartzea kudeaketa karguen posta elektronikoko helbide instituzionalerako	60%			
68	4. ARDATZA. HEZKUNTZAKO BIKAINTRASUNA	85%			
69	4.A.-1.H. IRAKASKUNTZA JARDUERA HOBETZEA	86%			
70	(1) EUEn sartzeko prozesuan parte hartzea	86%			
71	Antzeko zentron errendimendu akademikoari buruzko datuak bilzea	25%			
72	Mailako koordinatzailearen irudia sustatzea	100%			
73	Titulazio ezberdinetarako Graduiko ikasketen Batzordeak sortzea	100%			
74	Irakaskuntza taldeen sortzea eta beraien ekintzak laguntzea eta bultzatzea	70%			
75	2010/11 ikasturtean gradu berrien ezarpena planifikatzea	100%			
76	TUTORE bosteneren ezarpena bultzatzea (Tutoretza Ekintza Planeko bostena)	75%			
77	4.A.-2.H. IKASLEAK ERAKARTZEA ETA LEIAL BIHURTZEA	84%			
78	(2) Ikasle berriak erakartzeko programa hobetzea	84%			
79	ZTF-FCTrako estrategikoak diren bigarren hezkuntzako ikasleekin harremanetan jarritzea	90%			

Proyecto: SPG0910
Fecha: jue 16/12/10


Tareas externas
Hito externo
Fecha límite

Terminado



UPV EHU		SEGUIIMIENTO DEL PLAN DE GESTION 2009/10 DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA DE LA UPV/EHU		ZTF-FCT Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología	
Id	E.I.E. OBJETIVO, Línea, Acción	%	2009	2010	2010
			ago sep oct nov dic ene feb mar abr ma	jun jul ago sep oct nov	dic ene feb mar abr ma jun jul ago sep oct nov
80	Irakaste eta ikertzaileek eta ikasleek Fakultatearen atalek zabalizteko jardunaldiaren parte har dezaten sustatzea	90%			
81	Jarduera zientifiko eta dibulgatiboetan parte hartzea (Zientziaren Karpa, etab.)	90%			
82	Ikastegiak ikasleak erakartzeko egiten dituen ekintza ezberdinak koordinatzea eta babestea	90%			
83	Masterrei buruzko informazioa intereseko taldeen artean zabalitzea (ikasleak, titulatuak, gizartea)	25%			
84	5. ARDATZA. IKASLE ETA TITULATUENTZAKO ARRETA	66%			
85	5.A.-1.H. ZERBITZUETARAKO SARBIDEA HOBETZEA	90%			
86	(2) ikasleentzako informazioa hobetzea	90%			
87	Ikasleekiko komunikazioa finkatzea (ikaslearen kontseilua, mailako ordezkariak, elkarteak...)	80%			
88	Mugikotasun urriko ikaslearen premia bereziki erantzungo zaila bermatzea	100%			
89	5.A.-2.H. IKASLEEN PRESTAKUNTZA AUKERAK HANDITZEA	66%			
90	(3) Truke programen kudeaketa hobetzea	92%			
91	Truke programei buruzko prestakuntza saloak antolatzea	100%			
92	Beste truke akordio batzuk sustatzea, bereziki eskaintza murriztuagoa duten titulazioetan	90%			
93	Unibertsitateko truke programa nazional eta internazional ezberdinen bidez ikasleen mugikortasuna sustatzea	90%			
94	(3) Prestakuntza osagarria indartzea	38%			
95	Bigarren zikloko ikasleei eta titulatuak zuzendutako prestakuntza osagarriko ikastaroen kopurua handitzea	50%			
96	Ikaslearen prestakuntza integrala osatzen duten gizarte ekintzak sustatzea, baita Fakultate barruan borondatezko lanak egiteko ekintzak ere	25%			
97	5.A.-3.H. TITULATUEKIKO HARREMANA HOBETZEA	46%			
98	(1) Titulatuaren laneratzea sustatzea	46%			
99	Enpresetako praktikak egiten dituzten ikaslearen kopurua handitzea	0%			
100	Enpleguaren berri emateko eta enpresak aurkezteko jardunaldiak antolatzea	100%			
101	SAECYT berregituratzea, ikasleei, irakasleei eta enpresari eskaintzen zaien zerbitzua hobetze aldera	75%			
102	Titulatuak enpresan egindako praktikak buruz dute gogobetetze maila ezagutzeko (titulua jasotzerakoan inkestak eginda) ebaluazio sistema bat sustatzea	75%			
103	ZTFegresados banaketa zerrenda sortzea informazio interesgarria zabalitzeko (informazio ikastaroak, lan eskaintzak, etab.)	100%			
104	6. ARDATZA. IKERKETAKO BIKAIN TASUNA	81%			

Proyecto: SPG0910
Fecha: jue 16/12/10






E.I.E. OBJETIVO, Línea, Acción SEGUIMIENTO DEL PLAN DE GESTION 2009/10 DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGIA DE LA UPV/EHU		ZTF-FCT Zientzia eta Teknologia Fakultatea Facultad de Ciencia y Tecnología	
Id	E.I.E. OBJETIVO, Línea, Acción	%	.2009 tri 4 2009 tri 1 2010 tri 2 2010 tri 3 2010 tri 4 2010 ago sep oct nov dic ene feb mar abr a jun jul ago sep oct nov
105	6.A.-1.H. BALIABIDEAK OPTIMIZATzea ETA MERKATUKO AUKERAK APROBETxATzea	70%	
106	(2) Ikerketaren aldeko egiturak sortzea	70%	
107	Industria Nabearen erabilera sustatzea	90%	
108	Zentro zientifiko eta teknologikoekin harremanak indartzea	50%	
109	6.A.-2.H. IKERKETA JARDUERA ZABALTzea	100%	
110	(3) Jarduera zientifikoak zabaltzeko mekanismoak ezartzea	100%	
111	Fakultateko kideek ekitaldi zientifikoak antola ditzaten laboratzea	100%	
112	ZTF-FCTko Ikerketa Jardunaldien II. edizioa antolatzea: Una Ventana a la Sociedad	100%	
113	7. ARDATZA. GIZARTEAREKIKO ELKARREKINTZA, KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA	78%	
114	7.A.-1.H. ZTF-FCTk PRESTAKUNTZA ZENTRO GISA DUEN AHALMEN ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOAZ ZABALTzea	65%	
115	(2) Fakultateko kideen arteko komunikazio kanalak hobetzea, baita honek kanpoaldearekiko dituenak ere	65%	
116	ZTF-FCTren jarduerak kanpoko interes taldeei (titulatuak, enpresak, gizaritaki...) modu eraginkorrean ezagutarazteko kanal gisa finkatzea ZTFNews.org bloga	50%	
117	Fakultatea unibertsitateko goi ikasketen zentro aurreratu gisa sustatzea	80%	
118	7.A.-2.H. ENPRESA SEKTOREAREKIN ITUNAK EZARTzea	80%	
119	(1) ZTF-FCTk teknologia sortu eta transferitzeko zentro gisa duen potentziala zabaltzea	80%	
120	ZTF-FCTn garatzen den ikerketa enpresen sektorean eta zentro teknologikoetan zabaltzea	75%	
121	ZTF-FCTren interes arloekin erlazionatutako jarduerak, garatzen dituzten enpresarekiko harreman instituzionalak ezartzea	85%	
122	7.A.-3.H. ZTF-FCTren IRUDIA SUSTATzea	88%	
123	(2) Nortasun irudiaren erabilera bultzatzea	88%	
124	ZTF-FCTren irudiak gizaréan presentzia handiagoa izatea	75%	
125	Fakultatearen irudia ikastegiko kideen partaidetza duten ekitaldi edo informazio guztietan ager dadin zainitzea	100%	

Tarea Hito Tareas externas Terminado
División Resumen Hilo externo
Progreso Resumen del proyecto Fecha límite

Nahiz eta Plan Estrategikoak zehazten duen ikasturte bakoitzean zehar egin beharreko bidea, Fakultateko Prozesuen Sistemak ahalbidetzen du ardatz bakoitzaren helburu estrategikoak betetzea.

Txosten honetan, ikastegiak ongi funtzionatzea ahalbidetzen duten prozesu eta azpiprozesuak nabarmendu nahi izan dira. Horregatik, ZTF-FCTko Prozesuen Maparen eskemari jarraituz (1. irudia) egin da txosten hau, betiere, txostenaren hasieran aztertu diren ardatz estrategikoak ahaztu gabe.




1. irudia.- ZTF-FCTko Prozesuen Mapa (2010eko martxoko bertsioa).



P1 Plangintzaren prozesua

Plangintzaren prozesuan, Fakultatearen helburuak zehazten dira, eta, halaber, helburu horiek betetzeko baliabiderik egokienak aukeratzen dira, ekintzak garatzeko alde aurretiko pauso gisa. Hiru azpiprozesuok biltzen ditu:

- P1.1. Plangintza estrategikoa
- P1.2. Urteko plangintza
- P1.3. Titulazioen plangintza



P1.1 Plangintza estrategikoa

Kolektibo guztiek UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatearen urteko kudeaketa planak lantzeko eta planon jarraipena egiteko aho batez adostutako jardun ildo nagusiak eta adierazleak zehazten ditu.

Azken 5 urteotan, 2005-2010 Plan Estrategikoaren 7 ardatzetan ezarritako helburuak betetzera bideratu du Dekanotza Taldeak bere lana. Bikaintasuna erdiesteko prozesuaren baitan kudeatu ditu lortutako emaitzak, betiere, etengabeko hobekuntzarkiko konpromisoaren esparruan. Ikuspegi horri esker lortu da, esate baterako, graduako titulazio eta graduondoko titulazio berriak lantzea eta ezartzea, antolakuntza sistema egokitzea (KBB edota GIBak sortzea), bere Kudeaketa Sistemak AUDIT egiaztapena lortzea, Fakultateak ikerketa eta garapen esparruetan duen garrantzia nabarmen areagotzea edota Fakultateak gure inguruneke sare soziokulturalean duen presentzia handitzea.



2010ean, Fakultatearen egungo egoera aztertzeari ekin zaio, Plan Estrategiko berrirako oinarriak ezartze aldera. 2010/2011 ikasturtean zehar ekingo zaio Plan Estrategiko berriari, eta, horri esker, ikastegiaren ildo estrategikoak berrikusi eta aukera berrietara egokitutako helburuak zehaztuko dira.

P1.2 Urteko plangintza

Hurrengo kudeaketa urtealdian landu beharreko ildo estrategikoetan aurrera egiteko ekintza espezifikokoak zehazten ditu, adierazleen garapen positiboari jarraituz. Dekanotza Taldeko kideek dute garatu beharreko ekintzen plangintza zehatzaren ardura.

Halaber, 2009/2010 ikasturtean zehar, ekintza horien jarraipena egiteko bilerak egin dira aldizka, aurrez ezarritako helburuen betetze maila eta betetze maila hori neurtzeko adierazleak egiaztatzeko.

Besteak beste, urteko kudeaketa txostenaren formatua aldatu da. Azken urteotan, urtean zehar gauzatutako ekintzen berri 7 ardatz estrategikoei eta Fakultateko jarduera esparruei jarraituz eman da. Txosten honetan sartutako aldatetari esker, ikastegiko Prozesuen Mapari garrantzi handiagoa eman zaio, eta, modu horretan, informazioa ardatz estrategikoen eta ikastegiko 5 prozesuen inguruan egituratu da. Hala, bistakoagoa da bi multzo horien arteko lotura.

P1.3 Titulazioen plangintza

ZTF-FCTk ikastegian ematen diren titulazioen plangintza egiteko erabiltzen dituen prozedurak deskribatzen ditu. Honako prozedura hauek biltzen ditu:

- P1.3.1 Graduak Ikasketen Batzordea.
- P1.3.2 Sartzeko eta irteteko profilak, eta onarpen eta matrikulazio irizpideak zehaztea.
- P1.3.3 Irakaskuntza gida egitea.
- P1.3.4 Titulazioei buruzko informazioa biltzea eta aztertzea.
- P1.3.5 Titulazioen urteko txostena egitea.
- P1.3.6 Hobekuntza jarduerak definitzea eta koordinatzea.
- P1.3.7 Titulua desagertzea.

Azpiprozesu honen esparruan, Fakultateak proposatutako graduak egiaztatzeko eta onartzeko prozesua bete da¹. Prozesu horretan, honako aldi hauek bereizi dira:

- Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalaren (ANECA) hasierako txostenen aurkako alegazioak idaztea, eta graduen memoriak txosten horien arabera aldatzea. Honako egun hauetan bidali ziren txostenak: 2009-10-15 (M, G, B, BT eta BKBM graduak), 2010-01-14 (F), 2010-02-13 (K) eta 2010-03-01 (IE, IK). Horrez gain, 2009-11-12an, Ministerioak Donostiako Kimika Fakultateak eta gure fakultateak Kimikako Graduari buruz aurkeztutako txostenak bateratzeko eskatu zuen.

¹ 2008/2009 ikasturteko jarduerak aldi horri dagokion kudeaketa txostenean kontsulta daitezke.



- ANECAk egindako aldeko azken txostenak jasotzea, graduei buruzko txostenen aurkako alegazioak eta aldaketak berrikusi ondoren. Honako egun hauetan bidali ziren txosten horiek: 2009-12-23 (B, BT, BKBM), 2010-02-02 (M, G), 2010-03-29 (F, K) eta 2010-04-30 (IK, IE).
- Unibertsitateen Kontseiluak graduak egiaztatzea eta ontzat ematea, honako egun hauetan: 2010-02-02 (B, BT, BKBM), 2010-03-15 (G, M) eta 2010-05-31 (F, K, IE, IK).
- UNIQUALen hasierako txostenak jasotzea. 2010-03-26an jaso genituen IE ez beste gradu guztiei buruzko txostenak, 2010-05-04an jaso baikenuen. IKren txostena ez beste guztiak aldekoak izan ziren. Graduen txostenetan zenbait arlotako informazioa osatu behar zela adierazi zuten eta beste zenbait gomendio ere eman zituzten.
- Ikasketa Planen Batzordeen erantzunak bidali ondoren, UNIQUALen azken txostenak jaso genituen. 2010-05-27an jaso genituen IK eta IE ez beste gradu guztiei buruzko txostenak, 2010-06-08an eta 2010-06-09an jaso baikenituen, hurrenez hurren. Txostenak aldekoak izan ziren, IKrena salbu, aurkako azken txostena jaso baitzuen. Aurkako txostena jaso zuten, halaber, UPV/EHUko beste ikastegi batzuek IKri buruz (Ingeniaritza Kimiko Industrial) aurkeztutako gradu proposamenek.
- 2010-06-08an, UPV/EHUK berraztertze errekurtsoa jarri zuen UNIQUALek IK eta IKI graduen aurka emandako erabakiaren kontra. Azkenik, Fakultateak proposatutako bederatzi graduak onartu zituen Gizarte Kontseiluak, eta 2010eko uztailaren 12ko EHAAan argitaratu zen graduako ikasketak egiteko baimena.

Bestalde, graduen ezarpen planak ere egokitu ditugu azpiprozesu honen esparruan; izan ere, hasiera batean, pixkanakakoak ez ziren ezartze eta desagertze egutegiak proposatu zituen Fakultateak bederatzi graduetak bostetarako: Biologia, Biokimika eta Biologia Molekularra, Fisika, Geologia eta Ingeniaritza Elektronikoa.

Akademi Gestioko Zerbitzuak (AGZ) desagertze egutegiak aldatu zituen, eta gaur egungo lizentziatura eta ingeniaritza guztiak pixkanaka desagertuko zirela adierazi zen; horregatik, desagertzei buruz proposatutako egutegiak berrikusi egin behar izan ziren. Geologiako Graduan, pixkanaka ezartzea erabaki zen (ikasturte bat urteko). Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko graduei dagokionez, ikasketa plan zaharren eta berrien arteko harremanari esker, blokekako ezartzeari eutsi zaio. Biologiako Graduan, lehenengo maila bakarrik ezarri da 2010/2011 ikasturtean; bigarrena eta hirugarrena 2011/2012n ezarriko dira eta laugarrena, berriz, 2012/2013an. Nolanahi ere, ontzat jo zen 2010/2011 ikasturtean Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduaren lehenengo hiru mailak blokeka ezartzeari eustea, bai irakaskuntza baliabideak aintzat hartuz bai Biologiako eta Kimikako lizentziaturetako ikasleak aipatu gradura errazago igarotzeko.

Ikasketa planei buruzko zuzenketen kudeaketari dagokionez, Titulazio Berrien dekanordeak (TBDO) Fakultateko Batzarraren aurrean barne prozedura aurkeztu zuen 2010-06-30ean, ikasketa planen inguruko aldaketen eskaerak prozesatzeko. Hona barne prozedura:



1. Irakasle, sail edo GIB interesdunek TBDOri bidaliko diote aldaketa egiteko eskaera.
2. TBDOk programa prestatu zuen titulazio batzordeko presidenteari bidaliko dio eskaera, aldaketa hori egokia den edo ez erabaki dezan.
3. Eskaera eta presidentearen erabakia irakasgai bera ematen duten gradu guztietako GIBetara bidaliko dira.
4. GIB guztiok ados jarri eta eskaera ontzat eman ondoren, TBDOk Zuzendaritza Taldeari (ZT) aurkeztuko dio eskaera. Eskaerak ANECA txostena aldatzea baldin badakar, hurrengo Fakultateko Batzarrean aurkeztuko da, onar dezaten. Soilik justifikazio memoria aldatzea baldin badakar, Zuzendaritza Taldeak erabakiko du ea proposatutako aldaketa "txikia" den eta besterik gabe onartzekoa den, edo, aitzitik, "oinarrizkoa" den eta Fakultateko Batzarrean onartu beharrekoa den.

Prozedurak irakasgaietan edo ikasketa planetan egindako oinarrizko edozein aldaketa alde guztiek behar bezala aztertu dutela ziurtatzea du helburu. Gainera, aldaketa guztiak Fakultateko Batzarrean aktetan dokumentatuta geldituko dira. Horrek guztiak garrantzia du, batetik, irakasgaien kalitatea ziurtatzeko, eta, bestetik, etorkizunean graduak akreditatzeko.

ANECA txostenak aldatuz gero, ikastegiko idazkari akademikoak Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzara (AAEO) bidaliko du eskaera, eta baita arrazoitutako justifikazio bat eta eskaera onartu dela dioen Ikastegi Batzarrean akta ere. AADBk eskaera aztertuko du, eta Errektoretzak, hala badagokio, Unibertsitateen Kontseilura (UK) bidaliko du, ANECAk ebalua dezan. ANECAk azalpen eta justifikazio gehigarriak eskatu ahal izango dizkio Unibertsitateari eskaeraren inguruko erabakia hartu aurretik, eta, azkenik, aldeko edo aurkako erabakia hartuko du.

2010-06-30eko eta 2010-07-14ko Fakultateko Batzarretan, Biologiako, Matematikako eta Fisikako graduei buruzko ANECA txostenetan adierazitako aldaketak onartu dituzte, baita ANECA txostenetan ez datozen irakasgai programen inguruko zenbait aldaketa ere. Azken hauei dagokienez, aldatutako programak titulazioen irakaskuntza gidetan sartuko dira.

Ikasketa plan guztiek Gradu Amaierako Lana (GAL) egitea aurreikusten dute. Lanon ezaugarrietako batzuk kasuan kasuko planetan zehaztuta daude, baina, hala ere, beharrezkoa da Fakultateko araudia eratzea lanok kudeatzeko hainbat alderdi finkatzeko. TBDOk Fakultateko araudiaren zirriborroa aurkeztu zion Zuzendaritza Taldeari gradu amaierako lanei buruz. Zirriborro hori bera alde aurretik aurkeztua eta eztabaidatua zuten Fakultateko sail guztietako zuzendariekin eta titulazioetako koordinatzaileekin egindako hainbat bileratan.

2010eko urrian zehar, Gradu Ikasketen Batzordeek (GIB) araudiko zenbait alderdi definitu zituzten, zeinek bere gradurako. GALen eskaintzaren erantzukizuna Fakultateko sailen artean banatzeari eta epaimahaiak osatzeari buruzko alderdiak landu zituzten batez ere.

Azkenik, titulazioetako eta GALEko koordinatzaileek eta TBDOk egindako bilera batean, UPV/EHUK GALEi buruz araututakoaren zirriborro berri samar bat aztertu zuten, eta zenbait aldaketa egitea proposatu zuten. Proposamena 2010-11-04an bidali zuten Errektoretzara.



Hemendik gutxira, Fakultateak GALEi buruz prestatu duen araudia aurkeztuko da, Ikastegiko Batzarrak onar dezan.

Aurtengo ikasturtean, bi aldaketa eta egokitze prozesu masibo izan dira: 1) Biologiako eta Kimikako lizentziatuetako ikasleak Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradu berrira aldatzea (lehenengo hiru mailak ezarri ditu); eta, 2) Fisikako lizentziaturako maila guztietako ikasleak Fisikako Gradura egokitzea (2010/2011n ezarriko da osotara).

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduan, GIBek (AABBK eskuordetuta) ebaluatu zituen aldaketa eskaerak eta espediente baliozkotzeak, irailean eta urrian, eta azken emaitzek AABBren onespena izan zuten.

Fisikako Graduan, Zuzendaritza Taldeak Fisikako GIBen ardurapean utzi zuen 80tik gorako ikasle interesdunen egokitzea eskuz egitea. Egokitzapenak egiteko Fisikako GIBak prestatu zuen protokoloa ontzat eman zuen, gero, AABBK.


Segidan, aurreko ataletan sartzen ez diren zenbait kudeaketa zerrendatuko ditugu:

1. Lan esperientzia edo esperientzia profesionala duten 40 urtetik gorako ikasleen sarbidea. AAEOk, 1892/2008 EDri jarraituz, lan esperientzia edo esperientzia profesionala duten 40 urtetik gorako ikasleak onartuko lituzketen graduen zerrenda eskatu zien ikastegiei, eta baita kasuan kasu zehaztutako baldintzak ere. Ikasketa Planen Batzordeetako presidenteeekin egindako bilera batean gai hori eztabaidatu ondoren (2010-01-14), hiru graduk jo zuten bide honetatik: Geologia, Ingeniaritza Kimikoa eta Kimika. 2010-01-22an bidali zioten erabakia Unibertsitatara Sartzeko zuzendariari.
2. Graduetara sartzeko mugak. AAEOk 2010/2011 ikasturtean zenbait gradutara sartzeko ikasle kopuru mugak zein izango diren zehazteko eskatu zien ikastegiei, eta Ikasketa Planen Batzordeetako presidenteeekin bilera egiteko deialdia jaso zuten (2010-02-04). Unibertsitatara Sartzeko zuzendariarekin eta AAEOrekin zenbait kontu argitu ondoren, honako muga hauek onartu zituzten 2010-02-17ko Fakultateko Batzarrean: Biologia (90), Matematika, Fisika, Kimika eta Ingeniaritza Kimikoa (80), Geologia eta Ingeniaritza Elektronikoa (50), Bioteknologia eta Biokimika eta Biologia Molekularra (40).
3. "Titulu berriak ezartzeko esparru orokorra" dokumentuaren aurkako alegazioak. Dokumentu hori 2009-11-13an (ostirala) bidali zuen Errektoretzak ikastegietara, eta egun baliodun bateko epea ezarri zuen alegazioak bidaltzeko. Dokumentuak zekarren irakaskuntza eskaintza oso urria zen Fakultateko bederatzi graduak emateko. Epea laburra izanik ere, Fakultateak garaiz bidali ahal izan zituen alegazioak.

P2 Gradua

ZTF-FCTko prozesu nagusia da. Ikastegiak sartzeko profila duten ikasleak tituludun bilakatzeko diseinatutako prozedura guztiak biltzen ditu. Honako azpiprozesu hauek biltzen ditu:

- P2.1 Ikasle berriak erakartzea
- P2.2 Ikasleak onartzea
- P2.3 Irakaskuntza garatzea



P2.1 Ikasle berriak erakartzea

Azpiprozesu honetan, ZTF-FCTko prestakuntza eskaintza bigarren hezkuntzako ikasleei ezagutzera emateko jardun ildoak zehaztuko ditugu. Ikasleei unibertsitateko ikasketak errazago aukeratzeko laguntzea da helburua.

Honako ekintza hauek biltzen ditu azpiprozesuak:

- P2.1.1 Zientzia Bizirik
- P2.1.2 Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak
- P2.1.3 Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) aurkezpena
- P2.1.4 Zientzia Olinpiadak
- P2.1.5 Unibertsitate Orientaziorako Jardunaldiak



Ikasleak erakartzeko Zientzia eta Teknologia Fakultatean gauzatzen diren jarduera guztiak aztertzeko eta koordinatzeko, eta baita ekintza berriak proposatzeko ere, Kalitate Katedrari hobekuntza taldea eratzea proposatu zitzaion. Hobekuntza taldea 2009ko urriaren 30ean eratu zen, eta ZTFrantz izena eman zioten. Honako kide hauek osatu zuten hobekuntza taldea:

- José Luis Pizarro, Berrikuntza eta Kalitate Programetako dekanordea eta hobekuntza taldearen sustatzailea.
- Manuel Soto, Euskarako, Ikasleen Arretarako eta Nazioarteko Harremanetarako dekanordea eta hobekuntza taldearen koordinatzailea.
- Miren Agurtzane Ortiz, Kalitate Katedrako aholkularia.
- Ana I. Puente, Biozientzietako irakaslea
- Maria José San José, Ingeniaritza Kimikoko irakaslea
- Juanma Gutiérrez-Zorrilla, Kimikako irakaslea
- Josu Sangróniz, Matematikako irakaslea
- Raúl Pérez, Fisikako irakaslea
- Xabier Murelaga, Geologiako irakaslea

Taldeak honako zeregin hau jaso zuen: "Ikasleak erakartzeko Zientzia eta Teknologia Fakultatean gauzatzen diren jarduera ezberdinen azterketa eta koordinazioa eta Ekintza berrien proposamena". Modu jarraituan egin du lan 2009ko abenduaren 18tik 2010eko ekainaren 17ra, eta guztira 6 bilera egin ditu. Hemendik gutxira aurkeztuko dituzte egindako lanaren ondorioak.

Zientzia Bizirik prozedurak (P2.1.1) Kimikan, Fisikan, Geologian edo Matematikan interesa duten batxilergoko ikasleentzako jarduerak biltzen ditu. Helburua oro har zientziarekiko eta bereziki aipatu diziplinekiko interesa indartzea da. Hala, batetik, ikasleak laborategiko lanean prestatzen lagundu nahi da; horretarako, UPV/EHUko ZTF-FCTko irakaskuntza laborategiak beren eskura jartzen dira, zientzia hobeto ulertzeko bide gisa. Horrez gain, jardunaldien bidez zientziak zer alderdi positibo dituen eta gaur egun zer eragin handia duen azaldu nahi zaie belaunaldi berriei. Bestetik, Zientzia Bizirik programak komunikaziorako bide berria zabaltzen du unibertsitateko irakasleen eta bigarren hezkuntzako artean. Horrek, elkarrizketaren bidez eta ikuspegiak trukatuta, gure eginkizun eta beharrak zeintzuk diren argiago ikustea ahalbidetzen digu eta horrek ziur asko ikasleen prestakuntza hobetzea ekarriko du.

Zientzia Bizirik programako jarduerak 2009/2010 ikasturtean egin ziren, honako egutegi honi jarraituz:

1. Geología en Acción / Geologia Bizirik: 2010eko otsailaren 1etik 12ra
2. Física en Acción / Fisikaz blai: 2010eko urtarrilaren 21etik otsailaren 9ra
3. Química en Acción / Kimika Bizirik: 2010eko urtarrilaren 25etik otsailaren 5era
4. Matematika Tailerra: 2009ko azaroaren 4tik 2010eko apirilaren 28ra



556 ikaslek parte hartu zuten, honela banaturik:

- Geología en Acción / Geología Bizirik: 147
- Física en Acción / Fisikaz Blai: 97
- Química en Acción / Kimika Bizirik: 295
- Matematika Tailerra: 17

Honelako balioespen orokorra egin zuten parte hartu zuten ikasleek (1etik 10erako eskalan):

- Geología en Acción / Geología Bizirik: 7,26
- Física en Acción / Fisikaz Blai: 6,19
- Química en Acción / Kimika Bizirik: 8,5
- Matematika Tailerra: 7,87

Martxoaren 22an eta 25ean, Fakultateko 97 irakasle eta ikertzailek parte hartu zuten **Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan** (P2.1.2 prozedura), titulazioetako koordinatzaileek antolatuta. 458 ikasle bertaratu ziren. ZTF-FCTn izandako informazio saioaren batez besteko balioespena 7,2 puntukoa izan zen (10etik) eta bisitarena, berriz, 6,96koa. "Zalantzak argitzen ditu" galderari dagokionez, 6,7ko balioespena jaso zuen, baita "Erabakitzen laguntzen du" galderak ere. Harrera ekitaldiaren ondoren, ikasle berriek inkesta bat bete zuten, eta ondorioztatu da ikasle horien % 56 egonak zirela Unibertsitate Orientaziorako Jardunaldietan edo Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan, eta % 83k esan zuten jardunaldiok eragina izan zutela unibertsitateko ikasketak aukeratzeko orduan.

Joan den ikasturtean, UPV/EHUk **II. Orientazio topaketak: UPV/EHUko graduoko titulu berriak** topaketa antolatu zuen, eta Fakultateak ere parte hartu zuen (P2.1.3 prozedura). Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileentzako topaketa da. Helburu nagusia 2010/2011 ikasturtetik aurrera eskainiko diren graduoko titulu berriei buruzko informazioa ematea da. UPV/EHUko ikastegi bakoitzak bere eskaintzari buruzko azalpenak eman zituen. Hurrenez hurrengo bost asteazkenetan izan zen topaketa, urrian eta azaroan, eta, egunero, mahai inguru bat osatu zuten jakintza arlo bati buruzko graduen eskaintzaren berri emateko. Zuzendaritza Taldeko kideek eta Fakultateko zenbait titulaziotako koordinatzaileek zientzia adarretan parte hartu zuten (Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusak, 2009-10-14; Arabako Campusa, 2009-11-11), baita Ingeniaritza eta Arkitekturako adarretan ere (Gipuzkoako Campusa, 2009-10-28; Bizkaiko Campusa, 2009-11-04; Arabako Campusa, 2009-10-14).

Topaketa dela eta, Fakultateko gradu guztiei buruzko informazioa biltzen zuen zirriborro bat (kasuan kasuko Graduoko Ikasketen Batzordeak prestatua) jarri zen bigarren hezkuntzako ikastetxeen eskura. Martxoan, gradu berriak azaltzen dituen diptikoak bidali ziren batxilergo zientifiko-teknikoan edo osasunekoan matrikulatuta 30 ikasle baino gehiago zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetara, guztira 73. Era berean, ekainean informazio pertsonalizatua igorri zitzaion aurrez izena emandako ikasleei, matrikulazioa egin aurretik.



Zuzendaritza Taldeak eta Fakultateko langileek ikastegia ezagutarazteko politika aktiboa egiten jarraitu dute. Horretarako, ikastetxe estrategikoetan² eta hala eskatu zutenetan izan dira. 2009/2010 ikasturtean informazio horren berri eman zitzaizen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 13 ikastetxetako 451 ikasleri. Urteotan dibulgazio lanetan gero eta irakasle eta ikertzaile gehiagok parte hartu dute eta, ondorioz, ikastetxe gehiagotara egin dira bisitak eta ikasle gehiagori eman zaie informazioa. 2. taulan agertzen da jarduera horrek azken hiru urteotan izan duen bilakaeraren laburpena.

2. taula.- Azken lau ikasturteetan bisitatutako ikastetxeen eta Fakultatean ematen diren titulazioei buruzko informazioa jaso duten ikasle kopuruaren laburpena.

Ikasturtea	Ikastetxeak	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak	Informatutako ikasleak
2006/2007	3	5	55
2007/2008	5	5	100
2008/2009	13	9	342
2009/2010	13	15	451

Zientzia Olinpiaden helburua (P2.1.4 prozedura) batxilergoko ikasleak zientzien garapenean akuilatzea eta inplikatzeko da eta, horrekin batera, gaur egun duen garrantzia nabarmentzea, horren aurrerabidea eta hedapena bultzatuta. Olinpiadak urtarrilean, otsailean eta martxoan izan ziren: Matematika (urtarrilak 15), Biologia (urtarrilak 23 eta martxoak 6), Geologia (otsailak 5), Fisika (martxoak 4) eta Kimika (martxoak 5). Guztira, bigarren hezkuntzako 68 ikastetxek eta 200 bat ikaslek parte hartu zuten. Eskerrak emateko ekitaldia maiatzaren 14an izan zen, eta 150 pertsonak parte hartu zuten: ikasle parte-hartzaileak, prestatzaileak, ikastetxeetako zuzendariak, familiako kideak eta irakasle laguntzaileak.

Dekanoa izan zen ekitaldeko buru, Campuseko errektoreordeak eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikarako zuzendariak lagunduta. Olinpiadetako irabazleei sariak banatu zizkieten, eta diploma bana jaso zuten parte-hartzaile guztiek.

Zuzendaritza Taldeak eta Fakultateko irakasle eta ikertzaileek parte-hartze aktiboa izan dute **Unibertsitate Orientaziorako Azoketan** (P2.1.5 prozedura), UPV/EHUko Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak hiru campusetan antolatutako (Arabian 2010-01-23an, Gipuzkoan 2010-01-30ean eta Bizkaian 2010-02-06an). Ikasleak eta haien familiak joan ohi dira jardunaldi horietara. 1.503 pertsonak parte hartu zuten Arabako Campusean, 2.757k Bizkaian, eta 1.797k Gipuzkoan. Parte-hartzaileek 7,75 puntuko batez besteko balioespena eman zioten jardunaldiari.

² ZTF-FCTrentzat, bigarren hezkuntzako ikastetxe estrategikoak dira honako baldintza hauetakoren bat gutxienez betetzen duten ikastetxeak: i) Fakultateko edozein gradutan urtean 15 aurreinskripzio baino gehiago egitea; ii) Fakultateak kudeatutako programetan parte hartu ohi dutenak: Zientzia Bizirik, Matematika Tailerra, Olinpiadak, etab.



3. taulan, azken urteotako jardunaldietan parte hartu duten Fakultateko langileen kopuruak ageri dira. 4. taulan, 2002/2003 ikasturtetik aurrera UPV/EHUn sartzea sustatzeko jardueretan parte hartu duten pertsonen kopuruak ageri dira (hauetan ikastegiko langileek parte hartu dute).

3. taula.- Zuzendaritza Taldearen, eta irakasle eta ikertzaileen parte-hartzea 2009/2010 ikasturteko Unibertsitate Orientaziorako Azoketan

Ikasturtea	Parte hartu duten irakasle eta ikertzaileak
2006/2007	18
2007/2008	20
2008/2009	18
2009/2010	22

4. taula.- UPV/EHUK ikasleak erakartzeko antolatutako jardueren laburpena. Iturria: Unibertsitatea zenbakitan

Actividad	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009
Sesiones informativas	2.087	2.318	2.037	1.912	1.710	1986	1.840
Campus de Álava	220	420	404	453	232	268	232
Campus de Bizkaia	891	950	785	579	669	780	646
Campus de Gipuzkoa	976	948	848	880	809	938	962
Jornadas de orientación universitaria	2.180	3.090	2.300	3.540	2.679	3167	3.362
Campus de Álava	300	640	487	648	405	585	588
Campus de Bizkaia	1.200	1.600	913	1.727	1.180	1317	1.650
Campus de Gipuzkoa	680	850	900	1.165	1.094	1265	1.124
Jornadas de puertas abiertas	5.700	4.659	6.784	6.512	7.043	6110	6.057
Campus de Álava	985	757	1.060	1.318	1.347	1308	1.503
Campus de Bizkaia	3.059	2.395	4.111	6.573	3.861	3401	2.757
Campus de Gipuzkoa	1.656	1.507	1.613	1.621	1.835	1401	1.797
TOTAL	9.967	10.067	11.121	11.964	11.432	11.263	11.259

Kanpo zein barne jarduerak utzitako emaitza gogo betekoa da; izan ere, unibertsitatean sartzen diren ikasleen ia erdiak (% 45,5ek) aitortu dute jardunaldiek eragina izan dutela unibertsitateko ikasketak aukeratzeko orduan. Horrez gain, 5. taulan ikusten denez, ikasle berrien % 80k baino gehiagok 7,70ko kalifikazioa izan dute batez beste; joan den bi ikasturteetan baino baxuxeagoa, baina 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteen antzekoa.



5. taula.- Ikasle berrien % 80tik gorakoen batez besteko kalifikazioa unibertsitatera sartzean

Ikasturtea	% 80 baino gehiagoren batez besteko kalifikazioa
2006/2007	7,83
2007/2008	7,59
2008/2009	8,06
2009/2010	8,02
2010/2011	7,70

P2.2 Ikasleak onartzea

Ikasleak onartzeko azpiprozesuan, aukeran dauden titulazioetan matrikulatu nahi duten ikasleei zerbitzua emateko ikastegiak kudeatzen dituen prozedurak biltzen dira:

P2.2.2 Matrikulatzea.

P2.2.3 Oinarrizko ikasgaiak eguneratzeko ikastaroak.

P2.2.4 Ikasle berriei harrera egitea.

P2.2.5 Baliozkotzeak.

Aurtengo ikasturtean (2010/2011), guztira 570 ikasle **matrikulatu dira** lehenengoz ZTF-FCTn (P2.2.2 prozedura); alegia, azken lau ikasturteei begira, batez besteko matrikulazioa ia % 50 handitu da (ikus 6. taula). Ikasleen gradukako banaketak agerian uzten du ikastegiak azken urteotan egin dituen proposamenek izan duten harrera ona eta arrakasta; izan ere, ia gradu guztietan lortu da aurreikusita zegoen matrikulazio kopurua.

6. taula.- Lehenengo mailan matrikulatutako ikasle berrien bilakaera

Urtea	BI	EAE	Biol.	Fis.	Kim.	IK	Mat.	Geol.	Biok. eta BM	Biotek.	IE	Guztira
2002	12.565	23.515	242	65	75	48	24	33	-	-	-	487
2003	11.957	22.517	255	70	87	55	33	44	-	-	-	544
2004	11.355	21.211	193	47	100	65	44	59	-	-	-	508
2005	10.506	19.542	198	60	95	34	44	43	-	-	-	474
2006	9.977	18.826	144	59	92	31	40	35	-	-	-	401
2007	9.525	17.937	178	61	77	29	43	18	-	-	-	406
2008	9.054	17.142	169	47	56	32	42	30	-	-	-	376
2009	8.805	16.795	178	38	58	17	68	35	-	-	-	394
2010	8.775	16.668	83	83	78	75	80	43	41	38	49	570

- 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa, Bizkaiari (BI) eta Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) dagokienez. Iturria: Eustat
- Matrikulazio datuak 2010eko azaroaren 22an. Iturria: Kudeaketa Akademikoa.



Gainera, 6. taulak 18 urte betetzen dituzten ikasleen jaiotza urteari dagokion jaiotza tasa adierazten du. Matrikulazioak gora egin du; alegia, batetik, jaiotza tasaren beherakadaren ondorioz azken urteotan matrikulazioetan izan den beheranzko joera eten egin da, eta, bestetik, aurtengo ikasturtean 18 urte betetzen dituzten ikasle gazteen portzentajea igo egin da. Zehazki, aurreko ikasturteetan batez beste % 2,2koa izatetik, graduen lehen urtean % 3,5era igo da portzentajea. Gainera, kontuan hartuz 2010ean 9.335 ikaslek gainditu zituztela unibertsitatean sartzeko probak, ondorioa da balizko unibertsitate ikasleen % 6,2 Fakultatera etorri direla ikastera; aurreko ikasturteetan (% 4,4) baino gehixeago, hain zuzen.

Ikasle berriei harrera egiteko ekitaldia (P2.2.4 prozedura) duela zenbait urtetik hona arretaz zaintzen den jarduera bat da. Izan ere, ikasleek ZTF-FCTrekin duten lehen hartu-eman da, eta funtsezkoa da lehen hartu-eman hori arrakastatsua izatea, gazteak unibertsitateko bizitzan eta ZTF-FCTn integra daitezen. Ekitaldi horretan parte hartu duten ikasleen portzentajea joan den urtekoa baino baxuagoa da (% 82,3tik % 59,3ra jaitsi da), baina kontuan hartu behar da, ikasturtea lehenago hasi zenez eta matrikulatzeko epea luzatu, hainbat ikasle ekitaldi horren ondoren matrikulatu zirela eta, ondorioz, ez zutela ekitaldira joateko gonbidapenik jaso. Nolanahi ere, ikasleek interesgarritzat jotzen dute harrera ekitaldia, eta gonbidatutako ikasleen ia % 100a joan ohi dira. Hala izan da aurten ere.

Ekitaldian parte hartu dutenen gogobetetasun maila ere igo egin da pixka bat: joan den urteko 6,11tik (10etik) batez beste ia 6,30era igo da, ekitaldia bukatzean jasotako inkesten arabera.

P2.3 Irakaskuntza garatzea

Matrikulatutako ikasleei graduko titulua lortzeko zerbitzua ematen dieten prozedurak biltzen ditu:

- P2.3.1 Ikasleen tutorizazioa.
- P2.3.2 Ikasleen orientazioa.
- P2.3.3 Eskolak programatzea eta ematea eta irakaslana ebaluatzea.
- P2.3.4 Graduko irakaskuntza jarduerak kudeatzea.
- P2.3.5 Gradu Amaierako Lana.
- P2.3.6 Truke programetan parte hartzea.
- P2.3.7 Unibertsitatekan kanpoko praktikak kudeatzea.
- P2.3.8 Prestakuntza osagarria.
- P2.3.9 Kultura hedapena.
- P2.3.10 Enpresen Aurkezpenerako Jardunaldiak.
- P2.3.11 Kredituak amortizatzea: zuzendutako lanak, praktikak eta aukera askeko irakasgaiak.
- P2.3.13 Ebaluazio Berezirako Epaimahaia.
- P2.3.14 Ziurtagiriak eta tituluak egitea.
- P2.3.15 San Alberto Magno ekitaldia.



Prozesuen Mapako azpiprozesu zabalenetako bat da. 15 prozedura biltzen ditu, eta horien helburua ZTF-FCTk matrikulatutako ikasleei zerbitzua emateko kudeatzen dituen mekanismoak ezartzea, kontrolatzea eta optimizatzea da. Alderdi asko biltzen ditu, hala nola TEP (Tutoretzako Ekintza Plana) eta orientazioa, eskolak programatzea eta ematea eta irakaslan ebaluatzea, irakaskuntza jarduerak eta baliabideak kudeatzea, truke akademikoak, unibertsitatekanpoko praktikak, etab.

7. taulan bildu ditugu P2.3 azpiprozesuko adierazle nagusiak. Azpimarratu behar da gradu berriak interesgarriak eta erakargarriak izan direla ikasle berrientzat, baina baita lizentziatuetako eta ingeniarietzako lehen urteetako ikasleentzat ere.

Titulu berrietara aldatzea onuragarria izan da ikasturtea errepikatzen ari zirenentzat. Hauen portzentajea behera egiten ari da, aurreko ikasturteetan bezala. Gainera, eraginkortasunaren tasa nabarmen hazi da (% 27,8; alegia, aurreko ikasturteetako batezbestekoa baino altuago), eta ahokatutako enplegu tasak ere gora egin du (% 94,4). Ikasleak, batez beste, 9 hilabete ingururen buruan sartzen dira lan munduan.

P2.3 azpiprozesuko prozeduretako beste adierazleei dagokienez, nabarmentzekoa da mugikortasun programetan (SICUE/SENECA, Erasmus, TASSEP, AL eta Beste norako batzuk) parte hartu duten ikasleen portzentaje altua, ZTF-FCTko ikasleen % 4 inguruk parte hartu baitute. Datozen urteetan ere portzentajeak gora egitea nahi genuke. Izan ere, ikastegiak lan handia egiten du atzerriko unibertsitateekin hitzarmenak sinatzeko; aurten, 176 hitzarmen sinatu ditugu. Bereziki aipagarriak dira honako unibertsitate hauekin lortu ditugun hitzarmenak: Helsinkiko Unibertsitatea (BIO), Eslovenia (MAT, BIO), Bolognako Unibertsitatea (MAT), Paviako Unibertsitatea (MAT), Helsinki Metropolia University of Applied Sciences (KIM), Università degli Studi Roma Tre (FIS).

Bestalde, krisi ekonomikoak eragina izan du enpresekin sinatzen ditugun hitzarmenetan. Batetik, aurretik genituen hitzarmenek behera egin dute: 2007/2008 ikasturtean, 102 hitzarmen genituen, eta joan den ikasturtean 76ra jaitsia zen kopurua. Bestetik, 140 hitzarmen sinatzeetik 2009/2010 ikasturtean 83 sinatzera igaro gara (ikus 12. taula). Aurten ere, kopuruak behera egitea aurreikusten dugu, apal bada ere.



7. taula.- P2.3 Irakaskuntza garatzeko azpiprozesuaren adierazleak. Iturria: ARTUS (2010-12-03), www.lanbide.net

Adierazlea	Unitatea	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010
Matrikulatutako ikasle kop.	Ikasle kop.	3.455	3.105	2.823	2.506	2.268	2.084	1.983
Ikasketen batez besteko iraupena	Urteak	1,33	1,37	1,36	1,36	1,36	1,35	1,34
Uzte tasa (1)	%	20,8	18,4	19,4	21,1	18,9	21,9	25,9
Errendimendu tasa (2)	%	58,6	62,7	64,0	58,9	63,3	62,5	67,1
Graduazio tasa (3)	%	30,6	33,0	33,1	32,6	37,3	39,4	26,2
Arrakasta tasa (4)	%	78,5	80,3	80,6	70,8	83,2	85,2	83,6
Errepikatu duten ikasleen kopurua (5)	Ikasle kop.	17.229	15.935	14.278	12.234	11.285	10.251	9.545
Errepikatu dutenen tasa (6)	%	5,0	5,1	5,1	4,9	5,0	4,9	4,8
Eraginkortasun tasa (7)	%	26,4	25,1	26,7	30,0	26,4	25,8	27,8
Ikasketak amaitu dituztenen kopurua ikasturteko	Ikasketak amaitu dituztenen kop.	530	454	494	420	363	327	295
Tituludunen enplegu tasa (8, 9)	%	-	88,9	76,2	86,1	83,8	86,8	85,5
Ahokatutako enplegu tasa (8, 10)	%	-	88,2	90,6	87,6	90,2	90,7	94,4
Ikasketak amaitu dituztenen jarduera tasa (8, 11)	%	-	99,1	91,2	94,7	92,5	93,6	92,5
Lan merkatuan sartzeko denbora (8, 12)	Hilabeteak	-	8,0	11,0	9,5	8,5	10,4	9,1

- (1) Ez (hasiera urtean gehi bat) ez (hasiera urtean gehi bi) matrikulatu ez ziren ikasle kopurua, zati promozioko ikasle kopurua.
 (2) Ikasketa urtean gainditutako kredituak zati ikasketa urtean matrikulatutako kredituak.
 (3) Ikasketak dagozkien urteetan eta urte bat geroago bukatutako ikasle kopurua zati promozioko ikasle kopurua.
 (4) Ikasketa urtean gainditutako kredituak zati ikasketa urtean aurkeztutako kredituak.
 (5) Ikasturte batean baino gehiagotan irakasgai berean matrikulatutako ikasle kopurua.
 (6) Ikasle errepikatzaileen kopurua zati ikasketa urtean matrikulatutako ikasle kopurua.
 (7) Urte guztietan matrikulatutako kredituak zati planeko kredituak. Zatidura hori ken bat egin, eta %tan ematen da.
 (8) Ikasketak lau urte lehenago amaitu zituztenei dagokienez.
 (9) Lan ordaindua egiten duten pertsona kopurua (jarduera independenteak egiten dituztenak) zati Lanbideren inkestako erantzunen guztizkoa, %tan.
 (10) Hirugarren sektoreari lotutako lanbideak dituzten pertsonen %a (unibertsitate mailakoak edo goi mailako profesionalak).
 (11) Lanean ari diren pertsonak gehi lanik ez duten baina bila dabilzan eta lan egiteko prest dauden pertsonak, zati Lanbideren inkestako erantzunen guztizkoa, %tan.
 (12) Ikasketak bukatu eta lehen lanbidea izan arterainoko denbora.

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (ZTFIAZ) giltzarria da ikasleen orientazioan (P2.3.2 prozedura). Informazio gune nagusia da prestakuntza ikastaroetan, truke programetan, enpresa praktikan eta lan munduan sartzean interesa duten ikasleentzat eta ikasketak amaitu dituztenentzat. Posta elektronikoz, telefonoz, posta arruntez jasotako kontsulta guztiei erantzun zaie, eta, bereziki, aurrez aurreko egindakoei. Aurreko urteetako joerak berdin jarraitzen du, hau da, kontsulten erdia baino gehiago enpresetako praktikei eta enplegu eskaerarekin zerikusia duten gaiei buruzkoak dira. Beste bloke garrantzitsu bat (% 30 baino gehiago) truke akademikoko programek osatzen dute (Erasmus, Tassep, Latinoamerika eta SICUE-SENECA).

ZTF-FCTko ikasleen elkarrekin hainbat jarduera antolatu dituzte (8. taulan ageri dira haietako batzuk). Taulan ikustenenez, ikasturte bereziki aktiboa izan da 2009/2010.

2009/2010 ikasturtean, titulazio ezberdinetan ikasketak amaitu zituzten ikasleek 2 bidaia bakarrik egin zituzten. Guztira, 24 ikasle egin zituzten ikasketa bidaiak. Bakoitzari egokitutako diru laguntza 306,98na eurokoa izan zen, eta diru laguntza osoa, berriz, 7.367,53 eurokoa (ikus 9. taula).



8. taula.- Ikasleen elkarten jarduerak

Elkartea	Jarduera
<i>Bionatur</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen Elkarten Jardunaldia / Jornada entre Estudiantes. Data: 2009ko abenduaren 16a. - Actual Research in Biology. Data: otsaila-maiatza. 7 hitzaldi / 7 conferencias. - Biologia, biokimika eta ingurumen zientzietarako lan irteeren orientazio jardunaldiak / Jornada de Orientación Profesional para alumnos de Biología Bioquímica y CC Ambientales (COBE Euskadiko Biologoek Eskolarekin elkarlanean). Data: otsaila-martxo (3 hitzaldi) / Febrero-Marzo (3 charlas). - Darwinen urtea: Eboluzioa, geneak eta moldaerak hitzaldi zikloa / Año de Darwin: Ciclo de Conferencias, evolución, genes y adaptaciones. Data: 2010eko martxo-maiatza (5 hitzaldi) / Marzo-Mayo (5 conferencias) - Darwinen urtea: Erakusketa / Exposición. Data: 2010eko martxo-apirila. - Klima aldaketaren zineforuma / Cineforum sobre Cambio Climático. Data: 2010eko apirila (5 dokumental) - Klima aldaketaren zineforuma: Erakusketa / Exposición. Data: 2010eko martxo-apirila (Greenpeaceekin elkarlanean). - gvSIG ikastaroa. Data: 2010eko apirila. - Laginkada proiektua. Data: 2010eko urtarriletik orain arte. - Ikasleek ikerkuntza eta Fakultateko laborategi eta ikerkuntza ildoak ezagutzeko proiektu bat abiarazi da. Ikasleek aukera dute laborategietan egiten dituzten laginketetan parte hartzeko. Bionatur ikasle eta ikertzaileen arteko koordinazioaz arduratzen da email eta formulario bidezko sistema sinple eta eraginkor baten bidez. Ikertzaileek denbora aurrezteko modua ere bada, laginketak egiteko esku gehiago izango dituztelako, eta Fakultateko ikerkuntza bultzatuko dute.
<i>EuskalNatura</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Webguneak: EuskalNatura.net-en eguneratzeak. Onddoak.net webgunearen egituraketa eta sorrera. - Kantauri: ikuspegiak eta begiradak erakusketa. Gasteiz: 2009ko azaroa-abendua. Ordizia: 2010eko martxo-apirila. Donostia: 2010eko apirila. Elgoibar: 2010eko maiatza. Deba: 2010eko ekaina - III. Naturaldia. 2010eko maiatzean (3tik 12ra bitartean). Hitzaldiak: Naturako eragin trukeak izango dituzte mintzagai, eta gai horren inguruko hainbat hitzaldi (maiatzaren 3an, 4an, 10ean eta 11n). Lau eguneko irteera (Valderejo - Subillana). Bibertsosaioa (maiatzaren 12an). Bertsolariak: Jon Maia, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. Gai-jartzaileak: Uxue Alberdi EuskalNaturako kideak. Bertsozale Elkarteok Bertso plaza.tv webgunerako grabatu zuten.
<i>Zimatek</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait enpresarekiko akordioak, enpresen lan eskaintzak zuzenean Zimalist mailing zerrendatik bideratzeko. - Apunte batzordea abiaraztea. - "Software freedom day" egunean parte hartzea (irailaren 14a). - Webguneekiko kolaborazioak: www.queremosoftwarelibre.org, www.euskolinux.org. - Fisikako lizentziaturan erabilgarriak diren software libreko baliabideei (Maxima, Python, LyX...) buruzko hitzaldi informalak eta informazioa ematea (apirilaren 12tik 16ra). - Enpresen eta Zentro Teknologikoak Aurkezpenarako V. Jardunaldietan parte hartzea (martxoaren 15etik 17ra). - Ikasturtearen hasieran, gradu berriei buruz eta lizentziaturatik gradura igarotzearen inguruko informazio gunea (irailaren 6tik 17ra).

9. taula.- 2009/2010 ikasturtean egindako ikasketa bidaiei buruzko datuak

Titulazioa	Norakoa	Ikasleak	Laguntza ()
Kimika	Gambia	4	1.227,91
Matematika	Kuba	20	6.136,60
GUZTIRA		24	7.367,53



Ikasturte bakoitzean ZTF-FCTko ikasleek **truke akademikoko programekiko** duten interesa hazi egiten da (P2.3.6 prozedura). Gure ikasleen artean interes handiena sorrarazten duen programa ERASMUS da. Aurreko ikasturtean 52 ikasle mugiarazi zituen programa horrek. Horrez gain, bi ikasle Estatu Batuetako unibertsitateetan egon ziren TASSEP truke programari esker, eta beste bost ikasle Latinoamerikako unibertsitateetan, UPV/EHU-AL programari esker. Aipagarria da SICUE programak piztu duen interesa, 20 lagunek parte hartu baitute. Bestalde, atzerritik 26 ikasle etorri dira (18 Erasmus, 8 SICUE). 2010/2011 ikasturtean adierazle horiei eustea aurreikusita dago. 10. taulan, azken 4 urteotan Fakultatean izandako trukeen bilakaera ageri da. 11. taulan, truke programetan (Erasmus) parte hartu duten irakasle eta ikertzaile kopurua ageri da; eskolak eman dituzte gure ikastegiak akordio bilateralak eginak dituen Europako hainbat unibertsitateetan.

10. taula.- ZTF-FCTren bi norabidetako truke akademikoen bilakaera, mugikortasun programen arabera sailkatuta.

Ikasturtea	2006/2007		2007/2008		2008/2009		2009/2010	
	UPV/EHU	Kanpokoak	UPV/EHU	Kanpokoak	UPV/EHU	Kanpokoak	UPV/EHU	Kanpokoak
SICUE	9	8	14	4	14	10	20	8
ERASMUS	42	10	43	10	43	15	52	18
TASSEP	1	0	1	0	1	0	2	0
Latinoamerika eta beste norako batzuk	0	2	2	0	3	2	5	0
Guztira	52	20	60	14	61	27	79	26

11. taula.- Mugikortasun programetan parte hartu duten ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileak

Eskaera urtea	Gauzatze urtea	Irakasle eta ikertzaile kop.
2007/2008	2008/2009	5
2008/2009	2009/2010	10
2009/2010	2010/2011	10

2009/2010 ikasturtean, hainbat aldaketa izan dira Ikasleentzako Argibide Zerbitzuan (ZTFIAZ). Zerbitzu horrek **unibertsitatetik kanpoko praktikak** kudeatzen ditu Fakultatean (P2.3.7 prozedura). Gure ustez, horrexegatik (eta baita krisi ekonomikoaren eraginez ere) sinatu ditu Fakultateak hezkuntza lankidetzako hitzarmen (HLH) gutxixeago.

Unibertsitatetik kanpoko praktikak kudeatzeko zerbitzua eguneratzeko prozesuaren baitan, ZTFIAZko langile berriek (Begoña Valdizán eta Asun López) eta Itziar Alkorta dekanordeak PRAKTIGES prestakuntza ikastaroan parte hartu zuten 2010eko otsailaren 18an. Bestalde, irailaren 30ean, PRAKTIGESen tresna berria erabiltzen ikasteko ikastaroa eman zuten Asun Lópezek eta Itziar Alkortak; hain zuzen, 2010/2011 ikasturtean hasiko dira tresna hori erabiltzen ZTF-FCTn.

2009/2010 ikasturtean, guztira 82 ikaslek egin dituzte praktikak enpresetan hezkuntza lankidetzako hitzarmenen (HLH) bitartez eta 83 hitzarmen sinatu dira. Titulazioen



araberako banaketa hau da: Biologia (42), Biokimika (4), Ingurumen Zientziak (4), Fisika (6), Geologia (2), Ingeniaritza Elektronikoa (1), Ingeniaritza Kimikoa (7), Matematika (6), Kimika (11) (12. taula). Hona hemen ZTF-FCTko ikasleek unibertsitatetik kanpo egindako praktikei buruzko beste datu batzuk (12. taula):

- Enpresek eskainitako praktikak	85
- Enpresa aktiboak	167
- Egindako praktikak	83
- Praktikak egindako enpresak	76
- Ikasle eskatzaileak (PRAKTIGES baliodundua)	249
- Praktikak egin dituzten ikasleak	82
- Laguntza poltsako ikastegiko tutoreak	52
- Diru laguntzen poltsaren batezbestekoa	276,54 euro hilean
- Praktiken batez besteko iraupena (ordutan)	400 ordu

12. taula.- Azken ikasturteetako HLHen bilakaera

Ikasturtea	Praktikak eskatu dituen ikasle kop.	Eskainitako HLH kop.	Praktiketan dagoen ikasle kop.	Ikasketak amaitu dituztenen kop.	HLH kop. / Ikasketak amaitu dituztenen kop.
2002/2003	67	165	147	548	0,30
2003/2004	297	178	156	536	0,33
2004/2005	281	182	157	443	0,41
2005/2006	295	209	175	467	0,45
2006/2007	262	199	169	425	0,47
2007/2008	285	218	179	363	0,60
2008/2009	234	140	126	324	0,43
2009/2010	249	83	82	295	0,28

Prestakuntza osagarria (P2.3.8 prozedura) oso baliabide baliotsua da ikasleen eta ikasketak amaitu dituztenen ezagutza dibertsifikatzeko eta zabaltzeko. Horri esker, lan munduaren aurrean besteengandik ezberdin agertzen ikasten dute. Horregatik, Fakultateak eta zenbait sailek ikastaroak antolatzen dituzte hainbat arlotan. Guztira, prestakuntza osagarriko 39 kreditu eskaini ditugu, honako ikastaro hauetan banatuta:

- *Salgai arriskutsuen garraiorako segurtasun kontseilaria.* Egunak: urriaren 5etik azaroaren 30era. Iraupena: 50 ordu (5 kreditu). Bertaratutakoak: 14 ikasle.
- *ISO 14001 araua: Ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzea.* Egunak: 2009ko azaroaren 24tik abenduaren 17ra. Iraupena: 45 ordu (4,5 kreditu). Bertaratutakoak: 12 ikasle.



- Prestakuntza osagarriko beste ikastaro batzuk:
 - Matematika aplikatua eta konputazionala. Deribatu partzialen ekuazioak eta kontrolaren teoria (4 kreditu).
 - Matematika aplikatua eta konputazionala (4 kreditu).
 - Matematika aplikatua eta konputazionala. Matematika konputazionala (5 kreditu).
 - Research in Marine Environment and Resources (4,5 kreditu).
 - Ingurumen arriskuaren ebaluazioa (4,5 kreditu).
 - Reach araudia: sarrera (2 kreditu).
 - Histology and Histopathology of Aquatic Animal (3 kreditu).
 - Toxicogenomics (2,5 kreditu).

Gure ikasleei lan munduan sartzen laguntzeko jardueren baitan, martxoaren 15ean, 16an eta 17an, **Enpresen eta Zentro Teknologikoen Aurkezpenerako V. Jardunaldiak** izan ziren (P2.3.10 prozedura). 105 ikaslek eta 12 erakundek parte hartu zuten. Hona erakundeen zerrenda: Progenika, NorayBio, Biobasque agentzia, Panda Security, ITP, FAGOR, Geologoen Elkargo Ofiziala, BASOINSA, Euroestudios, AVEQ-KIMIKA, DTS-OAVE eta Bostlan.

Ikasleek jardunaldiotan egindako inkestetan, enpresek eskatzen dituzten profilak ezagutzea eskatu zuten maizenik. Horretarako, 2009/2010 ikasturtean, **Lan Munduan Sartzen Laguntzeko I. Jardunaldia** antolatu genuen lehen aldiz, honako goiburua harturik: *Lan bila zabilta? Zure esku dago!*

2010eko apirilaren 28an izan zen jardunaldia, eta bi hizlari gonbidatu genituen: M^a Victoria Boraita Rodríguez (Giza Baliabide Teknikaria/Técnico de Recursos Humanos) eta María Saiz (Kanpo Harremanetako zuzendaria/Directora de Relaciones Externas, UPV/EHU). Fakultateko 43 ikaslek parte hartu zuten.




P3 Graduondoko eta ikerkuntzako prozesua

Honako azpiprozesu hauek biltzen ditu:

P3.1 Masterrak eta doktoregoa

P3.2 Ikerkuntza



P3.1 Masterrak eta doktoregoa

Azpiprozesu honek ikastegiko graduondoko programei buruzko informazioa zabaltzeko eta ikasleak programa horietara erakartzeko mekanismoak ezartzen ditu. Honako prozedura honi jarraitzen dio:

P3.1.1 Graduondoko programei buruzko informazioa zabaltzea eta ikasleak programa horietara erakartzea.

Azken bi urteotan, ZTF-FCTko ikasleek jardunaldi baten bidez jaso dute masterrei buruzko informazioa. Jardunaldi horretan, Graduondoko zuzendariak eta masterretako koordinatzaileek parte hartu zuten. Ikasleek balioespen positiboa egin zuten arren (ikus 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetako Kudeaketa Txostenak), oso ikasle gutxi joan ziren jardunaldira (10 ikasle baino gutxiago); horregatik, jardunaldi hori masterrek eurek bideratzea proposatu zen 5.2 prozesuan (Ebaluazioa eta hobekuntza).

Ikastegiak masterrei buruzko informazio diptikoak eginez lagundu du, foroetan zabal daitezkeen (UOak, Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak, ikastetxeetarako bisitak, etab.), eta informazioa postaz bidali die ZTF-FCTko ikasleei.



Gaur egun, honako master hauek eskaintzen ditu Fakultateak:

Graduondoko programa ofiziala: INGURUGIROA ETA BALIABIDE NATURALAK

- Ingurumenaren Agrobiologia Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA, kalitate aipamena)
- *European Master in Marine Environment and Resources* (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Ekosistemen Biodibertsitatea, Funtzionamendua eta Kudeaketa Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Kuaternarioari buruzko Masterra: Ingurumen Aldaketak eta Gizakiaren Eragina (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa)

Graduondoko programa ofiziala: MATEMATIKA

- Matematika Ikerkuntzaren Hasiera Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa)
- Eredugintza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Masterra (Unibertsitate arteko Masterra)

Graduondoko programa ofiziala: FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Kimika Sintetiko eta Industrial Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Laserrak eta beren Aplikazioak Kimikan Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- Material Berriak Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa)
- Materialen Fisika eta Teknologia Masterra (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa)
- Zientzia eta Teknologia Kuantikoak (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa).

Graduondoko programa ofiziala: BIOMEDIKUNTZA, BIZI KALITATEA ETA OSASUNA

- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Masterra (Unibertsitate arteko Masterra eta Doktoregoa) (KA)

Graduondoko programa ofiziala: INGENIARITZA ETA INDUSTRI TEKNOLOGIA

- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Jasangarria (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)

P3.2 Ikerkuntza

Fakultateko ikerkuntza taldeek ikerkuntzaren inguruko informazioa zabaltzeko erabiltzen dituzten prozedurak biltzen ditu, eta baita prozedura horiek gauzatzeko esku artean dauden baliabideak ere:

P3.2.1 Ikerkuntza jardunaldiak.

P3.2.2 Baliabide zientifiko-teknikoen gida egitea.

Martxoaren 15ean, 16an eta 17an, **Zientzia eta Teknologia Fakultateko II. Ikerketa Jardunaldiak** antolatu genituen (P3.2.1 prozedura). Gainera, aurrekoan lehen aldiz, azken ikasturteko ikasleentzako **Enpresen eta Zentro Teknologikoen Aurkezpenerako V. Jardunaldiekin batera** izan ziren.



Hala, bi helburu bete nahi izan dira: batetik, ikastegiko ikasle eta ikertzaileei helaraztea ikerkuntza taldeek beren lanean emandako azken pausoak, eta, bestetik, gure ikerkuntza ildoen berri ematea gure lanaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutu nahi dituzten zenbait enpresari.

Jardunaldiotan, 82 ikerkuntza taldek parte hartu zuten, eta baita UPV/EHUko SGIker ikerkuntzako zerbitzu orokorrek, Biofisikako unitateak eta ESS Bilbaok ere. Jardunaldien harira, Salvador Ferrer doktoreak ere parte hartu zuen; Espainiako ALBA sinkrotroiaren zuzendari zientifikoa da, eta honako hitzaldi hau eman zuen: "Sinkrotroi argia: zientziarako tresna bikaina". Horrez gain, enpresaren esparruan, Koldo Saratxaga enpresa kudeaketako kontseilariak hitzaldi bat eman zuen: "Antolakuntza aldaketarako harreman modu berri bat".

Jardunaldi horietatik, abstract liburu bat argitaratu da. Jardunaldietan parte hartu zuten taldeen ikerkuntza ildoak biltzen ditu liburuak, eta Fakultateko webgunetik deskarga daiteke, ikerkuntzaren atalean. Jardunaldiak Campuseko Errektoreordetzaren eta Ikerketako Errektoreordetzaren finantziarioari esker antolatu ziren.

Azkenik, Fakultateak hainbat ekimen zientifikotan lagundu du. Hona aipagarrienak:

- *Basque Colloquium in Mathematics and its Applications*, ZTF-FCT, 2009ko urriaren 9an inauguratua.
- Matematika eguneroko bizimoduan. 2009ko azaroaren 26an Bidebarrietan amaitutako hitzaldi zikloa.
- Novia Salcedo Fundazioaren nazioarteko aditu taldearen topaketak, 2009ko abenduaren 10ean.
- II. Bioforo Jardunaldiak: Minbiziaren inguruko ikerketa eta tratamenduaren arloko aurrerapenak. 2009ko abenduaren 15ean inauguratua.
- Topaketa: "EUE Matematikako Lizentziaturan ezartzerakoan bizitako esperientziak"; 2010eko urtarrilaren 13an.
- EUSKOIKER 2009 ikerketa saria Juan Manuel Gutiérrez-Zorrillari ematea, 2010eko urtarrilaren 15ean.
- Dekanoak Gizarte Kontseiluaren X. urteurrena ospatzeko ekitaldian parte hartzea, 2010eko urtarrilaren 26an.
- Optika Kuantikoaren XVI. Jardunaldiak, 2010eko martxoaren 9an.
- Radio Euskadin egindako elkarrizketa, "Zientzia emakumeon gauza da", 2010eko martxoaren 24an.
- Administrazioaren, industriaren eta banketxeetako matematikari gazteen I. Jardunaldiak, 2010eko maiatzaren 6an.
- Espainiako Unibertsitateen Etika Batzordeek osatutako Sarearen VIII. Topaketa, 2010eko maiatzaren 13an.
- Polimeroei buruzko hitzaldi zikloaren amaiera, ZTF-FCTn, 2010eko maiatzaren 28an.
- ZTF-FCTn Ikerbasque programak aurkeztea, 2010eko ekainaren 2an.
- Pirinioetako Giza Populazioen Biologiari buruzko III. Workshop-a, 2010eko ekainaren 8an eta 9an.
- Taldeen Teoriako VIII. Topaketak, 2010eko ekainaren 17an.
- Kristalografo Gazteen II. Bilera, 2010eko irailaren 14an.
- Ingeniaritza Kimikoko XXVIII. Jardunaldiak, 2010eko irailaren 16an.

P4 Laguntza prozesuak

Fakultateko gainerako prozesuei zerbitzua ematen dieten azpiprozesuak biltzen ditu:


P4.1 Giza baliabideak

P4.2 Komunikazioa eta gizartearekiko elkarrekintza

P4.3 Administrazio kudeaketa

P4.4 Baliabide materialak eta zerbitzuak

P4.5 Euskara



P4.1 Giza baliabideak

Honako prozedura hauek biltzen dira giza baliabideen azpiprozesuan:

P4.1.1 Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kudeaketa.

P4.1.2 Langile berriei harrera egitea.

P4.1.3 Langileen prestakuntza.

P4.1.4 Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak ebaluatzea, goratzen laguntzea eta balioestea.

Irakasleen kudeaketari dagokionez (P4.1.1 prozedura), 2009/2010 ikasturtean, ordezkapen justifikatuen hainbat eskaera bideratu ziren: bajagatik, amatasun lizentziengatik, irakaskuntza betekizunen murriztapenengatik, bateraezintasunengatik, etab.



Gratu berriak sartzeko eragin bete-betekoa izan du 2010/2011 ikasturteko plangintzan. Bederatzi titulazioetan sartu dira gradu berriak, zenbait ereduren arabera, eta horrek irakaskuntza orduak gutxitzea ekarriko du zenbait sailetan. Irakasleek bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, Dekanotza Taldeak plaza eskaeren proposamena prestatu zuen, eta 2010eko apirilaren 21ean onartu zuen Fakultateko Batzarrak (13. taula). Honako irizpide hauen arabera egin zuten eskaeren txostena:

1. Euskalduntze prozesua indartzea.
2. Irakasleen plantillaren berrikuntza bultzatzea.
3. Gobernu Kontseiluak jarduera ezberdinengatik esleitutako kredituen aitopene errearen alde egitea.

Halaber, une iragankorra bizitzen ari garela kontuan harturik, plazak iragankorrak izatea hobetsi zen. 13. taulan ageri dira Irakasleen Errektoreordetzaren erabakiak.

13. taula.- 2010eko apirilaren 21ean Fakultateko Batzarrean aurkeztutako eskaeren eta hartutako erabakien laburpena

Saila	Mota	Eskatutako plaza	Dedikazioa	Profila	Proposamena	Erabakia
Kimika Organikoa II	Hutsik	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	
Kimika Ezorganikoa	Hutsik	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	ULB	8 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	
	Berritzea	Elkartua	4 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	Hutsik	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Biokimika eta Biologia Molekularra	Berritza	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	3 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa
Elektrizitatea eta Elektronika	Berritza	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	LPZ aldatzea	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	4 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa
Kimika Analitikoa	Berritzea	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	
Zoologia eta Animalia Zelulen Biol.	Berritzea	Atxikia (Zuz. lag.)	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Landare Biologia eta Ekologia	Berritzea	ULB	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
Ingeniaritza Kimikoa	Berritza	Unib. titularra	8 ordu	Ez eleb.	Kontrakoa	
	Berritzea	ULB	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	ULB	8 ordu	Elebiduna	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	6 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa
	Berritzea	Elkartua	4 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa
Matematika	Berritzea	Elkartua	6 ordu	Ez eleb.	Aldekoa	Aldekoa



Irakasle eta ikertzaileen banaketari dagokionez, aipatzekoa da doktoregoko zein doktorego ondoko hainbat ikertzailek Fakultatean egiten dutela beren lana; alegia, 2010ean jasotako hauteskunde erroldaren arabera, ikertzaile guztien % 38k (14. taula). 2010eko hauteskunde erroldaren arabera gaur egun ZTF-FCTn lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileei buruzko datuak 15. taulan ageri dira (ikus, halaber, AE1b irudia 10. orrialdean).

14. taula.- ZTF-FCTko irakasle eta ikertzaileen banaketa 2010eko hauteskunde erroldaren arabera

Kategoria	Guztira	Doktorea	Elebiduna
Emerituak	4	4	0
Unibertsitateko katedradunak	126	126	13
Unib. titularrak	159	159	67
Eskolako titularrak	4	0	1
Osoak	1	1	0
Agregatuak	38	38	25
Irakasle iraunkorrak	330	326	106
Lankideak	17	11	14
Unib. lan kontratudun bitartekoak	37	32	24
Eskolako lan kontratudun bitartekoak	1	1	1
Elkartuak	9	7	1
Irakasle atxikiak	10	9	10
Irakasle bisitariak	4	2	0
Irakasle ez iraunkorrak	78	62	50
Irakasleak, guztira	408	388 (% 95)	156 (% 38)
Ikertzaileak	143	42	
Prestatzen ari den praktiketako ikertzailea (UPV/EHU)	31	0	
Prestatzen ari den praktiketako ikertzailea (MEC)	21	0	
Prestatzen ari den praktiketako ikertzailea (EJ)	8	0	
UPV/EHUko ikertzaile bekaduna	38	0	
Juan de la Cierva ikertzailea	6	6	
MECeko ikertzaile bekaduna	1	1	
Ramón y Cajal ikertzailea	3	3	
Ikerbasqueko ikertzailea	12	12	
Ikertzaileak, guztira	263	64	
Irakasle eta ikertzaileak, guztira	671		



15. taula.- ZTF-FCTn lan egiten duten AZPko langileak 2010eko urriko hauteskunde erroldaren arabera.

Lanpostua	Pertsona kop.
Ikastegiko administratzailea	1
Ikastegiko teknikaria	1
Bulegoburua	1
Arloko arduraduna	1
Administrari laguntzaileak (ikastegia)	11
Idazkari dekanoa	1
Saileko idazkariak	18
Harrerako/Informazioko laguntzailea	1
Atezain nagusia	3
Mendekoak	5
Multimedia arduraduna	1
Multimediako teknikari espezialista	1
Erreprografia arduraduna	1
Laborategiko teknikari espezialista (ikastegia)	10
Laborategiko teknikari espezialista (sailak)	4
Laborategiko ofiziala (saila)	1
Tailerreko eta laborategiko maisua (saila)	1
AZPko langileak, guztira (LPZ eta laguntzaileak)	64
Hezkuntza bereziko laguntzaileak	2
Graduondoko administrari laguntzailea	3
SGIker zerbitzuetako langileak	18
Beste langile batzuk (proiektuetako teknikariak eta administrari laguntzaileak)	7
Informatikako teknikari espezialistak (IISIZ)	2
AZPko beste langile batzuk, guztira	32
Administrazio eta zerbitzuetako langileak guztira	96

P4.2 Komunikazioa eta gizartearekiko elkarrekintza

Honako prozedura hauetako jarduerak biltzen ditu:

- P4.2.1 Informazioaren jakinarazpena.
- P4.2.2 Banaketa zerrendak kudeatzea.
- P4.2.3 Iradokizunak, kexak eta kontsultak kudeatzea.
- P4.2.4 Webgunea eta Intraneta kudeatzea.
- P4.2.5 Hedabideekiko harremanak.
- P4.2.6 Ikerkuntza jardueretan parte hartzea.
- P4.2.7 Alberto Magno Zientzia Fikziozko Lehiaketa
- P4.2.8 ZTF-FCTko praktiken kudeaketa.

Azpiprozesu honek bi helburu orokor ditu: i) Fakultateko barne harremanak hobetzea ikastegiko kolektiboen artean (Zuzendaritza Taldea, sailak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta ikasleak), ahalik eta intereseko informazio gehien trukatzeko; ii) Fakultateak protagonismo handiagoa izatea gizartean, kanpoko zenbait talderekiko komunikazioaren bitartez (enpresak, ikasketak amaitu dituztenak, ikastetxeak eta gizartea, oro har).



Fakultateko kideen arteko **barne komunikazioa** (P4.2.1a prozedura) funtsezkoa da ikastegiak ongi funtziona dezan. 2009/2010 ikasturtean, Fakultateko hainbat kolektibok hainbat mezu jaso dituzte (ikus 17. taula). Ekitaldien iragarpenak, jakinarazpenak, lan eskaintzak, bekak, etab. jaso dituzte mezu horietan.

Bestalde, aktiboki sustatu dugu ikasleek erakunde posta erabiltzea beren artean. Besteak beste, harrera ekitaldiaren, Enpresen Aurkezpenerako Jardunaldien eta Lan Munduan Sartzen Laguntzeko Jardunaldien bitartez sustatu da hori.

Halaber, Fakultateko iragarki tauletako errotuluak berrantolatzeari ekin zaio, Fakultateko jardueri buruzko informazioa zabaltzeko guneak optimizatze eta informazioa argiago emateko.

Azkenik, behe solairuko atezaintza zerbitzua goizez ere zabalik egoten da orain, barne langileei eta, batez ere, kanpoko bisitariei informazioa emateko asmoz.

Horrez gain, zenbait barne ekitaldi ere izan dira:

- Eguberrietako luncha (2009-12-22)
- Fernando Castaño Kimika Fisikoko irakasle emerituaren omenaldia (2010-01-14)
- Gradu berriak Fakultateko ikasleei aurkeztea (2010-01-21)
- UPV/EHUko doktore berrien inbestidura ekitaldia (2010-02-26)
- Unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko aukera ezarri izanaren 30. urteurrena (2010-03-05)
- Ikerbasque jardunaldia; programaren aurkezpena (2010-06-02)
- Zientzia eta Teknologia Fakultateko II. Ikerketa Jardunaldiak (2010-03-15etik 2010-03-17ra)
- Argazki erakusketa: "Kantauri: ikuspegiak eta begiradak". Euskal Naturak antolatua (2010-04-20tik 2010-04-30era)
- IKD programaren aurkezpena (2010-05-19)
- Udako solstizioa (2010-06-22)

ZTF-FCTk gizartean duen protagonismoa handitzera bideratutako jarduerak biltzen dira **kanpo komunikazioan** (P4.2.1.b prozedura).

Ikastegiaren kanpo harremanak indartzeko ekimen garrantzitsuenetako bat inguruko zenbait erakunderekin adostutako itunak egitea da. 2009/2010 ikasturtean, honako lankidetzak hitzarmen hauek sinatu ditugu:

- BAI agentzia (2010eko urtarrilaren 20a)
- Quirón ospitalea (2010eko apirilaren 29a)
- Euskal Herriko teknologia elektronikoen eta informazioaren industrien elkarte, GAIA (2010eko uztailaren 8a)
- Euskal kostaldearen geoparkea (2010eko uztailaren 25a)
- Fisikako Fakultatea, M.V. Lomonosov Unibertsitatea, Mosku, Errusia (2010eko abuztuaren 9a)



Horrez gain, 2009/2010 ikasturtean, ZTF-FCT harremanetan izan da kanpoko zenbait agenterekin. Hona hemen haietako batzuk:

1. Irailetik abendura bitartean, BAI agentziarekin elkarlanean jardun genuen Ideien Irla lehiaketa sustatzen eta bultzatzen. Ondorioz, lankidetzaz hitzarmena sinatu genuen agentzia horrekin (ikus kanpoko agenteekiko hitzarmenaren atala).
2. Euskadi prestakuntza foroa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako hitzaldia (2009-10-20).
3. Azaroaren 18an, Biofisika-Bizkaiak antolaturik, Komunikazio zientifikoari buruzko I. mintegian parte hartu genuen. Ondorioz, mintegian parte hartu zuten ikasleek aukera askeko kreditu bat jaso zuten.
4. Abenduaren 10ean, Novia Salcedo fundazioak antolaturik, Nazioarteko adituen I. topaketetan izan ziren ZTF-FCTko kide batzuk.
5. Martxoaren 22tik 26ra, elikagaien bankurako elikagaiak biltzeari ekin genion.
6. Martxoaren 29an, Manuel Soto eta Itziar Alkorta dekanordeak Elhuyar fundazioaren instalazioetan izan ziren, Usurbilen. Zientzia eta teknologia ikerketa euskaraz egiteko interesgune komunak bilatzea izan zen topaketa haren helburua. Hain zuzen, interesgune komun ugari izanik, berriz ere elkarrekin bildu ziren Fakultatean, eta Zientzia Bizirik ekimeneko jarduerak prestatzen dituzten arduradunek ere parte hartu zuten. Bilera hartan, ideiak trukatu zituzten, eta etorkizunean zientzia ikerkuntzaren eremuan egiteko zenbait proiektu pentsatu zituzten.
7. Fakultateko graduei buruzko informazioa zabaltzea ikastetxeetan eta Erandioko eta Leiako Udaletan.
8. Bilbao Turismorekin harremanetan jarri ginen, gure ekitaldien berri emateko.

Ikastegiko webgunetik sar daiteke ZTFNews Fakultatearen blogera, eta baita honako helbide hau erabiliz ere: www.ZTFNews.org. 2009/2010 ikasturtean, Fakultateko kideek albisteak idazten parte hartzea sustatu dugu, eta hiru erredaktore izendatu ditugu: Marta Macho Stadler (Matematika Saila), Iñaki Bilbao Larrea (Kimika Fisikoa Saila) eta Juan Ignacio Pérez Iglesias (Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila).

Haien kolaborazioei esker, sarrera gehiago izan ditu blogak (ikus 16. taula). Gainera, Internetzaleen interesa piztu dute argitaratutako artikuluek, eta nabarmen igo da bisiten kopurua.

16. taula.- ZTFNews.org blogaren jarduera

Ikasturtea	Erredaktore kop.	Sarrera kop.	Bisita kop.
2008/2009	1	30	10911
2009/2010	4	114	47142



2009ko abendutik hasita, Fakultateak badu komunikazio kanal bat Twitter-en (@ztf_fct). ZTFNews.org blogean edo www.twitter.com/ztf_fct helbidean sartuta ikus daiteke. Harrezkero, ikastegiak Fakultateari eta UPV/EHUri buruzko berriak zabaldu ditu, eta, batez ere, zientziari eta teknologiari buruzko berriak, Estatukoak zein nazioartekoak. Sortu zenetik, 1.050 twitt bidali dira.

Beste alde batetik, Fakultatearen irudia daramaten zenbait opari sortu ditugu (libretak, USB memoria txartelak, etab.), ZTF-FCTren irudia bisitari eta kolaboratzaileen artean zabaltzeko asmoz. Objektuok salgai daude, Fakultateko kideek ekitaldi zientifikoetan erabil ditzaten. Horrez gain, Fakultatearen eta UPV/EHUREN logotipoa duten alfonbrak jarri ditugu ikastegiko hiru sarreretan, eta Fakultateari buruzko beste bideo lan bat egiteko kudeaketari ekin diogu 2009/2010 ikasturtean.

17. taulan jarri ditugu 2009/2010 ikasturtean ikastegiko interes taldeei bidalitako mezuak, 10 banaketa zerrendetan banatuta (P4.2.2 prozedura):

17. taula.- Banaketa zerrendetan izena emandako taldeei bidalitako mezuak

Banaketa zerrenda	Mezu kop.
ZTFegresados	52
ZTFBio	32
ZTFGeo	3
ZTFQuimica	3
ZTFMate	11
ZTFFisica	6
LDCIENCIAS	477
LCDPIFIENCIAS	318
ALUCIENCIAS	103
LCDPASIENCIAS	59

2009ko Alberto Magno ospakizun ekitaldian, banaketa zerrenda berri bati buruzko informazioa jaso zuten tituludun berriek: ztfegresados. Tituludunentzako erabilgarri izan daitekeen informazioa zabaltzea da zerrenda horren helburua (lan eskaintzak, prestakuntza ikastaroak, ekitaldi zientifikoak, kultura ekitaldiak, etaab.). Sortu zenetik, 45 pertsonak eman dute izena zerrenda horretan.

2009/2010 ikasturtean, 70 iradokizun, kexa edo/eta kontsulta jaso genituen hainbat arlotan (P4.2.3 prozedura), ikastegiko langile eta ikasleek, eta Fakultateetik kanpoko pertsonak bidalita. Guzti-guztiak erantzun ditugu, batez beste 2 eguneko epean.



Ikastegiko webgunea etengabe eguneratu dugu (P4.2.4 prozedura), eta arreta berezia eman diogu Fakultateko titulazioen atalari. 2009/2010 ikasturte osoan zehar, webgunea bisitatu dutenek aukera izan dute ikastegiko gradu berriei buruzko informazioa kontsultatzeko. Honako hauek dira bisiten estatistika datuak: 108.413 bisitarik 630.351 orri kontsultatu dituzte, eta 116,06 GB deskargatu dituzte datutan.

Ikastegiko Intraneta eguneratzen aritu gara. Fakultateko webgunetik edo www.ZTF-Zabaldu.org helbidera sartuta ikus daiteke Intraneta. Maiatzean, Graduoko Ikasketen 9 Batzorde berrientzako Intranetak sortu genituen. Komunitate horietan, batetik, atal pribatu bat izaten da, elkarlana egin ahal izan dezaten, eta, bestetik, atal publikoan, graduari buruzko informazioa zabaltzen da (<https://zabaldu.ehu.es/web/ztfzabaldu/grados>). Gaur egun, Fakultateko komunitateek 13 Intranet dituzte guztira UPV/EHU (http://zabaldu.ehu.es).

Iaz, Pool de Comunicación-ekin genuen kontratua berri genuen, Fakultateko jarduera behar bezala eta behar bezain azkar helarazteko **hedabideetara** (P4.2.5 prozedura). Halaber, gure ahalegina eta UPV/EHUko prentsa kabinetearen ahalegina uztartu nahian, zenbait bilera egin genituen ZTF-FCTko prentsa oharren eta albisteen kudeaketa koordinatzeko.

Bestalde, aldika, Fakultateko irakasle eta ikertzaileek antolatutako ekitaldi zientifikoei buruzko informazioa bildu dugu, informazio hori hedabideetara helarazteko. Aurtengo ikasturteko informazioaren kudeaketaren erakusgarri, 59 prentsa ohar egin eta bidali ditugu, gero ikusiko dugun bezala. Egindako lanaren ondorioz, 854 agerpen izan ditugu prentsan, eta haietako 264 bereziki garrantzitsuak izan dira. Horrez gain, hedabide gehiagorekin jarri gara harremanetan, hala nola EITB, El Correo, Cadena SER, Elhuyar, Argia, COPE, Pausoka, etab.

2009ko urria eta 2010eko iraila bitartean bidalitako prentsa oharra

- 1) 2009-10-01: Bilboko Geologiako I. Argazki Lehiaketa
- 2) 2009-10-07: "Estuario, cloaca, canal mareal... la Ría de Bilbao a través del tiempo"
- 3) 2009-10-14: Zientzia eta Teknologia Fakultateak biodiesel bihurtu nahi ditu unibertsitateko jantokietan erabilitako olioak
- 4) 2009-10-29: Josué Tonellik urrezko domina eskuratu du Txilen izan den Fisikako XIV. Olinpiada Iberoamerikarrean
- 5) 2009-10-15: Zientzia eta Teknologia Fakultateko Antropologia Saileko irakasle Esther Rebatok domina akademikoa jaso du Pragan
- 6) 2009-10-30: Zientzia eta Teknologia Fakultateko tesi batek bakterioen antibiotikoekiko erresistentziaren kontrako estrategiak garatzeko bidea urratu du
- 7) 2009-11-12: Matematika eguneroko bizimoduan 2009
- 8) 2009-11-12: Euskadik 323 zientzialari eta teknologo berri ditu.
- 9) 2009-11-20: Zebra arraina izango da eztabaidagai Bilbon egingo den bi eguneko biltzar zientifiko batean
- 10) 2009-11-20: Gonzalo Muga fisikari ikertzailea Amerikako Fisika Elkarteko kide hautatu dute



- 11) 2009-12-14: Fisikarien Eskola Ofizialak *Física y Sociedad* aldizkariaren 20. alea argitaratu du: "Creatividad e Innovación en España" (Sormena eta berrikuntza Espainian)
- 12) 2009-12-15: Zientzia eta Teknologia Fakultateko azken mailetako ikasleek Grenobleko Polo Zientifikoa eta CERN zentroa bisitatu dituzte
- 13) 2009-12-17: Erraldoi jurasikoak. Dinosaurio erraldoien triangelua Leioako Campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultatean
- 14) 2009-12-18: Zientzia eta Teknologia Fakultateak minbiziaren ikerkuntza eta tratamenduaren arloko Espainiako aditu nagusietako 5 bildu ditu
- 15) 2010-01-15: Zientzia eta Teknologia Fakultateak 46. Matematika Olinpiadaren autonomiakako kanporaketa bildu du
- 16) 2010-01-19: "Geometriari barrenako ibilaldia" izeneko zikloaren XIII. edizioa
- 17) 2010-01-20: Zientzia eta Teknologia Fakultateak Biologiako V. Olinpiadaren fase autonomikoa antolatuko du
- 18) 2010-01-25: Euskoiker-ek Juan Manuel Gutiérrez-Zorrilla saritu du ITP enpresarekiko ikerketa kontratua dela medio
- 19) 2010-01-26: UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak Kimika Bizirik programa antolatu du laugarren urtez
- 20) 2010-02-03: Zientzia eta Teknologia Fakultatean "Visión de un laboratorio oficial de Control de Dopaje Deportivo" hitzaldia eskainiko da
- 21) 2010-02-08: Ehun bat ikaslek zientziarekin zuzeneko harremana izan dute UPV/EHUren Zientzia eta Teknologia Fakultatearen Física en Acción/Fisikaz Blai jardunaldietan
- 22) 2010-02-15: Zientzia eta Teknologia Fakultateko eta Osakako Unibertsitateko taldeen arteko lankidetzaz
- 23) 2010-02-15: Hitzaldia: "Todo está bajo control". Teoria matematikoak 1969an lortu zuen osperik handiena, Apolo XI.aren bidaia tripulatuarekin
- 24) 2010-02-16: Zientzia eta Teknologia Fakultateak, beste batzuekin batera, Antropicosta Iberoamerica 2010 tailerra antolatu du Brasilen
- 25) 2010-02-22: "Ingurumen Arriskuen Ebaluazioa eta Gai Kimikoen Kudeaketa Berria Europar Batasunean" graduondoko ikastaroaren 4. edizioa
- 26) 2010-02-22: Hitzaldia: "Sudokus y modelización"
- 27) 2010-02-24: SOS ARRAZAKERIA. "ETORKINA EMAKUMEA BIZTANLEA" erakusketa
- 28) 2010-03-01: Kosmologiako hamarkada liluragarria
- 29) 2010-03-02: Zientzia eta Teknologia Fakultateak (UPV/EHU) Fisikako 20. Olinpiadaren fase autonomikoa egingo du
- 30) 2010-03-03: Zientzia eta Teknologia Fakultateak (UPV/EHU) Kimikako XXIII. Euskal Olinpiada egingo du
- 31) 2010-04-14: Zientzia eta Teknologia Fakultateak euskarazko ahots itzulpeneko sistema garatu du
- 32) 2010-03-15: II. Ikerketa Jardunaldiak eta Enpresen Aurkezpenerako V. Jardunaldiak, Zientzia eta Teknologia Fakultatean (UPV/EHU)
- 33) 2010-03-17: Olinpiadetako irabazleak. Batxilergoko 15 ikaslek irabazi dituzte Zientzia eta Teknologia Fakultateak (UPV/EHU) antolatutako Biologia, Fisika, Geologia, Matematika eta Kimikako Olinpiadetako dominak
- 34) 2010-03-22: Zientzia eta Teknologia Fakultateak atek irekiko ditu



- 35) 2010-04-20: Zientzia eta Teknologia Fakultatean egindako ikerketa zientifiko baten emaitzak *Quid pro Quo* programan erakutsiko dira
- 36) 2010-04-22: Komikia Zientzia eta Teknologia Fakultatean (UPV/EHU)
- 37) 2010-05-01: Zientzia eta Teknologia Fakultateak ALBERTO MAGNO zientzia-fikziozko literatur lehiaketaren XXII. edizioa iragarri du
- 38) 2010-05-06: Bidebarrietako Liburutegiko VII. hitzaldi zikloa
- 39) 2010-05-06: Matematika eguneroko bizimoduan 2010. Ana Justelen "Una matemática en la Antártida" hitzaldiak emango dio hasiera Bidebarrietako Liburutegiko VII. hitzaldi zikloari
- 40) 2010-05-09: "200 milioi urte baino gehiagoko itsaso bateko gatzetik fideo zopa baten gatzera"
- 41) 2010-05-12: ESS Bilbaok Stefan Stahl gonbidatu du temperatura txikiko elektronikak partikula azeleragailuetan dituen aplikazioei buruzko hitzaldia ematera
- 42) 2010-05-12: Zientzia eta Teknologia Fakultateko bi ikaslek Unibertsitateko Errendimendu Akademikoko Bikaintasunaren lehenengo sari nazionala lortu dute
- 43) 2010-05-12: Joe Silk Zientzia eta Teknologia Fakultatean (UPV/EHU)
- 44) 2010-05-14: 2010eko Zientzia Olinpiadetako diplomen banaketa
- 45) 2010-05-20: Zumaiako flyscha, Lurraren Historiarako mundu mailako erreferentzia
- 46) 2010-06-01: Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta Frantziako Espazio Agentziak espaziorako patentea garatu dute
- 47) 2010-06-06: Zientzia eta Teknologia Fakultatean egindako doktorego tesi batek Glenn Brown 2010 saria jaso du
- 48) 2010-06-15: Luis Echegoyen irakasleak hitzaldia eman du Zientzia eta Teknologia Fakultatean (UPV/EHU)
- 49) 2010-06-15: Sir Michael Berry Zientzia eta Teknologia Fakultatean
- 50) 2010-06-22: Ekainaren 22an udako solstizioa ospatuko da Zientzia eta Teknologia Fakultatean
- 51) 2010-07-08: Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta GAI Ak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute
- 52) 2010-07-14: Kultura, matematikaren m-arekin
- 53) 2010-07-28: Ohiko elektronikaren ordezkari aukera Lehen mailako nazioarteko hainbat zientzialariek *Spintronics Days* tailerrean parte hartuko dute uztailaren 27an eta 28an Bilbon
- 54) 2010-07-30: Euskal kostaldearen geoparkerako hautagaitzak UPV/EHUren babesa jaso du
- 55) 2010-09-04: Zientzia eta Teknologia Fakultateak lipidoen arloko Europako biltzarrik garrantzitsuena antolatu du
- 56) 2010-09-10: UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak Bilbon egingo den Kristalografo Gazteen II. Bilera babestuko du
- 57) 2010-09-13: Zientzia eta Teknologia Fakultateak ikerketa proiektua gauzatuko du 2010/2011 ikasturtean Eusko Legebiltzarrentzat
- 58) 2010-09-15: Ingeniaritza Kimikoaren etorkizuna Zientzia eta Teknologia Fakultatean eztabaidagai
- 59) 2010-09-30: Biokimikako eta Biologia Molekularreko Espainiako Elkarteak Zientzia eta Teknologia Fakultateko bi irakasle izendatu ditu zuzendaritza karguetarako



Bestalde, joan den ikasturtean, XXI. **Alberto Magno Zientzia Fikziozko lehiaketa** izan zen. 52 kontakizun aurkeztu ziren guztira, gaztelaniaz guztiak ere. Argentinatik (5), Kubatik (4), Venezuelatik (3), Brasildik (1), Kolonbiatik (1), Costa Ricatik (1), Estatu Batuetatik (1), Israeldik (1), Nikaraguitik (1), Uruguaitik (1) eta Espainiako hainbat lekutatik (33) iritsi ziren kontakizunak.

- Lehen saria (3.500 euro): Vladimir Hernández Pacín (Bartzelona). Lana: "Tocando las puertas del cielo"
- Bigarren saria (1.500 euro): Oscar Beltrán de Otálora Martínez (Gasteiz). Lana: "El gran viajero"

2009/2010 ikasturtean, Zientzia eta Teknologia Fakultateak jarduera kultural eta hedapen zientifikoko jarduera ugari antolatu eta/edo garatu ditu (P4.2.6 prozedura):

"Murgil zaitetz zientzian" HITZALDI ZIKLOAK, JARDUNALDIAK, MINTEGIAK

Data	Izenburua	Hizlaria
Urr. 28	Matematikak femeninoak al dira	A. Urkaregi
Az. 4	Petrolio eta bere kimika	O. Basauri-J. Omar
Az. 11	Burdin Aroko herri harresituak Euskal Herrian	S. San José
Az. 18	Lebitazio magnetikoa: marruskadurarik gabeko teknologia	J. Jugo
Az. 25	Errefrakzio indize negatibodun materialak	N. Zabala
Ab. 9	Plastikoen XXI mendeko dauzkaten erronkak	M. Artetxe
Ab. 16	Gizakiak eta ingurumenaren arteko elkarrekintzak:...	E. Uriarte
Ab. 21	Nanofotonika	J. Aizpurua
Ab. 22	Ozeanografia Fisikoa Bizkaiko Golkoan	G. Esnaola

"Matematika eguneroko bizimoduan", Bidebarrietako liburutegia (Bilbo)

Data	Izenburua	Hizlaria
Az. 12	Matemáticas celestiales	D. Martín de Diego
Az. 19	De Moebius a Flash Gordon: matemáticas en la ciencia ficción	M. Barceló
Az. 26	De lo simple a lo complejo: fractales y caos	J. Aguirre

"Un paseo por la geometría/Geometrian barrenako ibilaldia"

Data	Izenburua	Hizlaria
Ots. 17	Todo está bajo control	L.A. Fernández
Ots. 24	Sudokus y modelización	M. Merino Maestre
Mar. 3	De las matemáticas a la pesca sostenible	R. Ibáñez Torres
Mar. 10	Geometría de la Relatividad General	J.M.M. Senovilla
Mar. 17	Un paseo por la obra de Santiago Calatrava, guiada por..	O. Gil Medrano
Mar. 24	Matemática discreta e intercambios de riñón	J. Massó Carreras
Ap. 21	Geometría computacional para redes de sensores	B. Palop del Rio
Ap. 28	La geometría el comic	A. Altarriba
Mai. 5	Origen y desarrollo del pensamiento numérico	J. Villaroel Villamor
Mai. 12	Matemáticas aplicadas a la predicción en meteorología	D.A. Morales Vega



"Actual research in Biology"

Data	Izenburua	Hizlaria
Ots. 17	Entomología Forense	M. Saloña
Mar. 3	Estudios estructurales de biomoléculas por...	J.L. Rodríguez Arrondo
Mar. 17	Procesos diagenéticos en el Cretácico Superior	J. Elorza
Ap. 14	Mis vivencias bioquímicas	J. Macarulla
Ap. 28	Ecofisiología del estrés y la contaminación en plantas	J.I. García Plazaola
Mai. 5	Fisiología energética de moluscos bivalvos	E. Navarro
Mai. 24	Auxología y Ecología Humana	E. Rebato

"Eboluzioa, geneak eta moldaerak/Evolución, genes y adaptación"

Data	Izenburua	Hizlaria
Mar. 10	La sexualidad humana: una paradoja evolutiva	A. García Leal
Mar. 24	La evolución asimétrica de las especies ...	N. López
Ap. 28	Darwinetik Giza Genomara	B. Jugo
Mai. 5	Dinosaurios: evolución y adaptaciones	D. Tamayo
Mai. 12	Hormones and receptors: which came first?	J. Cardoso

"Ura, lurra eta lurraldea aldaketa klimatikoaren ikuspegitik" mintegia

Data	Izenburua	Hizlaria
Mar. 22	Impactos del cambio climático y de los usos del suelo..	F. Gallart
	Los bosques y el agua: importancia de la evapotranspiración	S. Sabaté
	Impactos del cambio climático sobre las aportaciones...	A. Manzano

"Kosmologiako azken aurrerapenak: hamarkada liluragarria"

Data	Izenburua	Hizlaria
Ap. 14	Estructura a gran escala del Universo	V. Martínez
Ap. 21	Detección de materia oscura en el túnel de Canfranc	E. García
Ap. 28	El conocimiento del Universo a través del fondo...	E. Martínez
Mai. 5	Energía oscura y el telescopio de Javalambre	M. Moles
Mai. 19	Last discoveries in Cosmology	J. Silk

"Matematika eguneroko bizimoduan", Bidebarrietako liburutegia (Bilbo)

Data	Izenburua	Hizlaria
Mai. 6	Una matemática en la Antártida	A. Justel
Mai. 13	Matemáticas y Literatura	J. Leguina
Mai. 20	Minería de datos: matemáticas para un mundo digital	J.A. Lozano

"Meatokiak: sorreratik aplikazioetara" jardunaldiak

Data	Izenburua	Hizlaria
Mai. 17	Pegmatitas graníticas: desde las raíces a los frutos...	M.A. Galliski
	Los yacimientos IOCG de Chile:...	F. Velasco
	Los minerales de mena y sus relaciones texturales...	M.F. Marquez-Ferreira
	The iron-manganese phosphates:geological...	F. Hatert
	Gems in the future: from natural to synthetic	W. Simmons



Ziklotan banatutako hitzaldi horiez gain, ikastegian egin diren hitzaldi eta mintegi kopuru altua nabarmendu behar da (sailek, ikerketa taldeek, etab. antolatu dituzte). Jarduera horien artean hainbat pertsonen bisita azpimarratu behar da: Thomas Heyd, Trinitat Pradell, Inma Peral, Carlo Meneghini, Arantxa Fraile-Rodríguez, Stefan Stahl, Joan Salvadó, Manel Ebrí, etab.

- **ERAKUSKETAK**

"Etorkina emakumea biztanle / Mujer inmigrante vecina". SOS Arrazakeria / SOS Racismo elkartearen panel erakusketa. Otsaila-martxo.

"Hegaldia: eboluzioa, organismo hegalaria, hegaldien fisika::". Argazki erakusketa, Naturaldia jardueren barruan. Apirila-maiatza.

"SeverOreves". Komiki palindromikoen erakusketa, Vigoko Unibertsitateak antolatuta, Verbum-Casa dos Palabras museoaren aurrekaria. Maiatza

- **BESTE JARDUERA BATZUK**

Arestian aipatutako jardueraz gain, Fakultateko hainbat kidek aldikako edo noizbehinkako jardueretan parte hartu dute, hala nola Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astea (azaroan izaten da, Zientziaren karpan, Bilbon) eta baita beste ekimen batzuetan ere:

- "La ciencia, cosa de mujeres / Zientzia, emakumeon kontua" orri markagailuen bilduma, ZTF-FCTko Berdintasun Batzordeak egin
- La hora 11 (Ospakizun Aretoa, 2009-10-07)
- Zoramenlan (Ospakizun Aretoaren ondoko gela, 2009-10-14)
- Biodiesela (2009-10-14)
- Luis Castedo irakaslea UPV/EHUko Honoris Causa doktore izendatzeko inbestidura ekitaldia (2009-10-23)
- Ekaia aldizkariaren hogeigarren urteurreneko omenaldia (2009-11-27)
- Emakume etorkinen erakusketa (2010-02-19)
- SOS Arrazakeriaren hitzaldia (2010-02-24)

Azkenik, Erandioko Tartanga GLHBIko ingurumen osasunaren zikloko 4 ikasle etorri dira **gure ikastegira praktikak egitera** (P4.2.8 prozedura), ZTF-FCTko hiru sailetara: Landare Biologia eta Ekologia (2), Ingeniaritza Kimikoa (1) eta Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia (1). Praktiken jarraipena honako irakasle hauek egin dute, hurrenez hurren: Maria José San José, Sergio Menéndez eta Miren P. Cajaraville.

Somorrostro BHIP ikastetxetik, ingurumen osasunaren zikloko bi ikasle etorri dira Kimika Analitikoa Sailera, eta Blanca Gallo eta Rosa Alonso irakasleek egin dute praktiken jarraipena.



P4.4 Baliabide materialak eta zerbitzuak

Honako prozedura hauek biltzen ditu:

P4.4.A Kudeaketa ekonomikoa.

P4.4.B Lokalak eta zerbitzuak kudeatzea.

P4.4.C Segurtasuna eta prebentzioa.

Ikastegiak kudeatzen duen **ohiko aurrekontua** (P4.4.A prozedura) % 21,68 jaitsi da joan den urtekoarekin alderatuta, eta 2010eko ekitaldiko aurrekontua 218.827,60 eurokoa izan da. Ohiz kanpoko finantziazioen atalean (2010eko azaroaren 1era bitartean), 58.174,50 euro jaso ditugu (ohiko aurrekontuaren % 27); batez ere lokalak alokatzetik eta sailek kopiagintza eta multimedia zerbitzuak erabiltzeagatik egindako barne fakturaziotik etorri da ohiz kanpoko finantziazioa.

Aurrekontuaren zati handi bat irakaskuntzarako azpiegiturak hobetzeko erabili dugu. Honako atal hauek nabarmendu behar dira:

- 56 ordenagailu erosi ditugu informatikako 3. eta 5. gelak berritzeko; haietatik 12 IKTen Gerenteordetzak finantziatuak.
- Informatikako gela mugikor bat erosi dugu. Gela horretan, 20 ordenagailu mugikor daude armairu egokitu batean. Horri esker, Fakultateak informatika gela gehiago eskaintzen ditu gradu eta graduondoko irakaskuntzan.
- Bideokonferentzia sistema mugikor bat erosi dugu, gradu aretoan, Ospakizun Aretoaren ondoko gelan eta Dekanotzako 4. bilera aretoan erabili ahal izateko.

Gainera, Ekonomia Gaietako Batzordearekin batera, 2009/2010 ikasturterako ikastegiko irakaskuntza azpiegituraren eskaera kudeatu da. Campuseko Errektoreordetzak 294.606,01 -ko laguntza eman dio Fakultateari.

Fakultateko lokalen kudeaketari dagokionez (P4.4B prozedura), honako jarduera hauei eman zaie arreta (2009/2010 ikasturteko Kudeaketa Planean proposatutakoak):

- Fakultatea seinaleztatzea: aurten ikastegian seinaleak jartzeko lanak amaitu dira.
- Ikasgelak gradu berrietara egokitzea: 8 ikasgelatan, altzariak aldatu ditugu. Altzari berriak mugikorrak dira, ikasgelak mintegi gisa erabiltzeko moduan izan daitezten. Honako ikasgela hauek egokitu ditugu: 0.1, 0.2, 0.3, 0.4, 0.11, 0.12, 0.13 eta 0.14.
- Industria Nabearen erabilera sustatzea: 3 modulu (1, 2 eta 3) alokatu dizkiogu ESS Bilbaori, 200 m² guztira. Ikastegiko Ikerketa Batzordearekin batera egiten dira kudeaketa lanak.



Segurtasuna eta prebentzioa atalean (P4.4C prozedura), honako jarduera hauek azpimarra daitezke:

- Suteen aurka babesteko sistema zabaltzea. Sistema orokorrean sartu dugu substantzia kimikoen biltegietako (CD eraikineko zabaltzan) suteen zentrala.
- Larrialdietarako eskuliburua eguneratzea. B eraikineko ebakuazio bideak egokitu ditugu, hala egiteko aholkatu baitzuten 2009ko azaroko simulakroaren ondoren.
- Ebakuazio simulakro bat programatzea 2010eko azaroan.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, honako jarduera hauek aipatu behar dira:

- 9.000 kg hondakin kimiko baino gehiago tratatu ditugu EKONOR enpresaren bitartez.
- 7.000 litro hondakin biosanitario baino gehiago tratatu ditugu ELIRECON enpresaren eta Campuseko erraustegiaren bitartez.
- Ikastegi barneko hondakinak kudeatzeko prozedura berrikustea.
- Solaskide sare bat antolatu dugu sailetan eta ikerkuntza taldeetan, hondakin kimiko eta biologikoak behar bezala kudeatzeko.
- Substantzia kimikoetarako bi biltegi eraikitzea CD eraikinaren zabaltzan.

Aipamen berezia merezi du **prebentzioaren** arloan eman ditugun 15 prestakuntza moduluek. Fakultateko 447 kidek parte hartu dute.

- Segurtasun ikastaroak laborategietan, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, maiatzaren 3an, 19an eta 26an (142 parte-hartzaile).
- Arrisku biologikoari buruzko ikastaroak, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, martxoaren 22an eta 25ean (80 parte-hartzaile).
- Hondakinen kudeaketari buruzko ikastaroak, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, apirilaren 12an, 15ean, 26an eta 29an (131 parte-hartzaile).
- Lehen laguntzari buruzko ikastaroak, Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, ekainaren 10ean eta 17an (50 parte-hartzaile).
- Sutea izanez gero jarraitu beharreko jardunbideari buruzko ikastaroa, MAIDER enpresaren eskutik, apirilaren 26an. 2 txanda eta 31 parte-hartzaile.
- Suteen aurkako segurtasun sistemak erabiltzeko ikastaroa, SERCOINen eskutik. 2 orduko iraupena eta bi txanda. 13 parte-hartzaile.

Azkenik, segurtasunaren arloan egindako beste jarduera batzuk zerrendatuko ditugu:

- Ingurumen kutsatzaileak neurtzea 28 laborategitan eta 4 sailetan: Kimika Organikoa, Kimika Analitikoa, Biokimika eta Biologia Molekularra, eta Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia.
- Ikastegira atxikitako laborategi teknikarien mantalak garbitzeko kudeaketa.



- Biologiako FBA laborategietan 3 Diphoterine kit jartzea.
- Esku-hartze zuzentzailea Kimika Organikoko presio gasen instalazioetan eta argon botilan.
- Larrialdietarako seinaleak jartzea Kimika Ezorganikoko eta Kimika Organikoko laborategietan.
- Biologiako irakaskuntza laborategietan mantenimendua berrikustea segurtasun biologikoko 18 kabinatan.
- Segurtasun armairu berriak jartzea Kimika Analitikoko irakaskuntza laborategietan.
- 32 esku-hartze zuzentzaile CD eraikineko aireztapen sisteman.
- 27 esku-hartze zuzentzaile suteen aurkako babes sisteman.

P4.5 Euskara

Azpiprozesu honen helburua euskararen erabilera Fakultateko hainbat eremutan areagotzeko jarduerak sustatzea da. Halaber, ikastegiko barne eta kanpo komunikazioa elebiduna izatea ziurtatzen du.

18. taulan 2009/2010 ikasturtean ikastegiko titulazioetan euskaraz eskainitako kreditu kopurua ageri da.

18. taula.- Euskaraz eskainitako kredituak, titulazioka

Titulazioa		Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Guztira
Biologiako Lizentziatura	Nahitaezkoak	133	45	178
	Hautazkoak	70	72	142
Fisikako Lizentziatura	Nahitaezkoak	171	60	231
	Hautazkoak	33	18	51
Geologiako Lizentziatura	Nahitaezkoak	180	78	258
	Hautazkoak	30	0	30
Matematikako Lizentziatura	Nahitaezkoak	145,5	36	181,5
	Hautazkoak	30	18	48
Kimikako Lizentziatura	Nahitaezkoak	145,5	70,5	216
	Hautazkoak	80,5	73,5	154
Biokimikako Lizentziatura	Nahitaezkoak	-	51	51
	Hautazkoak	-	22,5	22,5
Ingeniaritza Kimikoa	Nahitaezkoak	153	72	225
	Hautazkoak	12	0	12
Ingeniaritza Elektronikoa	Nahitaezkoak	-	27	27
	Hautazkoak	-	0	0
Ingurumen Zientzietako Lizentziatura	Nahitaezkoak	-	0	0
	Hautazkoak	-	12	12

Bestalde, UPV/EHUren Praktiges sistemaren bidezko praktiken programan, Letren Fakultateko Interpretazioa eta Itzulpengintza titulazioko kide bat izan dugu gurean, eta, HLH bati esker, idatzizko hainbat testu itzultzen jardun du 2010eko otsailetik uztaiera bitartean. Horri esker, Dekanotza Taldeak sortutako dokumentazio guztia elebiduna izan da.



Horrez gain, ikastegian egindako batzar guztietan aldibereko itzulpen zerbitzua izan da.

Bi bloke handitan sailka daitezke 2009/2010 ikasturtean garatutako ekintza guztiak: batetik, Fakultateko bizitza akademikoan euskarak lekua izan dezan bideratutako ekintzak, eta, bestetik, zenbait eskertza ekitaldi.

Lehen blokean, honako hau nabarmendu behar da:

1. Irakasle laguntzaile elebidunen 3 plaza berri sortu dira; haietako bi Ingeniaritza Elektronikoa Sailean, eta bestea, berriz, Biokimika eta Zelulen Biologia Sailean.
2. "Murgil zaitetz Zientzian" hitzaldi zikloak egiten jarraitu dugu. Batez beste 85 ikaslek parte hartu dute, eta 5etik 4,2 punturekin kalifikatu dute gogobetetasun maila orokorra. Honako hitzaldi hauek osatu dute ziklo hori:
 - Urriaren 28an: Arantza Urkaregi (ZTF-FCT, UPV/EHU). Matematikak femeninoak al dira?
 - Azaroaren 4an: Olatz Basauri eta Jone Omar (ZTF-FCT, UPV/EHU). Petrolio eta bere kimika.
 - Azaroaren 11n: Sonia San José. Aranzadi Zientzia Elkarte. Burdin Aroko herri harresituak Euskal Herrian.
 - Azaroaren 18an: Josu Jugo (ZTF-FCT, UPV/EHU). Lebitazio magnetikoa: marruskadurarik gabeko teknologia.
 - Azaroaren 25ean: Nerea Zabala (ZTF-FCT, UPV/EHU). Errefrakzio indize negatibodun materialak.
 - Abenduaren 9an: Maite Artetxe (ZTF-FCT, UPV/EHU). Plastikoen XXI. mendean dauzkaten erronkak.
 - Abenduaren 16an: Eneko Uriarte (CSIC-Barcelona). Gizakia eta Ingurumenaren arteko elkarrekintzak: Zaharrak berri?"
 - Urtarrilaren 13an: Javier Aizpurua (CSIC-UPV/EHU). Nanofotonika.
 - Urtarrilaren 20an: Ganix Esnaola (AZTI). Ozeanografia Fisikoa Bizkaiko Golkoan.
3. Fakultateko irakasleentzako Hizkuntza Prestakuntzaren Tailerra eman zuen Euskal Filologia Sailak. 4,5 ECTS kredituko tailerra izan zen, eta ikastegiko 8 irakaslek parte hartu zuten.
4. Euskara Errektoreordetzari proposatu diogu zenbait testu liburu euskaratzea, eta abian dira itzulpenak. Honako liburu hauek dira:
 - Física Estadística, M.J. Tello, 2009. urtea, 300 orrialde.
 - Introduction of Mineralogy, W.D. Nesse, 2000. urtea, 442 orrialde.
 - Plant Physiology, L. Taiz, E. Zeiger, 2006. urtea, 764 orrialde.

Bigarren blokean, honako jarduera hauek izan dira:

- 2009ko azaroaren 27an, EKAIA zientzia eta teknologia aldizkariaren 22. alea aurkeztu zuten. Aldizkariaren 20. urteurrena izanik, Jaxinto Iturbe Fakultateko irakaslea omendu zuten, UPV/EHUko lehen Euskara errektoreordea izan baitzen. Bizkaiko Campuseko Esperientzia Geletan izan zen ekitaldia, Banco de España kaleko 2. zenbakian, Bilbon.

"Euskaraz egindako ikerketa eta dibulgazio zientifikoa" gaiari buruzko mahai inguru bat izan zen. Honako kide hauek parte hartu zuten: Josu Jugo, Ekaia aldizkariako Erredakzio



Batzordeko zuzendaria; Jon Irazusta, Euskara errektoreordea; Juan Ignacio Pérez Iglesias, UPV/EHUko errektore ohia, eta Karmele Artetxe, historialaria eta dokumentalista.

- 2010eko martxoaren 5ean, duela 30 urte euskarazko irakaskuntza gure unibertsitatean abiarazi izana ospatzeko ekitaldi bat izan zen UPV/EHUko Areto Nagusian. Promozio hartako ikasle askok parte hartu zuten (Biologiakoak, Fisikakoak, Geologiakoak, Matematikakoak eta Kimikakoak), eta baita irakasleek ere.


Errektorea izan zen ekitaldiko buru, eta Goyo Monreal 1980ko errektore izandakoa ere han izan zen. Egun hartan, zuhaitz bat landatu zuten *Arboretumean*, efemeridearen oroigarri, Jesús M^a Txurruka Fakultateko irakasleari esker.



P5 Ebaluazio, berrikuspen eta hobekuntza prozesua

Azken prozesu honek ZTF-FCTk Ikastegiko Kudeaketa Sistema (IKS) eta horren prozesuak ebaluatzeko, berrikusteko eta hobetzeko erabiltzen duen metodologia zehazten du. Ondorengo azpi-prozesuak barne hartzen ditu:

- P5.1 Ebaluazioa
- P5.2 Berrikuspena eta hobekuntza
- P5.3 5S programa



P5.1 Ebaluazioa

Ikastegiko Kudeaketa Sistemaren ebaluazioak egiteko metodologia ezartzea ahalbidetzen du. Gainera, bi prozedura barne hartzen ditu:

- P5.1.1 Interes taldeen gogobetetasun mailaren analisia.
- P5.1.2 Irakasleen lanaren kalitatearen ebaluazioa.

Azken urteetan bezala, Kalitate Katedrako teknikariek Fakultateko irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetetasun mailari buruzko informazioa biltzeko beharrezko operatiboa garatu eta antolatu dute (P5.1.1 prozedura).



Horretarako erabili den tresna Kudeaketa Berritzaileko Zentroen Sareak (KBZS) sortutako galdeketa izan da. Galdetegiaren bi bertsio erabili ziren: bat irakasle eta ikertzaileentzat, eta bestea administrazio eta zerbitzueta langileentzat. Bi galdetegiak euskaraz eta gaztelaniaz eskura zitezkeen. Irakasle eta ikertzaileen 128 iritzi eta AZPko langileen 20 iritzi jaso ziren, aurreko edizioan baino gehixeago (120 eta 13, hurrenez hurren).

19. taulan ikus daitezke irakasle eta ikertzaileei eta AZPko langileei egindako galdera bloke bakoitzari dagozkion balioak eta gogobetetasun maila. Zehazki, hemen aurkezten direnak galdera multzo bakoitzaren batezbestekoak dira. Informazio horrek bi langile taldeen iritziei buruzko orientazio orokorra ematen digu. 20. taulan irakasle eta ikertzaileen alderdi espezifikoak biltzen dira. Galdera guztien multzoa (54) 21. taulan dago adierazita.

19. taula.- Galdera blokeen batez besteko balioak (1-batere gogobeteta eta 6-oso gogobeteta arteko balorazioa)

Galdera blokea	AZPko langileak	Irakasle eta ikertzaileak
Azpiegitura eta bitartekoak	4,35	4,79
Laneko/Irakaskuntzako antolamendua	4,40	5,18
Prestakuntza eskaintza	4,60	5,04
Parte hartzeko aukerak	3,95	4,87
Aintzatespena	4,15	4,81
Laneko klima eta giroa	4,60	4,95
Barneko komunikazioa	4,15	5,06
Zerbitzu orokorren funtzionamendua	4,60	5,09
Ikastegiaren gizarte proiektzioa eta nortasun irudia	4,40	4,95
UPV/EHUren gizarte proiektzioa eta nortasun irudia	4,25	5,11
Ikastegiko Zuzendaritza Taldearen kudeaketa	4,55	4,95

20. taula.- Irakasle eta ikertzaileen alderdi espezifikoetako dagozkien balorazio kuantitatiboak (1-batere gogobeteta eta 6-oso gogobeteta arteko balorazioa)

Irakasle eta ikertzaileentzako galdera espezifikoak	Irakasle eta ikertzaileak
Gelen, mintegien, informatika gelen... kudeaketa	4,54
Esleitutako irakaskuntza ordutegiak	4,10
Irakasleen arteko irakaskuntza koordinazioa	3,40
Irakaskuntza betekizunaren banaketa saileko kideen artean	3,47
Taldeak dimentsionatzeko modua	4,02
Ikerketa lana garatzeko laguntza	3,19
Multimedia laguntza zerbitzua	4,59
Egiten ari naizen kudeaketa	4,58
Egiten ari naizen ikerketa	4,21
Ematen dudana irakaskuntza	4,57




21. taula.- Inkestan ebaluatutako alderdi batzuen balorazio kuantitatiboak (1-batere gogobeteta eta 6-oso gogobeteta arteko balorazioa)

Itema	AZPko langileak	Irakasle eta ikertzaileak
Ikasleekiko komunikazioa eta elkarrekintza	3,43	4,11
Euskararen erabilera ikastegiko administrazio zerbitzuetan (idazkaritza...)	3,93	3,22
Egiten ari naizen lana	4,45	4,51
Zuzendaritza Taldearen parte-hartzearen sustapena	3,27	3,23
ZTren hobekuntza jardueretako konpromisoak	3,36	3,63
Zuzentzeko eta kudeatzeko modua (irisgarritasuna eta harremana)	3,47	3,54
Zuzendaritzaren informazioaren eta komunikazioaren transmisioa	3,50	3,72
Irakokizun, kexa eta/edo erreklamazioen tratamendua	3,27	3,32
Pertsonen ahaleginen aintzatespena	3,21	3,29
Baliabide ekonomikoaren kudeaketa	3,27	3,25
Ikasleak erakartzeko politika	3,17	3,25
Ekimen eta proiektu berrietarako babes eta sustapena	3,28	3,35
Balioekiko identifikazioa	3,10	3,61
Xedea eta ikuspegia	2,89	3,50
lido estrategikoak	2,90	3,34
Lan unitatearen antolamendua	3,56	3,48
Seinaleak	3,30	3,65
Garraioa eta iristeko moduak	3,00	2,87
Aparkalekua	1,94	2,18
Garbiketa zerbitzua	4,15	4,53
Segurtasun pertsonala (lapurretak, osotasun fisikoa, etab.)	3,89	4,24
Liburutegi zerbitzua	4,53	4,65
Mantentze zerbitzua	4,45	4,17
Laneko segurtasuna (larrialdietarako planak, ebakuazioak, ergonomia, arriskuak, etab.)	3,00	3,67
Jantokia	3,56	3,49
Kafetegia	3,06	2,85
Atezaintza zerbitzua	4,10	4,50
Ikerketa eremuen egokitzapena eta ekipamendua	3,56	3,77
Irakaskuntza eremuen egokitzapena eta ekipamendua	3,65	4,26
Erreprografia zerbitzuaren funtzionamendua	4,72	4,74
UPV/EHUko administrazio zerbitzu orokorren eraginkortasuna (erregistroak...)	3,75	3,96
Zure lantokiko AZPko langileen kopurua, irakasle eta ikertzaileen kopuruarekin alderatuta	3,00	3,23
Web orrialdean informazioa aurkitzeko erraztasuna	2,70	2,89
Intranetean eskura daitekeen informazioa	3,50	3,57
Lan eremuen eta bilera gela egokitzapena (erosotasuna...)	3,35	3,97
Lan eremuetako eta bilera geletako ekipamendua (ordenagailua...)	3,50	4,30
EAZ eta IISIZ zentrok eskainitako zerbitzu informatikoaren eraginkortasuna	4,10	3,54
Jarduera kulturalen eskaintza	4,35	4,15
Kirol jardueren eskaintza	3,27	3,39
Medikuntza eta erizaintza zerbitzua	4,60	4,55
Lankideen arteko giroa eta harreman pertsonala	3,58	4,23
Lankideen arteko babes eta lankidetzak profesionalak	3,32	4,13
Ikastegiko parte izatea	4,45	4,42
Beste taldearekiko harremana (AZPko langileak edo irakasle eta ikertzaileak)	4,42	4,26
Erakundeekiko harremanak	3,20	3,19
Estatuko eta nazioarteko beste unibertsitate batzuekiko harremanak	2,89	3,30
Enpresekiko harremanak	3,42	3,00
Ingurumen kudeaketa	2,82	3,31
Kanpoko proiektzioa (irudia / ospea)	3,29	3,08
Ordainsaria	4,20	3,87
Lan baldintzak	4,20	3,90
UPV/EHUko kide izatea	4,45	4,06
Lanarengatiko aintzatespena	3,25	3,55
Maila akademikoan igotzeko aukerak	2,30	3,76
Oro har, hau da aurreko alderdiekiko duzun gogobetetasun maila:	3,30	3,85



Aurreko urteetan bezala, 2009/2010 ikasturtean ikasleek beren irakasleek emandako irakaskuntzarekiko duten gogobetetasun maila ebaluatzeko kanpaina egin da (P5.1.2 prozedura). Kanpaina hau Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (SED/IEZ) gauzatzen du eta gure ikastegian "autopase" metodoaren bidez egiten da. 2. irudian irakasleen gogobetetasun orokorraren urtetik urterako aldaketak ikus daitezke, titulazioen arabera banatuta.

2. irudia.- Ikasleek beren irakasleek emandako irakaskuntzarekiko duten gogobetetasun orokorra (1etik 5erako eskala).





P5.2 Berrikuspena eta hobekuntza

Ikastegiko Kudeaketa Sistema (IKS), horren prozesuak eta prozedura sistematikoki berrikusteko eta hobetzeko metodologia zehazten du, ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko. Fakultateko interes taldeen ahalik eta gogobetatsun maila altuena lortzeko beharrezko hobekuntza ekintzak zehaztea eta lehenestea ahalbidetzen du. Gainera, P5.2.1 prozedura barne hartzen du (Prozeduren berrikuspena eta hobekuntza).

Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak (KBBS) elkarren osagarri diren bi dokumentu barne hartzen ditu:

- A. KBBSren eskuliburua: ikastegiaren ezaugarriak, kalitate politika eta hori martxan jartzeko erabiltzen dituen bitartekoak: Ardatz Estrategikoak, Prozesuen Sistema (PS), etab.
- B. PSren eskuliburua: prozesu, azpiprozesu eta prozedura guztiei buruzko dokumentazioa, eta kudeaketa adierazleen taula.

2010eko urtarrilean, otsailean eta martxoan, ikastegiak KBBSren adierazleen diagnostikoa, eguneratzea eta berrikuspena egin zuen, AUDIT programaren ildoan arabera egiaztapena lortzeko asmoz.

Fakultateko Batzarrak hala eskatuta, zeregin hau AUDIT-ZTF batzordeak burutu zuen. Batzorde hori ondorengoek osatzen dute:

- Esther Domínguez, Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanoa. Batzordeko presidentea.
- José Luis Pizarro Sanz, Kalitate eta Berrikuntza Programetako dekanordea. Batzordeko koordinatzailea.
- Osane Oruetxebarria Fernández de la Peña, ikastegiko idazkari akademikoa.
- Roberto Aguado Zarraga, Irakaskuntzaren Plangintzarako dekanordea.
- Julio María Álvarez Valdivielso, ikastegiko teknikaria.

Batzorde horrek dokumentazioa prestatzerakoan oso erabilgarria izan zen UPV/EHUko Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzako bi kideren aholkularitza izan zuen:

- Jesús María Hernández Vázquez, Bizkaiko Campuseko kalitateko zuzendaria.
- Raquel Ramoneda García, Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuko teknikaria (SEI/EIZ).

Uztailean ikastegiak UNIQUAL agentziaren txostena jaso zuen, "P1.3.7 Titulua desagertzea" prozeduran egiteko aldaketa txikien proposamena biltzen zuena. Prozedura hau egokitu ondoren, ebaluazio agentziak 2010eko abenduan eman zion egiaztapena ikastegiari.



Horrez gain, aurreko ikasturtean Koordina2 eta ZTFrantz izeneko hobekuntza taldeak sortu ziren. 22. taulak biltzen ditu taldeek zituzten enkarguak eta parte-hartzaileak.

Taldeen lanen ondorioak ikastegiko intranetean eskura daitezkeen memoria banatan daude bilduta (<http://zabalduehu.es>, "Hobekuntza taldeak" atala). Orain, ondorio horiek irakasleen jarduerak gauzatzeko (irakaskuntzako koordinazio arloetan) eta ikasle berriak erakartzeko ekintzak hobetzeko oinarri gisa erabiltzen dira.

22. taula.- 2009/2010 ikasturtean modu aktiboan jardun duten hobekuntza taldeak

Taldearen izendapena	Enkargua	Kideak
Koordina2	Mailako koordinatzailearen eta horren zereginen analisia, graduiko ikasketa berrien testuinguruan (Graduko Ikasketen Batzordea, GIB).	<ul style="list-style-type: none"> - José Luis Pizarro, Berrikuntza eta Kalitate Programetako dekanordea eta taldearen sustatzailea. - Roberto Aguado, Irakaskuntzaren Plangintzarako dekanordea eta taldearen koordinatzailea. - María Jesús Elejalde, Kalitate Katedrako aholkularia. - Pedro Alegría, Matematika Saileko irakaslea eta Matematikako titulazio koordinatzailea. - Inés del Campo, Elektrizitatea eta Elektronika Saileko irakaslea. - Andone Estonba, Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saileko irakaslea eta Biologiako 2. mailako koordinatzailea. - José Ignacio Gutiérrez, Ingeniaritza Kimikoa Saileko irakaslea eta Ingeniaritza Kimikoko 2. mailako koordinatzailea. - Iraide Mardones, Matematika Saileko irakaslea eta Matematikako 1. mailako koordinatzailea (euskarazko taldea). - Irantzu Martínez, Kimika Analitikoa Saileko irakaslea eta Kimikako 3. mailako koordinatzailea. - Isabel Moreno, Kimika Organikoa II Saileko irakaslea. - Maria Cruz Zuluaga, Mineralogia eta Petrologia Saileko irakaslea.
ZTFrantz	Ikasleak erakartzeko Zientzia eta Teknologia Fakultatean gauzatzen diren jarduera ezberdinen azterketa eta koordinazioa. Ekintza berrien proposamena	<ul style="list-style-type: none"> - José Luis Pizarro, Berrikuntza eta Kalitate Programetako dekanordea eta taldearen sustatzailea. - Manuel Soto, Euskarako, Ikasleen Arretarako eta Nazioarteko Harremanetarako dekanordea eta taldearen koordinatzailea. - Miren Agurtzane Ortiz, Kalitate Katedrako aholkularia. - Ana I. Puente, Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saileko irakaslea. - Maria José San José, Ingeniaritza Kimikoa Saileko irakaslea - Juanma Gutiérrez-Zorrilla, Kimika Ezorganikoa Saileko irakaslea - Josu Sangróniz, Matematika Saileko irakaslea - Raúl Pérez, Materia Kondentsatuaren Fisika Saileko irakaslea. - Xabier Murelaga, Estratigrafia eta Paleontologia Saileko irakaslea.



P5.3 5S programa

Irakaskuntza laborategietan eta ikastegiko beste eremu komun batzuetan 5S metodologia ezartzeko mekanismoa zehazten du. Programa honen helburua erabiltzaile guztientzat komunak diren Fakultateko lekuak anolatuta, ordenatuta eta garbi egotea lortzea da, diziplinaren eta ohituren bitartez. Era berean, taldeko lana eta Fakultateko zerbitzuen erabilera egokia eta zainketa ere sustatu nahi ditu.

2009/2010 ikasturtean zehar, 5S metodologia martxan jartzeko guztira 7 talde aritu dira modu aktiboan. Horietan 40 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute; bai irakasle eta ikertzaileek bai AZPko langileek. EUSKALITEk talde horietako lauri metodologiari buruzko prestakuntza espezifikoa eta aholkularitza eman die 2010eko urtarriletik maiatzera, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzaren finantziazioari esker (IPC 2009 programa).

Egindako lanari esker, aurreko ikasturtean Fakultateko 13 irakaskuntza laborategi gehiagok (Biologia, Kimika eta Fisika) jarri zuten martxan 5S metodologia. Horietan guztietan 3. irudian agertzen den bereizgarria ikus daiteke, ikastegiko Multimedia Zerbitzuko langileek diseinatutakoa.



3. irudia.- 5S metodologia dagoeneko ezarrita duten ikastegiko laborategi eta zerbitzuetarako sarreretan jarritako bereizgarria.

4. 2010/2011 IKASTURTEKO KUDEAKETA PLANA

Fakultatea dekanoren berriaren hautaketa prozesuan murgilduta dagoenez, Dekanotza Talde berriari egokituko zaio 2010/2011 ikasturteko Kudeaketa Plana Ikastegiko Batzarrari aurkeztea, hauteskunde prozesua amaitutakoan.



5. LABURDURAK

Laburdura	Definizioa
AABB	Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea (ZTF-FCT)
AADB	Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordea (UPV/EHU)
AAEO	Akademia Antolakuntzako Errektoreordetza
AGZ	Akademi Gestioko Zerbitzua
AL	Latinoamerika
ALZ	Arkitektura eta Lanen Zerbitzua
AZJ	Ateak Zabaltzeko Jardunaldiak
AZPko langileak	Administrazio eta zerbitzuetako langileak
BHI	Bigarren hezkuntzako ikastetxea
EAJ	Enpresen Aurkezpenerako Jardunaldiak
ECTS	European Credit Transfer System (Europako kreditu sistema)
EFQM	<i>European Foundation for Quality Management</i>
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EHH	Eraberritzea, handitzea eta hobekuntza
EIZ	Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzua
EP	Erreferentziazko plantilla
EPr	Enpresetako praktikak
FAQ	<i>Frequently Asked Questions</i> (Maiz egiten diren galderak)
GAL	Gradu Amaierako Lana
GIB	Graduko Ikasketen Batzordea
GO	Gerenteordea
IAZ	Ikasleentzako Argibide Zerbitzua
IEZ	Irakaslana Ebaluatze Zerbitzua
IGET	Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa
IKT	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
Ir./ik.	Irakasle eta ikertzaileak
KBB	Kalitatea Bermatzeko Batzordea
KBBS	Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema
KBZS	UPV/EHUko Kudeaketa Berritzaileko Zentroen Sarea
KP	Kudeaketa Plana
KT	Kudeaketa Txostena
LHI	Lanbide heziketako ikastetxeak
LKI	Lan legepeko irakasle kontratatu iraunkorra
LPZ	Lanpostuen zerrenda
MP	Mugikortasun programak
PE	Plan Estrategikoa
PI	Prestatzen ari diren ikertzaileak
PKS	Prozesuen araberako Kudeaketa Sistema
PM	Prozesuen Mapa
PS	Prozesuen sistema
SICUE	Espainiako Unibertsitate Ikastegien arteko Truke Sistema
TASSEP	TransAtlantic Science Student Exchange Program
TBDO	Titulazio Berrien Dekanordetza
TKBS	Titulazioen Kalitatea Bermatzeko Sistema
TR	Transcript of Records
UK	Unibertsitateen Kontseilua
UKP	Urteko Kudeaketa Plana
UKT	Urteko Kudeaketa Txostena
UOA	Unibertsitate Orientaziorako Azokak (Iehlen, Unibertsitate Orientaziorako Jardunaldiak,UOJ)
ZT / DT	Zuzendaritza Taldea / Dekanotza Taldea
ZTF-FCT	Zientzia eta Teknologia Fakultatea – Facultad de Ciencia y Tecnología
ZTFIAZ	Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikasleentzako Argibide Zerbitzua



ESKERRAK

Dekanotza Taldeak eskerrak eman nahi dizkizue aurten ideiak, ahaleginak, kritikak, zorionak edo adorezko hitzak izan dituzuen guztiei. Eskerrak eman, baita ere, txosten honetan bildutako zereginen funtzionamenduan eta garapenean lagundu duzuen guztiei. Eta baita Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei, irakasleei, ikertzaileei eta ikasleei ere.

Gure eskerrik beroena eman nahi diegu ondorengoei:

- Titulazioetako, mailako eta truke akademikoko koordinatzaileak, baita beste koordinatzaile batzuk ere.
- Tutore akademikoak.
- Fakultateko batzorde guztietako kideak.
- Ikastegiko Batzarreko kideak.
- Saisetako zuzendari eta idazkariak.
- Sailataletako koordinatzaileak.
- Ikasleen Kontseilua eta ikasleen elkarteak.
- Ateak Zabaltzeko Jardunaldietan, Enpresen eta Berrikuntza Teknologikoko Zentroen Aurkezpenerako Jardunaldietan, Alberto Magno ekitaldian eta ikasle berrien harrera ekitaldian beren borondatez parte hartu zuten ikasleak.
- Koordina2 eta ZTFrantz hobekuntza taldeetako partaideak.
- "Zientzia Bizirik", "Zientzia Olinpiadak", "Zientziaren Astea", "ZTF-FCTren II. Ikerketa Jardunaldiak" eta "Alberto Magno 2009 ekitaldia" jardueretako parte-hartzaileak.

Eskerrik asko baita ere ikastegiko jarduerak finantzatzuz laguntza eman diguten erakundeei: BBK, Bizkaiko Aldundia, elkargo profesionalak, Campuseko Errektoreordetza, Ikerketako Errektoreordetza, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetza, Ikasleen Errektoreordetza, Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetza eta Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza.

Eskerrik asko denei.